



Euskeraren Erri Akademia / Academia Popular de la Lengua Vasca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

Euskerazaintza

LXXVII Zenbakia • 2016. urtea-1

Euskalerrriaren edestia V

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dute-
nentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu
zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta
gure erantzuna au da: “Len”, oraingoz ez degu
arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean
naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta
emaitza ematen digutenak “laguntzaille” taldera
sartuko ditugula esaten da gendun.

**Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta
gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30
euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure
kontuen zenbakietan.**

Gure kontuen zenbakiak onek dira:

BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669

KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589

EUSKERAZAINTZA

Euskeraren Erri-Akademia

Colón de Larreategi 14, 2^a eskuma

48001 - BILBAO

e-mail: aeuskerazaintza@gmail.com

www.euskerazaintza.org

Z. N. A. / C. I. F. G 20/127. 759

Eusko Jaurlaritzaren Elkartea Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena
(BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)

I.S.B.N. : 1132- 1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Diseinua eta inprimaketa: IBEGRAFIK
www.ibegrafiik.com

Laguntzaille

 **Bizkaia**

foru aldundia
diputación foral

<i>2.015ko urtean LORTUKOAK eta</i>	
<i>2.016ko urtean LORTZEKOAK</i>	5
<i>Atarikoa</i>	6

EuskalERRIAREN EDESTIA

<i>5n. ATALEKO 1'go ZATIA</i>	9
<i>A URKEZPENEA</i>	9
<i>1. 2. Sarrera</i>	10
<i>1. 3. Erromatar katolikotasunezko aritik</i>	10
<i>1. 4. I Alfonso Gudalaria Nafar-Aragoiko erregea</i>	10
<i>1. 5. VI In Santso Jakintsua</i>	11
<i>1. 6. VII In Santso Azkarra edo ta Indartsua</i>	12
<i>1. 7. I Teobaldo Nafar erregea</i>	13
<i>1. 8. II In Teobaldo Nafar erregea</i>	14
<i>1. 9. Kolonigilleen Iribilduak, gogora ekarteko</i>	14
<i>1. 10. Bizkaiko Jauntzan, euskal-sendiaren babeserako izanda be, Urien kolonizazioakaz, EuskalERRIAN euki genduzan arrotz biurtzeko arazoak, erri onein bitartez asi ziran</i>	15
<i>1. 11. Balmaseda</i>	16
<i>1. 12. Bermeo</i>	16
<i>1. 13. Lanestosa</i>	17
<i>1. 14. Plentzia</i>	17
<i>1. 15. Bilbao</i>	17
<i>1. 16. Otxandio</i>	18
<i>1. 17. Portugalete</i>	18
<i>1. 18. Lekeitio</i>	18
<i>1. 19. Ondarroa</i>	18
<i>1. 20. Areatza</i>	19
<i>1. 21. Markina</i>	19
<i>1. 22. Elorrio</i>	19
<i>1. 23. Gernika</i>	19
<i>1. 24. Gerrikaitz</i>	20
<i>1. 25. Durango</i>	20
<i>1. 26. Ermua</i>	20
<i>1. 27. Ugao</i>	20
<i>1. 28. Mungia</i>	21
<i>1. 29. Larrabetzu</i>	21
<i>1. 30. Errigoitia</i>	21
<i>1. 31. Orduña</i>	21
<i>1. 32. 4n ataleko ondorio labur bat, EuskalERRIAREN orduko etsaitasunaren iturria argituz, ulertu ostean, 5n atalean argitu dagiguzan, nortzuk izan ziran ari orretatik etorten ziranak, gure EuskalERRIAREN aurka</i>	21

1. 33. Bizkaiko Jaunak.....	22	2. 27. I Leonor eta bere senar Foixeko Gaston kondeak euki ebezan seme-alabak	52
2. 1. I Blanka, Nafar erregiña. IVn ataleko amaieraren aria artuz.	23	2. 28. Bizkaiko Jauntzaren aria ostera artuta, 26n Bizkaiko Jauna.....	52
2. 2. I Blankaren bizitza Nafarroako erregiña lez.	25	2. 29. I Juana, Zoroa esaten eutsoenaren, bizi kondaira laburra.	52
2. 3. Nafarroako I Blanka eta II In Juanek, euren ezkontza bidez euki ebezan seme/alabak, oneik izan ziran.	26	2. 30. I Juanak euki ebazan aundiki izenak.	53
2. 4. Bizkaiko Jauntzaren aria artuta, 23n. Bizkaiko Jauna eta gure Foru Legearen Baimena.....	26	2. 31. I Juanak bere senar Ansburgoko I Felipe Ederragaz euki ebazan seme alabak	54
2. 5. Nafar erregetzaren aria ostera artuta, Aragoiko errege II In Juan Maltzur Aundiaren bizi kondaira.	29	2. 32. Nafar Ego-aldeko menpetasunaren edesti laburra, Bizkaitar Jauntzaren kondaira onetan.....	54
2. 6. Nafartarren, anai-arteke guda.....	31	2. 33. Ondorio laburra, Bizkaiko Jauntza onetan.....	56
2. 7. Aragoiko jaurkintza.	32	2. 34. Nafar erregearen aria ostera artuta, Foix tar leñuan, I Frantzisko Febo edo Feboren izenagaz ezagutu zan Nafar erregea.	57
2. 8. Oar-labur baten bidez, emen ikusten doguna.....	34	2. 35. Nafarroako erregetzan, Foix'eko I Kataliñ erregiña.	59
2. 9. II In Juanek, bere bigarren ezkontza bidez, Gaztelako Enrikeztar Juanagaz euki ebazan alaba-semeak, oneik izan ziran.....	34	2. 36. Nafarroako I Kataliñ erregiñak bere s enar Foix'eko III In Juan'egaz euki ebezan alaba semeak.....	71
2. 10. Eta II In Juanek legezko ezkontzatik kanpo euki zituzen seme/alabak.....	35	2. 37. Aragoiko II na eta Gaztelako Vn Fernandoren bizi kondaira laburra.....	71
2. 11. Fernandez de Korodoba, Ayala ta Enrikeztar Juana.	35	2. 38. Kristobal Kolonen, bizi kondaira laburra.	75
2. 12. Enrikeztar Juanaren zeregiñak, erregiña lez.	35	2. 39. Leen, sasikumetasunean jaiotakoaren aurkako legeak.	75
2. 13. Nafartarren Bianako Printzea lez, IVn Karlosen kondaira.	36	2. 40. Mallorca ugartearen asierazko edesti ta Kolonen alditan bizi ziran jendearen jakituri ta nortasuneko zeregiñaren aurkezpena.....	78
2. 14. Oartxo bat emen.	41	2. 41. Mallorkako ugartean bizi ziran Juduak, mapagintzan jakiten ebana.....	80
2. 15. IVn Karlosek, euki ebazan alaba-semeak.....	41	2. 42. Nortzuk izan ziran Kolontar Juan eta Kolontar Margalida ?.	80
2. 16. IVn Karlos Bianako Printze onek, euki zituzen emakumezko maitaleak:	42	2. 43. Itxas-lasterkari ta Itxas-lapurrak.....	83
2. 18. Bizkaiko jauntzaren aria ostera artuta, 24n Bizkaiko jauna.	44	2. 44. Kolontar Kristobalen bizitza.	83
2. 19. 25n Jauna, Bizkaiko Jauntzan.	45	2. 45. Oar txiki bat zati onetan.	89
2. 20. Fernando ta Isabel errege katolikoak, euki ebazan seme-alabak.....	46	2. 46. Kolonen bizitzako edestia ostera berrezkuratuta.	89
2. 21. Taket-arteke ondorio labur-bat, Bizkaiko Jauntza onetan.....	47	2. 47. II In Julio Aita Santua, Frantziko XII In Luis, II In Fernando katolikua, eta Nafartar I Juanen eriotzeak.	96
2. 22. Bizkaitarrak, Jauntzagaitik ordaindu bear ginduzan dirutzak, Gaztelako erregeakaz itzarmentzen asi gintzazanetik.....	47	2. 48. FERNANDOren BIDETIK ZISNEROS KARDINALA.....	96
2. 23. Nafar erregeen aria ostera artuta, Nafarroako I Leonor.....	48	2. 49. Nafarroako II In Enrike eta Espainiako I Karlos.....	97
2. 24. I Leonorren ama-aita ta neba-aiztaren eriotzak.....	48	2. 50. Ego-Naparroa askatzeko gudan, Nafarroako II In Enrike ta Frantziko I Frantzisko erregeak baituta.	97
2. 25. I Leonorren bizi kondaira.....	48		
2. 26. Nafarroako Gazteluak ezereztuten.	51		



EUSKERAZAINTZAREN ERAKUNDEAN

2.015ko urtean lortukoak eta 2.016ko urtean LORTZEKOAK

Aurreko urteetako batzarretan izan dogun oitureari jarraituz, gaurko nire idaz lan au gauza bi adierazteko izango da: Joan dan urtean zer egin dogun eta 16koan zer egin bear dogun. Bi milla ta amaseigarren urtean gagoz. Epaillak ogeitabederatzi daukozala. Urtero lez, gure lanen aleak batuteko garaia eldu jaku. Begiradatu bat egingo dautsogu batutako orreri. Lenengo ta bein, egin doguna ikusi eta gero zer, zelan jokatu geinken aurrerantzean. Beti be gauzak ondo egotetik, obetu gurean.

LORTUAK:

Euskerazaleak Alkarteak daukan etxean illeroko Batzarretan osotu dogu alkar lana geuk geure eralkietatik erdiak ordainduz. Euskerazaleak-Alkartean gugaz egon diranak betiko antzera doaz. Atutxatar Paulok bete dau Batzarreko idazkari lana gure agiritegian zaintzen da. Urtean bitan argitaratzen dogu EUSKERAZAINTZA aldizkaria eta igaz be alantxe egin dogu. Gai sakon eta naiko luzeakaz osotuta. Gauza bat esan bear dogu. Ezin dogula luzatu Aldizkaria 100 orrialdetik gora. Arrazoi bigaitik: Bidalgoa askoz garestiago litzakelako batetik, eta bestetik ez litzakela sartuko daukoguzan eskutiz azaletan. Alan da be esan bear 100 orrialde gitxitzat jotzen dogula. Interneteko lana be aitau bear dogu. Lan bikaiña zalantza barik. Or agertzen doguz EUSKERAZAINTZAREN aldizkari guztiak.

Kardaberaz´en bilduma, Arrinda´tar Anes´en idazkiak eta liburuak, San Sebastian ta Zubillagatar Jose Marik (Laxaga) idatzi dauzan liburuak eta Umandiren Asmo Iztegia iztegitintzan sartuta daukaguz, eta 2.015´n Goikoetxea´tar Iñakiren idaz-lanak be sartu genduzan. Bizkaiko Foru Aldundiari diru laguntza eskatuaz. Eta Euskerazaleak Alkartearen izenean, idazle askoren liburu ta idazkiak sartuta daukoguz. Esate baterako: Aita Lino Akesolo, Aita Santi Onaindia, Augustin Zubikarai, Bizente Latiegi, Iñaki Zubiri, Martin Olazar, Paulin Solozabal, ZER eta Euskerazaintzaren aldizkariak eta abar. Lan aundia da emen egiten dana. Aldundiaren laguntza be oso ona da. Sartu doguzan idazkiak sartu doguzelako, mundu guztian lenengoak gara arlo onetan 130.000 biztale baiño geiagorekin eta Euskerazaleen biztanleak 650.000tik gora direzela.

LORTZEKOAK:

- 1º Euskerazaintza Aldizkaria ateraten jarraituko dogu besterik esan ezeean. Urtean bi edo irutan.
- 2º.- EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN etxean illero, jagokun illearen eguenean, batzarrak egiten jarraituko dogu.
- Batzar agirien ardurea Atutxatar Paulok daroa.
- 3º.- INTERNETEKO lanakaz be jarraituko dogu.
- 4º.- Gure Batzarra, ontzat dago artuta Eusko Jaurlaritzan.

LENDAKARIA

Barroeta´tar Klaudio

IDAZKARIA

Atutxa´tar Paul

Atarikoa 2016

Eskuartean daukagun lanari, istoriagintzari, begiratu, ikuspuntu oneik azpimarratu geinkioz:

- 1º- Zer dan edestia, egin eta idaztea.
- 2º- Euskalerrian, egiten dan edestia.
- 3º- Noz eta nortzuk dira, edestia idazten dabenak.

Munduan zear eta gizakien artean, zerbait esandako ta egindakoari, Istoría dala deritzogu. Eta iñoz istoria ori idazten baldin ba da, istori idatzia dala esaten dogu, au da: edestiaren edestia.

Zentzu onetan, idazkeran esaterako, ba doguz aurrelari izandako *greziar ezaun ta ospetsuak* diranak, adibidez: Herodoto, Tuzidides eta abar.

Erromatar artekoak be, ez dira gitxi: Estrabon, Salustio, Julio Zesar, Tito Livio, Publio Kornelio, Tazito eta abar.

Erdi Aroan: eleizgizonak edestilari biurtu ziran: Beda, Sevillako S.Isidoro....

Aro Modernoan, umanismoak edestia ez ezik, beste zientziak erabiltzen dau Edestia ikertutean: Alan Dom Mabillon, Giorkio Basari...

Ilustrazioak, argia ekarri eutsen Edestiari: Fenelon, Boltair, Monteskie....

XIX mendean, edestia, zientzia eldu biurtu zan: T.Mommsen, Thiwerry.....

XX mendean bide bardiña jarraitu eben: J.Huzinga, Paul HJazard...

Gaur egun: Eskola asko dira...

EUSKALERRIKO edestilariak asko izan dira, ta dira. Onako oneik aukeratu geinkez nagusien artean:

Klasikoak: Pero Lopez Aiarakoa, Esteban Garibai, Lopez Gartzia Salazar, Lopez Martinez de Isasti, Estanislao Labayru, Jeronimo Mendieta, Rodrigo Ximenez.

Garaikideak: Anakleto Ortueta, Joxe Aranzabal, Migel Artola Gallego, Ramon Barea Unzueta, Marcelino Beroiz Lazkano, Juan Pablo Fusi Aizpurua, Fernando Garcia de Kortazar, Jimeno Jurio, Santi Leone, Bixente Serrano Izko, Jose Ignazio Telletxea Idigoras, Xabier Zabalza.

OARTXU Bi

* Pauloren lanean azalduten dira, Bizkaiko JAUNTZAK batzutan, beste batzutan Naparroako ta Gaztelako ERREGÉAK. Esan bear dogu, JAUN deituten jakiela Bizkaian, legezko agintariei. Eta ERREGÉ lez onartzen zirala, Gaztela ta Naparrako agintari nausienak.

**Bein baño geiagotan, aitatzen dau Paulok, NIZEAKO BATZARRA. Konstantino agintariak bul-tza ebana, garai artako alkarteko iskabillak eta alderdikeriak bakeztuteko, erligio gaietan burua agertu gabe. Osio, Kordobako Gotzaia, izan zan Konstantinoren Aolkulari ta Kontzilioaren Batzarburu.

KONTZILIOKO Itzaldietan eta idatz textuetan batzarkide guztien onerako, iskuntza bat onartu zan, iñorentzat zapalketa lez ikusten ezana, au da latin izkuntza, beti be danak edo geienak, on artu-ten ebena. Ori dala ta izan zan bat batzarraldi baten euskeraz itzaldia emondakoa.

Izlari orren izen-abizenak Rodrigo Semenez Arradakoa, Osmako Gotzai ta Toledoko Artzapezpi-kua, ditugu.

Amaitu orduko esan bear, Atutxatar Pauloren lana, luze eta zeastasunez ornitua dagola. Idazkera jatorraz josi ta osatutakoa gañera.

Eskua luzatuz agurtzen dogu lan eder ta aberatsaren egille Atutxatar Paulo.

Amorrortu ta Barroeta'tar Klaudio.
Agurainen 2.016ko urtean Epailla'ren 10'ean.

.....

Paulo egillearen argi-bidea.

Paulo egilleak, Euskerazaintzako V Atal onetan idaxten dauana Euskalerraren Edestiari buruz, zeatz ulertu edo gogoratzeko, Klaudioren oartxo biak argituz, bost zeatzezko izpi-argi oneik.

Egi-zale lez, eta gorroto edo edozein biotzmin gainetik, esan bear dot:

Ez dodazela iñoren eritzirik baztarten, nire ikusmeneko ulermen bidez, lanari buruz eritzi illunak ikusten dodazanean, argitzen beartuta agertzen nazelako, eta bear dauan azken-ukia emon, nire idaz-lan ulermenaren mesede.

-Bizkaiko Jauntzak batzutan, eta Nafar-Gaztelako Erregeak beste batzutan aipatzen dodazala, esaten dau Klaudiok.

Eta ustegabeaz ez dotelako egiten ezer, iñundik iñora ez da olan:

a) Euren antolamenduzko jaiotzatik ekarten dodazalako ondo zeatzuz josita, erakunde orreitarako asmatu ziran legeakaz arrotzasunetik babesteko, eta bai, Katolikotasunezko Aberritasun eritzizko legean sortu ziran Europako erregetzak, Jaungoikuak Ludi au sortzeko, oiñarrituta, bereztu Eutsoezan legearen, guztiz aurkakoak diranak.

Asi dira gaur leku batzuetan⁽¹⁾ esaten, katolikotasunaren aberritasunezko zentzuan irasi ziran erlijiozko lege orreik, berezko azturan oituratuta sortu ziran jendekuntzaren aurkakoak dirala. ***Eta ori bada zeozer.***

b) Nire zergatiaren erantzunari zentzua emoteko, gaurko Ikastetxe Nagusietatik orokorrez jakiten dana, zeatzasunezko antolaketa bidez artzen dodaz, argitzen dodazan zeatzasunak.

Eta AITA ONAINDIA ta BAZETA'tar Santigaz LAGUN oraiñ ia 40 urtetik ona, gure Euskalerrri maite onek euki ebazan demokrazizko askatasunaren arazoetatik urteteko, biok artu gendun erabagi bidetik, gure idaz-lan bidez lortzen ba gendun arrazoidunezko izpi-argirik, etxera ekartea zalako.

d) Nizeako batzarra geiagotan aitatzen dodala esaten dau Klaudiok.

Kontuan artu bear dogu, Euskalerrriko edestiaren bostgarren atal onetan zeazki azaltzen doten erdi aroko zati au, gogorrena izan zala gure Nafar erregearentzat, eta ezeren begirun barik, katolikotasunezko erlijioaren legeekin menperatu ebala In Fernando katolikuak Nafartarren askatasuna.

Adibide guzti orreikaz argitzen dot esaten doten guztia, eta ez nik esaten dotelako, dan guztia idatzita dagoelako baizik. Aurkitzea baiño besterik ez dago, zeatzasun guzti orreikaz egiztuteko gure Euskalerrri maite onen edestia.

(1) 11 eta 12ko egunetan, Deiako izparragian agertu dana.

Argi dago, Nizean artu ziran legezko erabagiak, Jaungoikuak Ludi au irasi ta bereztu edo oiñarritu eban daukazan baldintzazko legearen aurkakoak dirala. Nizeako legegille aiek, jainkotu egin ziralako.

Gure edestiaren sarreran, Erromak be euki ebazan gizon aundi batzuk, euren itaunetan: “*Zer da Erroma*”⁽¹⁾ agertzen ebala, Jaungoiko edo berezko legeakaz bardinkatu ezkeru, bere zentzurik ez zalako agertzen iñundik iñora.

Gaur itaun bardiña daukagu “*España, Europa eta mundu guztiko Laterriaren asmakizunagaz*”.

Latiña ta bear eban tresneri guztiagaz ornitu zan, berezko erri ta izkuntz guztiaren gaiñetik.

Zertarako: *berezko errigizartearen aurka, Europa ta mundua, 1.691 urtetan, odoljariaz ekarteko ?*.

Kontuan artu bear da, Nizean ziñeskintza lez arauditu egin ziran eritziak, bereztasunezko jende-kuntzaren aurkakoak dirala, eta Ludi físico onetan, norkerizko gizonaren guzurrezko eritziak naita ez, olan agertzen dirala. Jaungoikuak bereztu eban Ludi onen legezko baldintzak, edo Ludi berari erperatuko baldintzak, olan agindu edo beartzen gaitulako.

Noz konturatu oteko gara ?

Emen gagoz, gaurko emakume-gizonak, ardua bardiñean ezarri ezinik, Nizeatik aurrera, beste eleiz-batzarretan erabagitzuz, artu ziran antolaketazko legeak, menpe edo bereizketaren legeakaz eginda dagozelako.

Menpe ta bereizkerizko lege orreik len eta gaur, ez dabe izten iñungo egirik ikusten, norkeriaren maltzuratasunezko guzurra, guzurragaz bakarrik elikatu leikelako.

Noiz arte ?

Zelaia ta Ibarratar Adrianek be, bere esaldietan: “*Naita III n munduko guda-gordiñ baten aurrean egon ez arren, Izadi onen gizarteak, gorputz-dardara edo ikeratuta agertzen dira, guda-txiker ugari edo asko egonez gaiñ, IXILTASUNEZKO MENDI AUNDIAK, EGIAREN GAIÑEAN DAGOZELAKO*”.

Esaldi guzti orreik ekarten dodaz ari lez josita, Euskalrriaren bost ataleko edesti onetan, ori dalako Aita Santi, Olazar´tar Martin, Augustin Zubikarai, Aita Lino, San Sebastian´tar Jose Mari (Latxaga), Latiegi´tar Bizente, Arrinda´tar Anes, Paulin, Oñatibia´tar Manu, Jon eta Dunisi, Zata-rain´tar Ambrosio, Azurtza´tar J.J., Arzelus´tar Amale, Zubiri´tar Iñaki ta Sabin, Uriarte´tar Ana, Egurrola´tar Iñaki, Fernandez´tar Karmele eta nik erabagi genduna, Euskalerrri maite onen argitasunerako. Gure bizitzazko liburuak sarratu arte.

e) Eta nire eritzia jakiteko, ez dalako besterik bear, Euskerazaintzaren azkeneko bost ataletan “Euskalerrriaren Edestiari” buruz idatzi dotena ikustea baiño, bide batez daukazan urte toki, ta egune-ko eginkizunaren zeaztasunak egiztuz bidalgotik⁽²⁾: aeuskerazaintza@gmail.com Eta gure lanak web´orrian: www.euskerazaintza.org´en aurkituko dozuz.

Atutxa´tar Paul

Zornotzan 2.016ko urtean Epailla´ren 11´n

(1) Marko Aurelio edo Annio Bero K.o. 121-180ko urte bitartean bizi zana. (2) Internet´en bidez.



5n. ATALEKO 1'go ZATIA.

AURKEZPENA.

Lenengo esan bear dana emen, 325eko urtean Nizeako eleiz batzar nausi aietan batu ziranak, eta euren ustez ezagutzen zan mundu onen bizitzarako artu bear ziran eritzizko bide barriak erabagitzeko, ez ebela kontuan artu gura, ararte bereztasunean ta azturazko oitura ederrean baituta, sortu ziran sinismeneko erriak, eurak norkeriz erabagiko eben sasi-jauntzazko eritzian gura ebezalako buruzpidetu, mundu onen berezko errigizarte guztiak.

Norkeriaren legezko erabagi orreik izango ziran naikoak, eta errudunak gaur arte, gero sorbide edo norkeriaren legezko iturburu orreikaz sortuko ziran negargarrizko ondorioak, mundu onen azken 1.690 urtetako belaun-aldi osoak odol-jarioz ekarteko, norkerizko lege orreikaz ezin dabezelako buruzpidetu eta gutxiago oinpetu, berezko sinismen aundiz, Europa ta Munduan sortu ziran errigizarteak.

Eta kontuan artuta, mundo fisiko onetan egia, egiagaz bakarrik elikatu leikela, norkerizko guzurrak, euren argitasunerako ez daukielako izkutasunik, danak, bear dan ekan-duzko ardureagaz azterkatuta, atara geunkez argitara.

Orregaitik Euskalerrriaren edestiko laugarren atalean ikusten dogu, euskal bizitza aurrera eroateko erri lez, etsai asko euki ebazala, Erromako kaisar katolikotasunaren aberrikuntza orrek, goitik berako agintaritzan, bereztasunaren aurka euken eragipenetik asita, erlijio bidez dei aundia euki ebalako euskaldun eta Europako errigizarte artean.

Eta edestian jendekoitasunean edo berez sortutako errigizartearen aurka, kaisertza orren mende-eragipenezko indarrak, gero ta larritasun aundiagoko estukuntza sortzen eban lez, orretarako norkeriz asmatzen eben legegilletasuna, eskubide, ta sistrifnezko egi orreik, errigizartaren ulermenen eta sinismenak entrabalotu ta lokaztu egiezen, katolikotasunean aberritzeko ibili diaran menperatzailezko kaisertzaren indarrak, eta oneik ibili ebazan antolak, erri-barrien irasletasunak sortzekoen aritik bideratuta, saiatuko naz argitzen.

1. 2. *Sarrera.*

Ondorio au, irugarren eta laugarren ataletik artuko dodazan errege-antzezlaritik asiko naz, nire ustez argi geratu daiten, Nafarroako erregetzagaz zer gertatu zan, Aragoiko II In Fernando katolikoarengana eltzen garenerako.

1. 3. *Erromatar katolikotasunezko aritik.*

Nafar-Aragoiko Vn eta I Alfonso errege Gudalaria, VI In Santso Jakintsua, VII In Santso Indartsua, I Teobaldo, eta II In Teobaldo artuko dodaz ulerpide lez asiera ontan, gero gure Bizkaiko Jaunak, Gaztelar eta Aragoitarrakin batera, errudun ikusi dagiguzan, Euskalerrria berak, euken nortasunean ezereztu, ta beren lurraldea, kolonigilletasunezko alegiñetan ibili ziranean.

1. 4. *I Alfonso Gudalaria Nafar-Aragoiko erregea.*

Nafar erregetzan Vn eta Aragoiko erregetzan I Alfonso Gudalari au, gurutzezko lekaide gudalaria zan, eta katolikokatunezko erlijioaren ziñeskintzan, tenpeltarren azterkuntzazko begi onekaz aurrera eginda, itsutasunezko sinismenera eldu ziran denbora aietan.

Orregaitik, Baionako gaztelua inguratzen egoanean, an egin eban azken naian ikusten dogu, azken nai ori, Jaungoikoen alde egin ebala, Jerusalemeko Illobi Sakratuaren aldeko Tenpeltar edo Arrotzale⁽¹⁾ lekaideak bideratu egien, Aragoiko erregetza.

Nun geratuko ziran, izatasunean euki ebazan euskal nortasunaren berezko eskubide demokratikoak [?](2).

Kontuan artu bear dogu, erregeak beartuta, beste arrotzasunezko eritzietatik ibili arren, euskaltasunezko gizarte osoa, euskereak eta oiturak emoten dauan indarragaz, alkartuta egoala orduko denboratan, arrizku aundiak euki arren, sinismen, izkuntza eta nortasunezko izatasun demokratiko lez desagertzeko.

Dana egoan katolikotasunaren aberrikuntzazko batzangotasuneara bideratuta, apaiz lekaidetzaren irakaskintza bidetik.

Eta goi-berako agintaritzan, katolikotasunezko erraiñondo⁽³⁾ ori eutsiteko, errigizar-teak beartuz, txirotasunean bizi ziran, errege urak, katolikotasunaren kaisertzazko aunditasun orreitan sartuta, berezko erri legeen gaiñetik, sortzen ziran erregetza barriekin, andinai ibilita, katoliko asmatu zan kaisertza orren leian biurtu ebelako.

Ekintza orren ondorioz, Jendekuntzazko erri-zarren gizarteak, euren erriko lege-zar, oitura, izkuntza ta sendiak babesten, arnasa artu ezinik ibili ziran, eta sortzen ziran erri arrotzakin nastean, anai arteko borrokan beti, erromatar, judu, katolikoaren norkerizko asmakeri orregaz, danak atrapauta egon giñelako.

(1) Tenpeltar = Templarios. Arrotzale edo Gaxo-Zai = hospitalarios. (2) Konturatu bear gara, III In Santso Aundiak Aragoi dukaterri lez emon ba eutson bere sasipeko seme I Ramiro'ri, eta orregaitik Euskalerrriaren aberkitasunezko kanpo alderantza, Aragoien edo Ueskan zeatzau, euskeraz berba egiten zala XVII In gizal-dian, San Martiñeko azokaren antolamenduzko agiriak agertzen daben lez. (3) Agintaritzazko erraiñondo = constitución vertical del cuerpo mandatario ese.

1. 5. *VIn Santso Jakintsua.*

Bera izan zan Nafarroako lenengo errege, Iruñako erregetzaren izen laburra kenduaz, Nafartar guztien euskal izena emon eutsona.

Orduko euskal lurraldeen gizartea, demokraziz antolatzeko, askatasunezko jabetzan, eleiz aurreko batzarrak eta batzar nagusiak euki eben be, Euskalerrri osoa batuta egoan Nafartarren erregetzagaz.

Eta ori izan zan, aragoi ta gaztelatarrak, Frantziko erregetzagaz batera, ezereztu gure ebena, erromatar kaisertzartzazko agindupean, berezko errigizarte orreik euren artean bananduta gero, ez egien euki demokrazizko arazorik.

Europar eta orduko denboratan Euskalerrri zabalean, berezko azturan oituratutako demokrazi ori, eurak asmatu eben erromako kaisar katolikotasunezko aberkidetasunean batzangotzeko eritziaren, guztiz aurkakoa dalako, or agertzen jaku norkeri ta nortasunaren arteko betiko borroka, Jaungoikuak ipini euskuzan berezko legeen eragillezko ardurean.

Laster lortuko ebena.

IIIIn Zelestino Aita Santuak, bere berunezko bulda edo idazkietan, Vn Garzia ta Ramirezta Juan, VIn Santso Jakintsua, VIIIn Santso Indartsua ta abarrerri, Rex izenagaz aipatu barik, Dux'aren izenagaz deitzen eutsoen, nardatzeko edo arbuiozko norkerian⁽¹⁾.

Edestilari nazkagarri batzuk esaten dabe, Aita Santuak egineko desberdintasunezko izentasun orreik, katolikotasunezko lege bidez, edo erritarrak aukeratuta izendatzen ebazan erregeetatik banatzeko zala.

Eurak goitik berako aginduan eta katolikotasunezko lege bidez, Aita Santuagandik asita, Rex deitzen ebazalako, eta erriaren bidetik aukeratukoak Dux.

Zer esan gura dabe adiera edo mugaketa orregaz, Jainkoari begirun andiagaz sortu ziran berezko erri guztiak ezereztu egin bear zirala, katolikotasunean aberritutako batzangotzekoen alde ?.

Alan bada, katolikotasunean asmatutako Rex itz ori, gizon lapurtien eritizizko antolan eginda datorrena da, eta ***faziztea*** gaiñera, asken 1.670 urteetako edesti guztia, odoljarrioz ekarri dabelako.

Argiago ezin leike azaldu alan asmatutako antolamendurik, guzurra edo egia izanda be mundu fisiko onetan, mugi aldi txikerrena be, ez daukelako zentzunik, iturburubageko eragin barik.

1.151ko urtean Urtarrillaren 27an, Leon ta Gaztelako errege VIIIn Alfonsok, Kataluñako IVn Berengertar Ramonen adizkidetasunera urbildu gurean, Tulideneko elkar-goan sinatu eben biak, Nafarroako erregetza euren artean banatzeko.

Eta iru egun beranduago, elkargo orren gora-berak Nafarroako VIn Santso Jakintsuak jakinda, Leon eta Gaztelako VIIIn Alfonsorengana joanda, bere menpekotasuna berriztu ondoren, bere alaba sarrena Blanka ezkondu eban Gaztelako IIIIn Santxo, VIIIn Alfonso seme nagusiagaz.

(1) *Nardatzeko edo Arbuiozko norkerian = en sentido despreciable, molesto, desdeñable, menospreciable.*

Ata guzti, lapurretazko ekintza oiek ez ziran amaituko, gero ikusiko dogun lez.

1.157ko urtean, beste elkargo bat egin eben Gaztelako VIIIn Alfonso eta Kataluñako IVn Berenger´tar Ramonek, Nafarroako VIIn Santsoren erregetza bien artean banatzeko.

1.157ko urtean Dagonillaren 21ean Gaztelako VIIIn Alfonso ilda, Azaroaren 11n egin eben bere seme IIIIn Santxo Gaztelako errege, eta Nafarroako VIIn Alfonsok, bere suin´engana joan zan, menpekotasunaren ziñezko itza emoten.

1.158ko urtean il zan Gaztelako errege IIIIn Santxo, eta bere iru urteko semea koroatu eben VIIIIn Alfonso´ren izenagaz.

1.164ko urtean VIIn Santso Jakintsuak, Iruñako erregetzaren izena, Nafartarren izenagaitik aldatu eban, Reino Nabarrorun´eko izena emonda, eta ez eban aaztu **euskerea, Lengua Navarrorun** lez izendatzen.

Zergaitik ote ziran baiña, aldarrikapen orreik ?.

Ez dabe eukingo zer ikusirik, IIIIn Zelestino Aita Santuaren idazkietako **Dux**, eta Gaztelako VIIIn Alfonso ta Kataluñako IV Berenger´tar Ramonek euren alde, Iruñako erregetzaren zatiketagaz?.

Eta emen aipatu egin bear dogu, eurak euki eben katolikotasunezko legean, adibidez: *Nafarroako erregetzagaz geratzeko, Aita Santuaren buldak, amaitu ezinezko maltzurretta guzurtasunean, eskarniatutako⁽¹⁾ ekintza baten ibiliten ebazala, onek nafar erregeak eskomunikatu⁽²⁾ egiezan, orduko denboran eta nik uste dot beti izan dala, Aita Santuak errege edo jaun baten bat eskomunikatu ezkerro, Europako edozein printze edo errege katoliko batek euki ebala baimena, eskomunikatuko errege jaunak euren ezar lekuetatik kendu eta eurak ipinteko.*

Argi ikusten da emen, Aita Santuak ibiltzen ebazan katolikotasunezko legeak, ez ebela zer ikusirik Jaungoikoak bereztu ebazan legeakaz, katolikotasunezko legearen lenengo aizkorakadagaz, berezitasunezko errigizartearen buruak edo nortasun barik izten ebazalako.

Joko ori izan, zan merkantil-katolikotasunezko araupidean gaur lez, ibili zana.

Katolikotasunezko erlijio eta lateraren indar bidez, Nafarroako gorte edo erregetxean aolku edo argibide bat bera esanda be, ez zan sekula idatzi euskeraz, eta latinez ez bazan idazten, erromantzezko latinkumean idazten zan, latini eta latinkume menperatzaille orreik katolikotasunean batzangotzeko ikurrak izan zirelako.

1. 6. VIIIn Santso Azkarra edo ta Indartsua.

Eta gure errege indartsuenagaz eltzen gara Euskalerrian, leen eta sakoneko banaketara, gero, eurak ekarten eban erromatar katolikotasunezko “**Veni, Vidi, Vinci**” maltzurrezko elburuagaz, errien gizarteak alderdikidetu, demokraziaren eritziak menperatzeko.

Eta 1.670 urteetan, negargarrizko odoljarioaren borroka gorrietan Ludi onen eta Europako bizitza batez be, ekarri arren, ez dira konturatzen, Jainkoak Ludi oneri, **oñarriritu eutsoezan askatasunaren demokrazizko legeen aurka, ezin dabela ezer egin, Beren**

(1) Eskarniatu = falsificar. (2) Eskomunikatu = para excomulgar a los reyes de Navarra.

borondatez bereztu eban Ludi onetara, bialdu edo agertzen diran ondoriozko belaun aldi guztiak, Beren lege edo askatasunezko lege demokratikoakin bakotzak daukan baitan oiñarrituta agertzen garelako.

Norkeriz asmatu ebenetik, katolikotasunean aberrituta, batzangotu egin bear zala Ludi onen giza, ez ziran konturatu, Jaungoikoak bereztu ebazan legearen aurkako borroka asiko ebenik, eta ordua da konturatu dagiezen, beste leku batera begitu barik.

1.196ko urtean eta Erromako Aita Santuaren aginduz, Agreda ta Tarazona bitartean batzartu ziran, Gaztela, Aragoi ta Nafarroako erregeak, erreñu orreik katolikotasunaren legezko eritzian alkartzeko asmoz, katolikotasunak gura eban batzangotasuna agirian itzita.

Orrez gain, eta Nafar-Aragoiko errege I Alfonso Gudalarien antzera, gure VIIIn Santso Indartsuak bere loba I Teobaldo, gorroto edo gogogaiztoan euki ebalako alde bate-tik, eta bestetik bera, gurutzatuzko gudari sutsu lez, tenpeltarren aldekoa izaneko bide-tik, agertzen da, berak Jaungoikoaren alde egineko azken-naia, Tenpeltar eta Arrotz⁽¹⁾ zaldun lekaide gudalariak, Jerusalemeko Illobi Sakratuaren alde, bideratu egien Nafar erregetza.

1.200eko urteetan, VIIIn Santxo Azkarra, gurutzeko gudatan ibili zan denboran, bere orde-zko jaurkintzan geratu ziranak, okerkeri galantak egin ebazan euskal erritarrekin, eta VIIIIn Alfonso gaztelarrak, Araba erasotzen ibilita, Euskalerriko lurralde naguziak, Araba ta Gipuzkoa kendu eutsoezan Nafarroako erregetzaren adizkidetasunetik, eta VIIIIn Alfonso gaztelarrai lotuta geratu arren, euren jaurkintzazko antolakuntzan beti, euskaldun batzar nagusien eritzizko elkartean iraun eben, Euskalerriko gizarte lez.

Eta 1.224ko urtean, beste erdiugarte onen lurraldeetatik mauritarrakaz borrokan ibili-ta, bere orde-z itzi ebazanak, Bizkaitarrakin ez ebalako euki zentzunezko artu emonik, auek be aldendu jakozan.

1.231ko urtean Nafarroako VIIIn Santxo eta Aragoiko I Jaimek Tudelan batzartuta, semekuntzazko⁽²⁾ alkargo bat sinatu eben, bietatik batek iltzen zanean, besteak eskubide osoa eukela erregetza orreitan, errege izateko. Ez zana bete.

VII Santxo Santzez Indartsuagaz 1.194-1.234ko urte bitartean, Auñamendiaren be-rezko Nafartarren erregetza amaitzen da.

1. 7. I Teobaldo Nafar erregea.

Nafarroako I Teobaldo Bertsolarien izenagaz ezagutu zanakin, asten da Txanpainaño errege leiñua, Nafarroako erregetzan.

VIIIn Santxok, Teobaldo bere loba ez ebalako begi-onez artzen, Nafarroako erregetzari bu-ruz bere azkeneko borondatean, Jangoikuari eskaintzea zan, tenpeltar lekaideak bideratu egien, Jerusalemeko Illobi Sakratuaren alde, edo ta, Aragoiko I Jaimeen eskuetan iztea zan.

Nafartarrak baiña, gogo orreik kontuan euki bage, Santxo il zanean illabete geroago, Teobaldo deitu eben, ta Iruñako gotzai eleizan Foruak zinduz gain, Frantziko gortea-ren oituran, igortzi⁽³⁾ eben errege lez.

(1) Tenpeltar eta Arrotzaleak = Tenpeltar gudalari lekaideak eta Arrotz. Gaxo-Zain gudalari lekaideak = Hospitalarios. (2) Semezko edo semekuntzazko = prohibimiento. (3) Igortzi = unguir con aceite. Santa Unción.

1.246an Foru edo Nafartartar erregetzaren gora beran, Ximenez ta Gazolaztar Pedro gotzaiñagaz euki ebezan eztabaida gogorak, onek VIIIn Santso Azkarrak Jaungoikuari egin eutson eskeintzagaitik, zalantzan ipinten eutson, bere erregetzaren legezko eskubidea.

Eta 1.250eko urtean, lurraldeko eleiz batzar nagusi baten, Ximenez ta Gazolaztar Pedro gotzain orrek, I Teobaldo exkomunikatu eban.

Aita Santua I Teobaldoren arazo orregaz oartuta baiña, lege berezi bat agertu eban, bere baimenik gabe, iñork ezin ebala Teobaldo eleizatik kanporatu, esaten ebana.

Eskerrak gurutzada santuetara joan zala, beztela, bereala exkomunikatuko eben, eta katolikotasunetik kanpo egoten ziran erregeak, badakigu zelango legeak eukezan errege aiek euren lekuetatik kentzeko. **1.512ko urtean, Fernando katolikouak erabiliko ebena.**

Nafarroako erritarrentzat, zoraldiko denborak ziran oneik, Gaztela ta Aragoitarrak alde batetik, bestetik Frantzezak, eta danak gurutz-gudaldiko ekintzaren bidez, bakoitza euren katolikotasunezko asmakuntzan indartu naian, Nafar errege ta erritarrai alde guztietatik, tiraka ibili ziralako.

Nafartar zaldun eta erritarren artean, zatiketak edo etsaigotasunezko egoera larriak sortu zitezen, iturriak ziranak, adibidez: **Gogoratu gaitezen, Zezar erromatar kaiserren “Vini”, “Vidi”, Vinci”gaz, gero katolikotasunaren eritziaik aurrera eroateko, ondo baiño obeto erabili ebena.**

1. 8. *IIn Teobaldo Nafar erregea.*

1.255eko urtean Jorraillaren 6an IIn Teobaldok, Frantziko errege IXn San Luis´en laguntza aurkitu eban, eta urte onetan bere alaba Isabelegaz ezkondu zan.

1.256ko urtetik eta IIn Teobaldo ezkondu zanetik aurrera, Frantziko errege IXn Luissek egin ebazan, Nafartarren arazo guztien epaille edo artekaritzak.

IIn Teobaldok gauza bi onekaz, aldendu ebazan Nafartarren erregetzatik, bere aita I Teobaldok euki ebazan arazoak.

Eta 1.256ko urtearen Urtarrillako 1ean, Leon-Gaztelako Xn Alfonso errege Jakintsuaren alaba, Frantziko erregearen semeagaz ezkondu zanean, Xn Alfonso onek, Ondarribia ta Donostiko kaiaren ibilkera itzi eutson IIn Teobaldori, Nafar erritarren salerosteko mozkiñak, atzerriko errietara bialdu edo atara egiezan, bera biziko zan arte.

Nafar erregetza emetik aurrera, eta Frantziko erregetzaren laguntzagaz, zati baten beintzat, erregetzazko arazoetatik aldenduko zan.

1. 9. *Kolonigilleen Iribilduak, gogora ekarteko.*

Uri-Iribilduak, noztik eta zelan egon ziran ordezkatuta Gernikako lege-biltzarrean ?.

Auzo, leiñu, erri ta Gernikako Batzarrak baiño, milla-urte askoren ostekoak dira Uri iribildu orreik, eta euren euskal lurretan eraiki ba ziran, Bizkaitar guztien baimenakin eraiki ziran.

Uriaren gizartea babesteko izan da be, arresidunezko orma barruen esitzea, euskal lur-
raren zabaltasunezko bizitzan, sakabanatuta egotearen aurkakoa zan.

Orregaitik, katolikotasunean aberrituta batzangotzeko eritziak, Europako errigizar-
teetan euki eban indarragaz neurri andi baten, eta errege-jaunaren ezkontzako naaste
bidez, kanpoko Jauntzak Bizkaian agertzen asi ziranean, eskuetan berez agertu jakien
kolonigilletasunezko aukereagaz baliotuta, Euskalerrria ta Bizkaia batez be, arrotz erri-
tzen ibili ziran.

Eta euren jaurlintza, euskal-askatasunezko-eskubidearen gaiñetik, Logroñoeko Foru
arrotz legean, ezartzen asi ziran.

Uri iribilduko errietan, eleiz aurreko batzar zabalak egiten ziranen aurka, Udaletxeo
batzarrak, alkatearen aginduan, itxita egiten ziran.

Ata guzti, Iribildutako erri orreik, ez ziran Gernikako lege biltzarrera sartu, XVIIIn
gizaldi erdirarte.

XVn gizalditik aurrera, eleiz aurreko batzarretan eskubidearen gora beran, zalantza ta
asarre andiak egon ziran.

Katolikotasunezko erlijioaren agintaritzaz artzen joan zan indarragaz, euskal eta arrotz
eritzi bien arteko epaikari lez, 1.630eko urte inguruan asi ziran Iribilduak, euren ordezkari
biak Gernikara bialtzen, bakearen aitzakiagaz.

Eta gure euskal Foru edo izatasuna babesteko, Uri aundia edo txikerra izan arren, beste
eleiz aurreko ordezkariak lez, ordezkari bat bakarrik euki eben legez-tuta berba ta autar-
kia emoteko, bigarren ordezkaria, aolkularizko lanak egiezen baimenduta.

Baten batek esango dau, zuzen kontrakoa dala Bizkaiko Bilbao Uri batzar nagusiak,
Ereño-batzar txikerrenaren beste, autarki bat eukitea.

Ez ote zan izango naikoa, berezkoaren beste autarki ta mintzaren eskubide emotea,
Euskalerrriko lurak, espainako jaurlintzaren Kabuz, kolonizetan etorri ziranai ?.

Euskal batzarrak ata guzti, legeen aurrean danak bardiñak izatearen ekintzagaz, ez
eben Lege Zarraren urrezko zentsuari, bear eben ordezkioa emon baiño besterik egin.

Eta arrotzari erakutsi, autarkiaren eskubidea, lur ta bertako jaiotzaren eskubidetik
agertzen zala iribilduarena, euki gendun errepublikaren jaurlintzazko lege bidetik.

Ata guzti, non ikusi ote da, norbere etxean kanpotarrai, etxeko Jauna beste aginduten
iztea ?.

1. 10. *Bizkaiko Jauntzan, euskal-sendiaren babeserako izanda be, Urien kolonizazioakaz, Euskalerrrian euki genduzan arrotz biurtzeko arazoak, erri onein bitartez asi ziran.*

Oneik dira iribildu ziran Bizkaiko erriak, eta jakin bear doguna da, danak edo geie-
nak Logroñoeko arrotz foruan iribildu zirala, ondorioz konturatu gaindez, zela-
ko arazoakaz ibili diran Uri oneik gure gaurko egunerarte, euskerazko nortasunean
agertzeko.

1. Balmaseda.
2. Bermeo⁽¹⁾.
3. Lanestosa.
4. Plentzia⁽²⁾.
5. Bilbao.
6. Otxandio.
7. Portugalete.
8. Lekeitio.
9. Ondarroa.
10. Areatza.
11. Markina.
12. Elorrio.
13. Gernika.
14. Gerrickaitz.
15. Durango⁽³⁾.
16. Ermua.
17. Ugao.
18. Mungia.
19. Larrabetzu.
20. Errigoitia.
21. Orduña.

1. 11. *Balmaseda.*

1.199ko urtean Urtarrillaren 24ko egunetik dauka Balmasedak leenengo ziurrezko agiria, Paleolitikotik euskaldun lez bertan bizi arren. Balmaseda izan zan, Mena eta Santzeptar Lope, Borteloko jaunak, Logroñoeko foru arrotzagaz iribildu ebena, Bizkaiko jauntzan lenengoa izanda.

Eta Iribiltzeko ibili eban aitzakia, leku egokian kokatuta egoalako zan, gaztelu uri sendo bat eginda, Gaztela ta Bizkaiko mozkiñak bertotik aldatzeko.

1. 12. *Bermeo.*

1.236ko urtean Bizkaiko jaun Aroko IIIn Lope Diazek, iribildu eban Bermeo, Logroñoeko foruan.

Eta orren gertakizunagaz, ez dago ziurtasunezko agiririk, arik eta 1.277ko urtean Dagonillaren 12an, Orozkoko Unzuetaren gaztelua, Gaztelako Xn Alfonso Jakintsuak inguratzen egoala aipatu arte.

1.285eko urtean Epailaren 18an, zortzigarren Bizkaiko Jaun, Aroko Lopez tar Diazek eukezan foruak zabaldu eta obetu eutsozan.

(1) Bermeo = Iturriza'k esaten dau, Beren antziñako izena Erribero zala. (2) Plazenzia, Pleziako jendailla = Errixume edo vulgo gaztelera. (3) Antziñauko agerkizumetan Durangoko Tabiraren izenagaz ezagutzen zana.

1.296ko urtean Bermeo, Gazteiz ta Gaztelako itsasaldearen iribilduko anaidiak in al-kartu eben.

1.366ko urtean Joarraigaren 25ean, Tello Bizkaiko Jaunak be, eukezan Logroñoeko Foruak zabaldu ta obetuko eutsoezan Bermiori.

1. 13. *Lanestosa.*

1.287ko urtean Bagillaren 6an iribildu eban Bizkaiko Jaun, Aroko IIIIn Lope Diazek, Tornoseko mendikateetatik, gaztelako mozkiñak itsasora eroateko.

1.804ko urtean aldatu ziran Bizkaiko jauntzara, Lanestosa ta Enkarterriko lurraldeak.

1. 14. *Plentzia.*

Plentziako euskaldunak, naita gure edesti aurreko millaka urte baiño ariñaukoak izan, Aroko IIIn Lope Diazek emon eban ezagutzera XIIIIn gizaldiko asieran, eta balearen eizan ibiliz bizi ziran, Gorlizeko erria mugatu ebenean.

1.299ko urtean, Aroko Vn Diego Lopezek iribildu eban Gorlizeko Gaminiz auzo ori, Logroñoeko foruan ostera be, gero Gorlizetik bananduta, Plentziko uria lez ezagutu zan ortik aurrera.

Plentziaren leenengo izena, Butroneko Plasenzia izan zan, gero Plenzia edo Plentzia- ren izenagaz geratu arte.

1. 15. *Bilbao.*

1.300eko urtean Bagillaren 15eko egunean, Aroko Vn Diego Lopezek Iribildu eban Logroñoeko foru arrotzean, ibaizabaleko eskoma aldean, Begoñazpiko lurraldeetan kokatuta egoan Bilbaoko kaiaren auzotasun ori.

Vn Diego Lopezek gero, gaztelar erregeen alegin bidez, Portugalete, Ondarru, Lekeitio, Mungia eta Larrabetzuko, kai-auzo ta erriak iribilduta.

1.310eko urtean Aroko I Maria Diazek zabaldu eban Bilboko kaiaren zeregiña, eta Uriaren bideak obetu ebazan, Urduña, Bermio eta Bilbotik sartu-urten ziran salerosteko gaiak, zentzuz edo eragozpen gitxiagoaz ibili zitezen.

1.372ko urtean, Gaztelako errege I Juan ta Bizkaiko Jauna izan zanak, Bilbaoko kaiaren zeregiñari, Gaztela ta Aragoiko salerosteko mozkiñen zeregiñakaz arduratu eutsoenean, joan etorri orreik urbildu zitezen, bere almenak be zabaldu ziran, Flandes, Bretaña Aundia, Frantzia, Portugal, eta Italiaren kaiekaz zabaldu ebalako bere ekintza.

1.443ko urterarte gaztelu sendo ta indartsua izan zanetik, San Antoneko elizan biurtu eban Bizkaiko Andre Jaun ta Gaztelako erregiña izan zan I Isabelek, bere senar Aragoiko errege Fernando katolikoagaz.

1.476ko urtean IIIn Fernando Katolikua etorri zan Bilbora Foruai ziñ egitera, bere emazte I Isabelen ordez.

Eta 1.483ko urtean Gaztelako I Isabel erregiña etorri zan Foruai ziñ egitera.

1. 16. *Otxandio.*

Urkiolako mendiak igaro ta, Otxandio, babeseko Uri lez irasi zan Durangoko ibar-jaurerri⁽¹⁾ barruan, Arabako mugan eta gaztelako goi zelaitik joaten zan Kantauriñoiko bidea zaintzeko.

1.155eko urtean Otxandio, Durangoko foruan dauko lenengo aipamena Uri lez, VIⁿ Santso errege Nafar jakintsuak sortuta.

1.236-1.254ko urte bitartean, erritzeko agindua artu eban.

1.304ko urtean Aroko Vⁿ Diego Lopezek, Lizarrako merindadearen egoaldean, eta Agilarreko ibar-jaurrierian dagon Marañoen errian ziurtu ebena.

1.358ko urtean Tellok.

1.440ko urtean Dueroko Tudelan, Gaztelako IIⁿ Juanek.

Eta 1.456ko urtean Bagillaren 20an Medina del Kanpotik, Gaztelako IVⁿ Enrikek. Gernikako Batzar Nagusietan, 20ⁿ ezar lekua euki eban.

1. 17. *Portugalet.*

1.322ko urtean Aroko I Maria Diaz Onak iribildu eban, eta Enkarterriko lurraldeakaz lotuta, antziñatik aipatukoa zan, euren arrantzaletasuneko ekintza bidetik.

1. 18. *Lekeitio.*

1.355eko urtean iribildu eban Lekeitioko erria Aroko I Maria Diazek, euskal legeak asko mugatzen ebazan Logroñoiko foruekin, eta eleiz-aurreko batzarrak, Logroñoiko foru edo arrotz legeekin ez ziralako adoztasunean egokitzen, ainbat borroka biziak egoten ziran euren artean, euskal zentzuzko ulermenaren aurkakoak izan ziralako, naita Lekeitio berak, lege bereziak euki arren.

1.334ko urtean, Gaztelako errege XIⁿ Alfonsok ziurtu ebana, erri ingurua ormatzeko agindu ebanean.

1. 19. *Ondarroa.*

1.027ko urtean aipatzen da Ondarruko erria, IIIⁿ Santso Garzez Aundiak idatzita, Iruñako gotzaitegia barriztu zaneko agiri baten, mugako alde batetik Deba ta andik Gorozika ta Ondarruraino eltzen dana.

1.327ko urtean Iraillaren 28an, Aroko I Maria Diazek Lizarran egonda agindu eutson Bolibarko Iñiguezta Juan idazleari, idatzi egiezan Iribilduen baldintzak, Berriatuako lurraldean egoan Ondarroako kai-erritar edo auzotasuna, Logroñoiko foruakin Iribiltzeko, Bizkaian Iribildu ziran erri guztiak lez.

1.335eko urtean Nuñez de Laratar Juan eta bere emazte Mariak ziurtu ebena, eurak, erria ormatzeko agindua emon ebanean.

(1) *Durangoko Ibar-jaurerri barruan = dentro de la merindad de Durango. Durangogaitik Iturrizak esaten dau, Erribero zala beren antziñako izena.*

1.335eko urtean Gaztelako XI In Alfonsok, Artibaiko ibaia igarotzeko, gaur XVIIIko gizardian egindako zubi zarra esaten jakon lekuan, len egoan zurezko zubia, iraganeko sariakaz zergapetu eban, erriko jaurleak baimenduta, eskuratu egiezan.

1.351ko urtean Ondarrutarrak, Bilbao, Plentzia ta Lekeitiotarrekin batu ziran, Baiona ta Biarritz menperatu eban ingelesaren aurka joateko.

1.353ko urtean Abenduaren 21ean bakeak, Ondarribiko errian sinatuta.

1.463ko urtean Gaztelako errege IV n Enrikek, Ondarruko erriak Gaztelako erregeari emoneko laguntzagaitik, laguntza emon eutsoen eurei be, erre jakien zubia konpontzeko.

1. 20. *Areatza*⁽¹⁾.

1.338ko urtean Iribildu eban Bizkaiko Jaun, Nuñez de Laratar Juanek, bere emazte, Aroko I Mariaren omenez, Igorre errian egon zan Areatzako auzoan, edo Igorren inguruko basa-bazter baten irasita, Billa de Aoren izeneko uria, gaur Areatzako erriaren izenagaz ezagutzen doguna.

1. 21. *Markina*.

1.355eko urtean Loraillaren 6an, Bizkaia, Kanpooko Agilar, Kastañeda ta Larako jaun Tello⁽²⁾ Bizkaiko Jaunak, Bermeoko Iribildutik, Markina Iribildu eban Bilbaoko Foruan, Villaviziosa de Markiñako izenagaz, edo ta bardiñezkoa dan Logroñoko Foruan. Aroko V n Diego Lopezek Bilbao, Logroñoren foru orregaz Iribildu ebelako.

Tello Bizkaiko jaunak, Uritzeko eskutiz ori, Bizkaiko Jauntzaren batzarrak baimena emon ostean emonda.

1. 22. *Elorrio*.

Etxebarriako San Agustinen eleiz aurreko batzarrak, 3n ezar lekua euki eban Gerediagako batzarretan, Durangoko Ibar-Jaurerrikoa zalako.

1.356ko urtean, Tello Bizkaiko Jaunak Iribildu eban Elorriaren lurraldeko auzotasun ori, Elorrioko izenagaz, eleiz aurreko zelaikadan.

1.635eko urtean Etxebarriaren auzotasuna, San Agustin eleiz-aurrekoagaz bat egin ebenean osotu zan, gaur dan Elorrioren Udalerria. Gernikako batzarretan, 13n ezarlekua eukena.

Eta 1.635eko urtetik, Etxebarriako eleiz-aurreko batzarrak, Gerediagako batzarretan ordezko ezar lekua galdu ebenetik aurrera, Elorrioko Uri Iribilduagaz batera joaten zan Gernikara.

1. 23. *Gernika*.

1.366ko urtean Jorraillaren 28an Iribildu eban Gernikako auzo ori, Tello Gaztelako kondeak Bizkaiko Jaun lez, Lumoko eleiz-aurreko zelaieta ori, Bermeo, Durango, Zornotza eta Bilbaoko bidetik etorten ziranentzat, bide gurutzatua izan zalako, Elantxobe ta Lekeitiora, baita erreka bidetik Mundakaraño.

Iribilduaren arrazoia Uritutako eskutitzan, salerosleko aipamenak egiten dira.

(1) Bere erderazko izena = Villaro de Aro, edo Villaro da. (2) Tello Bizkaiko Jauna = Gaztelako XI In Alfonsoren semea zana eta Bizkaiko Jauna..

1. 24. *Gerrikaitz.*

Gernika lez, 1.366ko urtean iribildu eban, Bizkaiko Jaun Tello Gaztelako kondeak.

1. 25. *Durango.*

Tello Bizkaiko Jaunak, Durangoko Tabira auzoa Iribildu ebenean, gero Villanueva de Durango deitu, eta gaur Durango lez ezagutzen doguna, ez eban euki beste iribildutako erri edo Uri lez, erritartuteko eskutitzarik. Edestilariak, bere Iribildutako ekintzari, XIIIIn gizaldiko asieran ipinita, 1.372ko urtean, Gaztelako Juan errege semeak, baieztu ebazan foruen zentzuagaz etorri egien.

Ibarguen eta Katxopinen kondairan, Nafarroako VIIn Santso Jakintsua edo ta beste izen bategaz deituta, Ausartak, forutu egin ebalu Durango diñoē, bere lurak orduko denboran Zornotzako Ibar-Jaurrerirañoeko⁽¹⁾ lurraldeak izanda.

VIIn Santso Jakintsua, edo Ausartak, 1.150-1.194ko urte bitartean izan zan Nafarroako errege.

1. 26. *Ermua*⁽²⁾.

1.140-1.383ko urte bitartean Iribildu ebela uste dabe batzuk.

1.372ko urtean Urtarrillaren 20an, Gaztelako I Juan erregea eta Bizkaiko jaunak, Burgosen baieztu eban Ermuko Iribiltasuna.

1.415 eta 1.420ko urteetan be baieztu ebazan Gaztelako IIIn Juan Bizkaiko Jaunak Balladolizen egoala.

1.483ko urtean eta Gaztelako erregeña Durangon egoala, ostera baieztu ebazan Ermuko foruak. Ermuko forua, Logroñoeko foruaren antzekoa da, burdiñaren lantegiari lana, eta basoen ustioa⁽³⁾ emoten eutsolako.

1.445eko urtean agiri bat dago, Ermuko ordezkaria Gipuzkoako batzarretara joaten zala, eta ekintza orrek edestilari bat baiño geiagori susmatu egiten dautso, ia Ermu ez bazan ibili Bizkaiko lurraldetik banatzeko.

1.462ko urterako Ermuko Uri Iribilduak, Ola-Iribilduaren izena euki eban, eukezan burdiñezko lantegi ugariagaitik.

1.516ko urtean ziurtasunezko agiri baten agertzen da, su-izkillu luze ta laburren lantegi bezala.

Ermutarrak, Oñakuekin ibili ziran Bizkaiaren alderdiko borrokatan, errege katolikoaren arteraño, amaitu ez ziranak.

1. 27. *Ugao*⁽⁴⁾.

1.375eko urtean Epaillaren 4an, Gaztelako Juan errege semea eta Bizkaiko Jauna izan zanak, iribildu eban Villanueva de Miraballeseko izenagaz, Zeberiko erria, Zeberio eta Gaztelatik Bilboko biderearen babes, XIVn gizaldian sortu ziran aldaberatasunagaitik⁽⁵⁾.

(1) Ibar-Yaurrerria = merindad. (2) Ermua = Bere lenengo izena baleike "Ere-muba izatea". (3) Ustioa = Basoaren onura (aprovechamiento o usufructo de los mones) edo ustiatzea emoten eutsolako. (4) Ugao = errekek itsasora botaten dabezan euren urak. Miravalles, Gaur, Ugao lez ezagutzen doguna, an egon zan sort-etxe batetik artuta dagoena. (5) Aldaberatasunagaitik = mutabilidad, inconstancia, tiempos revueltos.

1. 28. *Mungia.*

1.376ko urtean Dagonillaren 1ean, Gaztelako erregearen seme Juanek Iribildu eban Logroñoeko foruan Mungiaiko erria, Ugaon sortu zan antzera, Zaldunen bidegabekerizko era-soetatik babesteko.

1. 29. *Larrabetzu.*

1.376ko urtean Dagonillaren 1ean, Olmedon dauka toki-egunetuta, Gaztelako errege seme eta Bizkaiko Jaun Juanek, bertan egoala.

Eta Bizkaian, Zaldunetzko alderdikideek arazo aundiak sortzen ebezalako, Mungia, ta Errigoitiako erriak be Iribildu ebazan Logroñoeko arrotz errien foruan Larrabetzugaz batera, Larrabetzuri, Berresonagaren izen barria ipinita.

1. 30. *Errigoitia.*

1.376ko urtean, naita Errigoiti Paleolitikotik etorri arren, Idoibalzagako Santa Mariaren eleiz-aurreko lurraldeetan Iribildu eban Gaztelako errege ta Bizkaiko jaun I Juanek, Logroñoeko foruekin.

1 31. *Orduña.*

1.229ko urtean Iribildu eban Aroko Lope Diaz, Suar Buru´azek, Gazteizko foruan.

Bizkaiko Jauntzan Orduñak, inguruko lurraldeen babeserako euken garrantzi aundiagaz gaiñ, iribildu zanetik, argi geratzen da, Gaztelako bideagaz be, itsasora urteteko bidea izan zala, salgai euki ebazan artillezko mozkiñak, Europatik zabaldu egiezan.

1.467ko urtetik aurrera, ekintza orrek balio aundia emongo eutsone, Gaztelako IVn Enrikek iribildutako uriaren gaiñetik, Uri zabalaren⁽¹⁾ izena be emon eutsolako. Ortik aurrera, Bizkaiko Jauntzarten Uri Nagusi lez ezagutu da.

1. 32. *4n ataleko ondorio labur bat, Euskalerrriaren orduko etsaitasunaren iturria argituz, ulertu ostein, 5n atalean argitu dagiguzan, nortzuk izan ziran ari orretatik etorten ziranak, gure Euskalerrriaren aurka.*

Ez dago iñungo okerkeririk, Euskalerrriak euki ebazan eta daukazan etsaiezko aritik galdu gaitezen. Argiago, ezin dalako egon.

VIn Santso eta VIIIn Santsoren Nafar errege denboran, Nizean aberritu zan Katolikotasun ori lege bidez, goitik berako aginduan izanda, eurak Aita Santuagandik asita, Rex deitzen ebazala euren arikoari, eta erriaren bidez aukeratzen ziranai Dux.

Maltzurtasunezko guzur ori, iñondik iñora ezin da ostondu, latiñezko katolikotasuna erlijio lez, Ludi osoarentzat irasi bazan, berezko azturaren izkuntzan jendekuntzatu ziran errigizarte guztiak, ez ebelako zentzurik euki eurentzat.

(1) Uri zabalaren izena = nombre o denominada como Ciudad Abierta.

Eta 325eko urtean Nizean sortu zan katolikotasun orregaz gabiltz odoljariozko borrokan gaur arte, Jaungoiko Sortzailleak Ludi onen izatasuna bereztu ta oiñarritzeko ipini ebazan legeen aurkakoak diralako, norkeriz asmatu ziran batzangotasunezko lege orreik.

Bai euskerearen aurka ibili eben etsaitasuna, katolikotasunaren latinezko erlijio bidez, eura bakarrik idazten ebazalako agiri guztiak, eta gauza guztien kontrol zeatz eta osoa euki ebelako, latinez edo latinkumezko gazteleraz idazten ziran, Nafar gortearen agiri guztiak, eta sekula euskeraz.

Katolikotasunaren bide orretatik, eta VIIIn Santso Azkar edo Gudalari aundienagaz, gaztelarrak lortzen dabe Euskalerrria banatzea, VIIIn Santso Nafar erregea gurutzada santuekaz arduratuta, Gaztelako VIIIIn Alfonsok 1.200eko urtean Araba ta Gipuzkoa kendu eutsosalako, eta 1.224ko urtean Bizkaia ezin bestean Nafarroaren erregetatik aldendu zan, VIIIn Santso ardi galdu lez ibili zalako, katolikotasunaren zorokerizko nor-geiagoetan.

Katolikotasunezko ezkomunikazioaren bulda edo berunezko idazki bidetik, eta berun idazki oneik izkillu lez ibilita, bardin gura eben egin, Igo ta IIIn Teobaldogaz, baiña Frantzi aldetik aolkularitzazko laguntza eukinda, or geratu ziran aldi baten beintzat.

Or lortuko eben erromatar katolikotasunezko eritzikoak, Nafartarrak menderatzeko bidea, Zezarrek euki eben: *Banandu Egizuz, eta Beti Irabaziko Dozu*, gorengo elburuagaz.

1. 33. *Bizkaiko Jaunak.*

Bereala ikusten dogu, bigarren erasoko ekitaldia, euskereari zala, edozein aitzakiakin eta euren nagusitasuna erakutsi nai, beti ibili ziralako erri-irasle edo kolonigilletasun ekintzan euren Jaungoikoen izenean.

Zer agertuko ote zan, gure seigarren Jauntzatic aurrera, euki genduzan jaunak Gaztelako erregetzan, errege ordezkatza eukinda, euren errege beste agintea euki ba eben ?.

Ez da arritzekoa 1.512ko urtean gertatu zana, Europaren merkantil eta katolikotasunaren erlijiozko indarrak, batzangotasunaren aberkidetasunezko ekintza bardiñean ibili ba ziran, Goiko Jaungoikuak Izadi oneri emon eutsoezan lege guztien aurka.

2. ZATIAN.

2. 1. *I Blanka, Nafar erregeña. IVn ataleko amaieraren aria artuz.*

1.385eko urtean Nafarroan IIIen Karlos Biotz Andiko erregearen bigarren alaba zan, eta bere emazte Trastamarako Leonor, Gaztelako IIen Enrike erregearen arreba zanaren bidetik, Iruñaren Nieba erregetzako Santa Marian⁽¹⁾ jaiota, Ebreuxeko leiñukoa zan Nafarroako I Blanka au.

Eta 1.441eko urtean, Jorraillaren 1ean il zan I Blanka Nafarroako erregeña, bere alaba IIen Blanka Gaztelako IVn Enrikegaz Epaillaren 31n ezkondu ta urrengo egunean.

1.441eko urtean Jorraillaren 3an Nafartar gortekoak, Segobiako Nieba errian, erregezko Santa Maria Eleizan illobiratu eben.

Nire maisu eta lagun andia izan zan San Sebastiantar Jose Mari *Latxagak*, Nafarroako I Blanka erregeñagaitik esaten eustan, bera izan zala andra eder ta politena Nafar erri osoan.

1.401eko urtean il zan Siziliako erregeñuaren jabe izan zan Maria, Aragoiko erregearen seme I Martin gazteagaz ezkondu egon zana, au Siziliako erregeñuagaz jabe geratuta.

Eta 1.402ko Urtarrillaren 21ean Nafarroako IIIen Karlosek, Aragoiko erregetzagaz bakeak lortu gurean, bere alaba I Blanka, Siziliako IIena eta Aragoiko errege izango zan I Martin “Gizabidekoa” deritxon seme gazteagaz ezkontzea erabagi eban.

1.402ko Loraillaren 21ean, Kataniako Urian eta ordezko legean ezkondu zan Nafarroako I Blanka Aragoiko I Martin ´egaz, Bakedanotar Diego ta Mosentar Lionel ezkontzako ordezkariek zirala.

1.402ko Azaroaren 9an, Bernardo de Kabrerak bideratzen eban itsas-ontzidiko ontzi baten joaten da I Blanka, Bar´eko Ojerot´en laguntzagaz, Siziliako Ugartera.

Eta 1.402ko urtearen Abenduko 26an, ezkondu ebazan Siziliako Migel Mari lekaideak, Nafarroako I Blanka ta Aragoiko I Martin gaztea.

I Blanka, Sizilian egon zan bitartean, ez eban artu arrera edo jardunbide onik, eta bere aita IIIen Karlosek berari emoten eutsoen arrera orregaitik atsekabetuz, serbitzariak leporatu eutsen, Blankak ezkontzatik illabete gitxi barru euki eben ume-galtzea, eta baita Siziliako gortekoak salatu, bere alaba Blankari ezkontzaren ordezko sariak ez eutsozela emoten.

1.404an Uztaillaren 17an emon eutsozan ezkontzako sari orreik, Paterno, Mineo, Lentini, Frankabilla eta Bizzini´ko erriaren jabetasunagaz.

1.404ko Urrillaren 22an Bikaria⁽²⁾ edo erregetzaren ordezkoa izendatzen dabe I Blanka, bere senarraren alde egite edo ta urruntzerakoan.

1.405ean I Martin Aragoira joaten da aldi baterako eta I Blanka berak jaurkitu eban Sizilia, bere aolkularitzazko ordezkarieren laguntzagaz.

Eta 1.405ean Dagonillako illean I Martin itzuli zanean amaitu ziran I Blankaren errege ordezkoak.

(1) Iruñaren Nieba erregetzako Santa Marian = Pamplona, Santa Maria la Real de Nieva. (2) Bikaria edo errege ordezkoa = Vicaria, cargo de virrey en la corte.

1.406an Abenduaren 17an euki eben euren lenengo semea, Martiñen izena ipini eutsoenai Aragoiko aita ta aititeri euki eutsoen begirunegaitik omentzeko.

1.407ko Dagonillaren illean eta zortzi illabete eukozala il jakien, Aragoi ta Siziliako ondorengoa izan bear zan Martin umea.

1.408an Dagonillaren 13an I Blanka ostera izendatzen dabe Bikaria edo erregetzaren ordezkoa, bere senar I Martinek Zerdeñaren Ugarteko erreñura joateko asmoa euki ebalako bere gudalozte indartsuakaz.

1.408an Urrillaren 3an urten eban Sizilatik I Martin Zerdeñako Ugarterantza, bere emazte I Blanka, errege orde lez itxita Siziliako erreñuan.

Eta 1.409an Uztaillako 25ean il zan I Martin au, Kagliariko errian, sukargaitzaren erruz.

1.409ko Dagonillaren 7an I Blankaren aitagiñerraba Aragoiko I Fernando Arteza edo Antekerakoa deritxonai, on artu eban bere seme I Martin gazteak agindu ebana, eta I Blanka ostera Bikaria izendatu ondoren, aurrera egingo eban onek Siziliako erregetzaren ordezkotzagaz.

IIIIn Karlos, laster asi zan I Blanka ezkontzeko ardurakin, eta 1.409ko urtea amaitzen egoala, Frantziko Isabelen nebeagaz, Babierako-Ingolstadt´tar Luisekin ezkontzeko asi ebazan atonketak. 1.410eko urtearen asieran apurtuta.

1.410eko urtean beste ezkontza bat be atondu eutsoen I Blankari, Bar´eko I Roberto Dukeyaren seme Eduardorekin, ezerezean geratu zana.

1.410ean Lorailaren 31n I Blankaren senarra izan zana eta Biotz Onekua deritxon I Martin Aragoiko errege izateko zana il zanean, I Blanka bere ordezkotzako erregetzan egiten ebazan zeregiñak ondo egiteagaitik, ta Siziliatarrak Aragoiko jaurkintzatik askatasun geiagoagaz senditzen ziralako, erregearen ordezkotzara irauan egiala gura eben, IIIIn Federiko Siziliakoak, bere erregeen ondorengo bat izan zan Peraltako Nikolasekin ezkondu gurean ibilita.

Portugaleko I Juanek be, bere seme bategaz ezkondu gura eban, Siziliako ugartearen jabetza berak gura ebalako.

Monikako Konde Kabreratar Bernardok be gura eban beragaz ezkondu zedin, eta I Blanka indarrez arrapatu gurean ibili zan.

1.411ko Lorailaren illean, Kabreratar Bernardo bere matxintasunezko alegiñagaitik epaitu ebanean, erregeen aolkularitzazko erakundeak I Blanka erregiñagaitik esan eban, erregiñak Siziliako eztabaidagitik bere Nafarroako senideai sekula ez eutsela eskatu laguntzarik, auek Siziliako arazoakaz ez ebelako euki ezer ikusirik.

1.412ko Bagillaren 28an Aragoiko errege Antekerako I Fernandok, bereganatu eban Siziliako erregetza, XIIIIn Aita Santu Beneditoren laguntzagaz, eta Kaspen, eleiz bidez egin ziran antolaketakaz.

Eta 1.412ko Azaroaren 21ean Siziliako gortekoak koroatu eben Aragoiko I Fernando Siziliako errege lez.

1.413an Uztaillako illean I Blankaren aizta Juana, Foix Konderriaren jabe eta Nafar erriñuaren ondorengo zarrena seme/alaba barik il zanean, guztiz aldatu ziran I Blankaren bizi ekintzak, bere aita IIIIn Karlosek, ondora joateko eskatu eutsonean.

1.415eko Jorraillan I Blankak, ia 13 urte ordezeko lanetan ibilita urten eban Siziliatik, Nafarroaren gortekoak orretarako aukeratu ebazan, Pierres de Peralatar Mosen ta Asiintar Juanen laguntzagaz.

1.416an Urrillaren 28an Nafarroako errege IIIIn Karlosek Oliten, bere alabaren eskaerari baimena emonda gero, Nafartarren erregetzazko ondorengo lez izendatuta, ziñez itz emon bear izan eutson I Blankak, urrengo erregeña lez.

1.419ko Azaroaren 5ean I Blankaren aukerea ikusita, Aragoitar gortek I Blankagaz arduratzen asita, Nafar gortekoakaz, Aragoiko erregearen seme, Peñafieleko Dukea, Mayorgako Konde, Larako jaun ta geroago Aragoiko errege izango zan IIIn Juanegaz atondu eben I Blankaren ezkontza, Nafarroako erregetzaren alde euki bear ebezan jabetasunezko baldintzarekin.

1.419ko Abenduaren 5ean, ordezkotza bidez ezkondu ziran Oliten.

Eta 1.420ko Bagillaren 18an Iruñako Ama Zuriaren Eleiz Nagusian ezkondu ziran eurak, I Blankak 35 urte eukezala eta IIIn Juanek 22.

1.421eko Loraillaren 29an I Blanka⁽¹⁾ ta IIIn Juan⁽²⁾ Peñafielen egon zirala, jaio jakien lenengo seme Karlos, eta 1.419ko urtean ezarri ziran baldintzakaz, bera izendatuko eben Nafarroaren erregetzazko ondorengo, I Blanka ama ilten zanean.

Jaiotzatik lau illabetera, Olmedoko Urian bateatu eben IVn Karlos, bere besoetako aitak edo aitabitxiak, Aragoiko erregetzaren ondorengo seme eta Nafartarren errege IIIn Juan, IVn Karlosen aita, eta Luna 'tar Albaro Gaztelako Kondestablea zirala.

1.422ko urtean I Blankaren aita Nafarroako errege IIIIn Karlosek deituta, irurak joan ziran Nafarroako Tafalla ta Oliteko errege jauregietan bizitzera.

1.423an Urtarrillaren 20an Tudelan izenpetu zan agiriagaitik, IIIIn Karlos Nafarroako erregeak, Bianako Printzerria sortu eban, eta bere billoba IVn Karlos izan zan, erakunde orren leen printze edo ondorengo.

Urte onetan jaio zan bigarren alaba Juana.

1.424ko Bagillaren 9an, Blanka irugarren alaba jaio jakien.

1.425ean Otsaillaren 2an Leonor jaio jakien.

1.425ean Dagonillaren 22an il jakien Juana alaba nagusiena.

Eta 1.425ean Iraillaren 8an, I Blankaren aita Nafarroako errege IIIIn Karlos Biotz Onekua ilda ostean, I Blanka geratu zan Nafarroako erregeña lez.

1.425eko Azaroaren 29an Aragoiko erregetzatik geratu zan izendatuta IIIn Juan, Ribagorza ta Balentziako Konde lez.

2. 2. *I Blankaren bizitza Nafarroako erregeña lez.*

I Blankaren bigarren senarra Aragoiko IIIn Juan onek, bera baiño 10-12⁽³⁾ urte gazteago izanez gain, izakera gogorrekua izan zan, eta Aragoi ta Gaztelako lurraldetan euki zituzten jabetasun aundiakaz, Gaztelako lurraldeetan sarritan euki ebazan borroka ugari.

1.425eko Iraillaren 8an il zan Nafarroako errege IIIIn Karlos **Biotz-Andikua**, eta bertan geratu zan izendatuta I Blanka Nafarroako erregeña lez.

(1) I Blankaren adiñetan, azkeneko ikerketeta bidez, zalantza orreik agertzen diralako, eta baleiteke, 38 urtea eukitea 35 baiño. (2) 1.397an Bagillaren 29an Kanoko Medinan jaio zan Aragoiko IIIn Juan.

(3) I Blankaren adiñetan, azkeneko ikerketeta bidez, zalantza orreik agertzen diralako.

1.427ko Dagonillaren 9an Nafar erregetzaren gortekoak barriztu eben ondorengo ziñezpe-na IVn Karlosen alde, Nafar errege izan zedin.

1.428/1.429ko urte artean eta I Blanka nai-ezean edo gogo-aulean sartuta egoteagaitik geien, II In Juanek bere guda indar alegiñakin beti borrokan ibilita, eta Aragoiko mugaren lurralde batzuk galduta gero, gaztelarrek bota eban euren lurraldeetatik, eta I Blankak deituta, beartu eban Nafarroara joan zedin, Nafarroako errege lez koroatzea, atzeratzen egoalako, eta alan urbildu zan bere ondora.

1.429ko Lorailaren 15ean lau urte beranduago erregetzara igon ebanetik koroatu ebezan Iruñako Eleiz Nagusian Nafarroako I Blanka ta Aragoiko II In Juan. II In Juan, erregeiñaren ezkon-lagun lez.

1.439ko Otsaillaren 17an I Blanka Nafarroako erregeiñak il orduko, bere borondatezko azkenaian idatzitako agirian, eta 1.419ko urtean I Blanka eta II In Juanen ezkontzarako ipini ziran baldintzak, euren lenengo seme izan zedin errege, bere seme IVn Karloseri eskatzen eutson: *ez egiala erregetzazko ardurarik artu, bere aita II In Juanek esan arte, aitaren eskutik artuko ebazala ta, bere errege ardura orreik.*

1.441eko Jorraillaren 1ean il zan I Blanka Nafarroako erregeiña, bere alaba II In Blanka Epaillaren 31n Gaztelako IVn Enrikegaz ezkondata urrengo egunean, eta Jorraillaren 3an Nafartar gortekoak Segobiako lurraldearen Niebako errian, Erregeko Santa Maria Eleizan illobiratu eben.

Bere arri-illobia gaur, euken lekutik kenduta, Kukullaren San Millaneko gela illun baten baztertuta dago, beste Napar errege illobi askoren antzean.

2. 3. *Nafarroako I Blanka eta II In Juanek, euren ezkontza bidez euki ebezan seme/alabak, oneik izan ziran.*

1.421-1.461eko urte bitartea bizi zan *IVn Karlos*, Jerona ta Bianako lenengo printzea, Borgoña, Gandia eta Montblankeko Dukea, eta III In Feliperen loba Kleberis´tar Ines´ekin ezkondu zana.

1.423-1.425eko urte bitartean bizi zan *Juana*.

1.424-1.464ko urte bitartean bizi zan *II In Blanka*, eta Gaztela Leongo errege izan zan IVn Enrikegaz ezkondata egon zana.

1.425-1.479ko urte bitartean bizi zan *I Leonor*, Nafarroako erregetzan ondorengo ta gero erregeiña zana, eta IVn Gaston, Foixeko Konde ta Bearn´eko Kondearen ordezkoa izan zana ezkondata egon zana.

2. 4. *Bizkaiko Jauntzaren aria artuta, 23n. Bizkaiko Jauna eta gure Foru Legearen Baimena⁽¹⁾.*

Foruko Legeen baimena.

Bizkaia, Araba ta Gipuzkoako batzar nagusiak euki eben jabetasunezko almena Foruaren legezko gauza orreitan.

Jaun erregeak zuzentzeko legeak bialdu egiten ebazanean, euskal batzarrekoak zuzenduta gero erabagitzen eben, lege orreik Foru-Legeakaz adostasunduta egoten ba ziran, a la ez.

(1) *Bizkaiko Foru Leguen Baimena = Pase Foral.*

Tello ta Juanaren eriotzakaz, Aoren zuzenezko ondorengoa amaitu zan gure Bizkaiko Jauntzan, ta Trastamarako II Enrike Gaztelako erregearen emaztea, Juana Manuela, Aroko IV Lope Diazen arreba zanak, Aroko Diaztar Teresaren bostgarren birralaba(2) izan zalako, gure Bizkaiko Jauntza, Gaztelako erregeen ondorengo seme izango zanaren II In Juanen ardurapean geratu zan.

1.406ko urtean Gaztelako III In Enrike gaixotsua il zanean, bere seme II In Juan urte bi bete barik euki ebazanean artu eben ondorengo lez Gaztelako erregetzan ta Bizkaiko Jauntzan, eta gure jauntzaren arduradunetzko batzarkideak, beren aita-ordea gure Foruak ziñatzer a beartu ondoren, gure Jauntzan IV In Juan izando zanari be beartu eben, adiñetara eltzen zanean. Eta alan egin eban II In Juanek 14 urte bete ebazanean.

Gaztelako errege II Juan, oraindiño umea izanda gure foruai ziñ emoteko, ta Bizkaitarrak arduratuta, Gaztelako III In Enriken anaia Fernando, moruekin gudan egonda, ez ebalako aukerarik euki foruai itza emoteko, gure Bizkaitar Foruen arduradunak, III In. Enrikeren emazte Katalinarengana joatea erabagi eben, umearen orde, foruak ziñ egiazan, eta II Juanek 14 urte bete egiten ebazanean, lenengo bi illabete barruan, edo len bait len, bete egiala jaiezko arau ori, bestela Bizkaitarrak, agintearen orde, emon bear eutsezan diruak, ez ebela ordainduko, areik eta foruen arauak eskatzen ebazan baldintzakin bete arte.

Gernikako Batzarra batuta, eta ikusita alde-astungarriak egon zirala Bizkaitar arauak egokitzeko, ordaintzeko erabagia artu eban, Katalinak ziñatzen ba ebazan foruen arauak, eta moruengandik askatzen zan orduan, Fernando berak be.

1.407ko Uztaillaren 16an Katalinak, umea ain txikerra izanda ez ebalako aukerarik alango bidai bat egiteko, Segobian ziñatu ebazan foruak, Gernikako Batzar ordezkarien eta Abendañotar Fortununen aurrean.

1.407, 1.409, 1.410eko urte oneik, oso gaiztoak izan ziran Bizkaitarrentzat, Bizkaiko andikiak euren alderdikerrizko borrokakaz, artegatuta euki ebelako Bizkaiko lurraldea.

1.418ko Ekaiñaren 2an il zan Katalina, Gaztelako erregeiña, eta II Juanek, Fernando aita-ordearen babespean iraun izan bear eban, areik eta 14 urte bete arte.

1.418ko Urrillaren 20an II Juan, Aragoiko Maria, errege alabarekin ezkondu zan.

1.419ko Epaillan, Gaztelako gorteak emon eutsoen II Juaneri baimena, bere erregezko zeregiñak artu egiazan.

1.425eko urtean jaio zan II Juanen semea, Gaztelako erregetzan IV Enrike izenagaz ezagutuko zana.

1.428ko Urrillaren 2an, II Juanek Segobiatik, Portugaleteko Iribilduaren legeak baieztu ebazan.

1.440ko urtean, IV Enrike, Nafarroako I Blanka eta Aragoiko II Juan erregearen alaba ta bere lengusiña izan zan II Blankagaz ezkondu zan lenengoz, eta seme-alabarik ez ebalako euki, Segobiako gotzaiari euren ezkontzako bereizkuntza⁽¹⁾ eskatuta, 1.453ko urtean ezeztuta geratu zan, Eleizaren aldetik, amaitubako ezkontza lez emonda.

1.441eko Azaroaren 6an, Bermeotarrak, euren arduradun Ibañez de Meauritar Pero bialdu eben, gure Jaun edo Gaztelako erregearengana, euren Foru Legeak baieztu egiezan, eta Bizkaiko Jaun II Juan erregeak, eskari ori bakarrik ez zala berak Bizkaiari zor eutsozenak esan da, Bizkaiaren orokorrezko Foru Legeak baieztu ebazan.

(1) *Bereizkuntza = reserva, separación, separación del matrimonio.*

Errege onek, ez eban arremanik euki Bizkaiko erriagaz, Gaztelako erregetza, moru ta Nafar-Aragoiko erreinuagaz beti borrokan ibilita, lur eta itsasoko guda indarren askoan bear-tuta, Bizkaiko Batzar eta alderdikideen buruzagiakaz eskarizko laguntza bidez bakarrik, berba egiten ebalako.

Eta or baieztatzen da, zelan euskal Foru oneik, guk daukagun demokraziaren nortasunezko izaerak, paperezko agirietan bir-idatzi edo agirizko paperetan idatzita agertu daitezzen, aldaketa dala.

-Gaztelar edo espainolak daukien aginte ta diru-gosean, gaur lez, esaten ebalako: "eurak emoten daben mesede bat dala" euren erregea, gure erregea izan balitz naastuta.

-Orregaitik gure Foruen idaztea, Euskerearen jaiotzatik azturaz, gure jendekuntzazko nortasunaren izaera bereziak, agirizko paperetan idatzita agertzea da, eurak ulertu dagien, zeintzuk diran ordezkartzazko arduraren arloan, gure ezberdiñtasunezko jabetasunak, berezkitasunean jaiotako erri ezberdiñaren nortasunagaitik berba egiten dogulako.

1.444ko urte inguru onetan, Bizkaitar alderdikidearen arteko borrokak, edesti guztiko gogorrenak eta odoltsuenak izan ziran.

Itsas-ontzi Bizkaitarrak aldi oneitan, itsaso guztietatik ibiltzen ziran, Moruen aurkako borroketan, eta Ingalterra ta Europa guztian, gure kaiaren merkataritzazko bizitzari, arrigarritzko goraldia emon eutsoen.

1.450ko urtean, Gaztelako II Juan, Portugaleko Isabelegaz ezkondu zan.

1.451ko urtean, euren leenengo Isabel alabea, Gaztelako erregetzan, I Isabel Katolikea izango zana jaio jakien. Eta 1.453ko urtean, Alfonso semea.

1.451-1.452 urte oneitan euskaldunak, gaztelarren erregetzazko politikari bildur, gure legeakaz sortzen ziran zalantzakin aspertuta egon giñelako, edo ta, euskal arduratan, sinisten zalako ordua eldu zala, gure izatasunezko Foru Legearen alde zeozer egin bear geunkela, Bizkaia, Durango ta Enkarterriko ordezkariak, erregearen ordezeko lanean egoan lege gizon, Pero Gonzalez de Santo Domingorengana joan ziran, beragaz orokorrezko batzar bat egin gure ebalateko.

Gizon ona izan zan Pero Gonzalez de Santo Domingo ori, eta berak be ulertzen eban, Bizkaitarrai kalte asko egiten eutsiezala, Foru Legeak idatzita ez egoteagatik.

1.452ko urtean Ekaiñako 2an, Rigoitiako Idoibalzagan egin eben euskaldunak batzar ori, eta Durango, Bizkaia ta Enkarterritarrak, euren keskak aurkeztu ostean, Santo Domingoko Pero Gonzalezegana joan ziran, onek baiña aldi orreitan, garrantzizko zeregin askogaz egoala ta, lurralde baktzaren arduradunezko ordezkariari ziñezpena artu egiotzezala esan eutsen, Bizkaia, Durango ta Enkarterrikoak euki ebezan oiturazko legeak, maltzurkeri bage idatzi egiezan.

1.452ko urtean Uztaillako 21ean, len, dei-adarrezko bost-mendietatik deitu ta Gernikako Arbolapean batzartuta, aurkeztu ebazan euskal arduradunezko ordezkari areik, idatzi eben, 219 lege gai eukazan Bizkaiaren legezeko-gorputz labur bat, baktza bere laburpenagaz.

Euskal Batzarrak, 1.526ko urtean be ostera zuzendu ebena, argi ta garbi itzita, zalantzarik ez daitezzen agertu, *Bizkaitarrak zirala jabledunak, gure barriztutako Foruak diñoen lez, bere XIgarren legean, I izen buruan.*

Naita zenbakitasun au sortzezko-itzulpenarena ez izan, Zelaiatar Adrianek esaten dauan lez.

Gaztelako gortearen guda nagusi Esparterok 1.839ko urtean Urriaren 25ean karlistadaren guda ostean ikaragarrian moztu ebazanak, eta 1.841eko urtean gure euskal Foruaren Baimena ezereztu.

Bizkaitarrak ziralako, Enkarterriko Kastro Urdialesekoak be egon ziran batzar orreitan, eta orregaitik daukie euren ikurriña, Gernikako Arboren irudiagaz edertuta.

1.454ko urtean Ekaiñaren 20an il zan II Juan⁽¹⁾ Gaztelako errege, eta gure Bizkaiko jaun-tzaren Jauna.

Berangandik esan geinke, Bizkaitar Foru Legeakaz adeitsua⁽²⁾ izan, edo ta Bizkaitarren le-geak agintzen ebanakaz, esanekoa⁽³⁾ zala esan bear geunke.

Bera izan zalako alegindu zana, Bizkaiko erri Iribilduak eta Eleiz-aurreko batzarrak al-kartuta, idatzi egien Bizkaitar Lege Gorputz ori, Bizkaitar guztien on iritxiz edo ta atse-gintasunagaz.

Eta emen ikustenda argi ta garbi, bizkaitarren legeak ez zirala erregearenak eta gitxiago gaztelarrenarenak.

Baiña katolikotasunezko erlijioa gero ta indartsuago joan zalako, gure erregetza, jauntza, gorte ta euki genduzan jaurkintzazko gizon emakumeak, euken euskal gizabarrena guztiz galtzen asi ziran, katolikotasunezko eleiztarrak bultzatu ta norkerietan sartuta, erregetza guztia senitartetuta geratu zalako.

Eta Europa osoan bardin sortuta, erritarrak baiño beste goragoko mailla baten kokatu zi-ran, errege katolikoetan ikusita, *ots-aundiko edo fazakerizko katolikotasun itz ori, aundikeri orretarako ipini eutsiela.*

-Ata guzti, IIn Fernandoren ekintzan Nafartarrai buruz ikusten dogu, berak oraindiño euki ebala euskal arimaren baitazko zeozer bat, Nafarroa menperatu eban ostean, begirunez zaindu ebazalako lengo nafar agintariak euki eben lana, eurak bizi ziran arte.

2. 5. Nafar erregetzaren aria ostera artuta, Aragoiko errege IIn Juan Maltzur Aundiaren bizi kondaira.

Gaztelako XIn Alfonsoren sasipeko seme IIn Enrikek, sortu eban Trastamarako leiñuan, Antekerako I Fernando eta Gaztelako Urrakatar Leonorren semea izan zan.

1.397ko Bagillaren 29an, Gaztelako Medina del Kanpon jaio zan, eta bere bizitzan artu ebazan andiki izenak:

1.425-1.479 urte bitartean Ribagorzako Konde, Peñafieleko Dukea.

1.420-1.479 urte bitartean Nafarroako errege.

Eta 1.458-1.479ko urte bitartean, Aragoi, Zerdeña ta Siziliako errege.

1.415-1.416ko urte bitartean, bere I Fernando aitak ordezkatu eban Sizilia ta Zerdeñako jaurkintzan.

(1) Gaztelako IIn Juan = Isabel erregiñ katolikuaren aita izan zana. (2) Adeitsua = respetuoso. (3) Bizkaitarren Legeak agintzen ebanakaz, "Esanekoa" = humilde, sumiso.

Eta erdiugarte onetara itzuli zanean, bere anai Vn Alfonso Aundikiari lagundu eutson Lunatar Albaroren aurka, bere lengusu Gaztelako IIn Juan erregearen ordezkoa zana.

1.419ko urtean ezkondu zan Nafarroako I Blankarekin.

1.425eko urtean IIIIn Karlos Nafarroako erregea il zanean, bere alaba I Blanka eta Aragoiko IIn Juan, Nafarroako errege izendatu ebezan.

1.425eko Azaroaren 29an, IIn Juan Ribagorza eta Balentziako kondea izendatu eben.

1.427ko Dagonillaren 9an IIn Juanek, bere begiko alaba izan zan Leonor izendatu eban ondorengo Iruñako gorteetan, bere seme nagusi IVn Karlos eta IIn Blanka alabaren aurka, maltzurkeri ta guzur utsez, azpikerizko jokuetan asita.

1.429ko udan, IIn Juan **Guzurti Andi** onek antza, Nafarroako jaurkintzan ez ebalako euki zeregiñik, bere Aragoiko anaiaren diru ta ondasunezko irabazkiari laguntzearren, Enareseko ibarretatik sartu zan Gaztelako lurraldeetara, eta Jadrakeko inguruan borroka antolatzen egoala, bere arreba Maria, Gaztelako IIn Juanegaz ezkondata egon zana sartu zan lez bitartean, or amaitu ziran Aragoiko IIn Juanek, Gaztelako lurraldeetatik egingo zituzen txangoak, baita urrengo urtean Gaztelako IIn Juanen aurka antolatu zan borroka be galduta.

1.435eko urtearen inguru onetan I Blanka jaurkintzen eban bitartean, IIn Juan, arrotz bat bezela bizi zan Nafarroako gauza orreitan, eta zeozer egin naian, bere anai Aragoiko Vn Alfonso erregeari laguntzen asita, Napoleseko erreinuaren jabetasuna lortzen asi zan, utsegite aundi baten amaitu zana.

1.436ko Uztaillaren 30ean IIn Juanek, Leonor bere begiko alabagaitik, Foixeko IVn Gaston Kondeagaz ariñago egin eban ezkontzeko elkargoa baieztatzen dau, berentzat ezkon sari lez, Miranda, Larraga eta Falzeseko urien kontuan, 50.000 florin emonda.

1.441eko Jorraillaren 1ean, I Blanka il zanetik eta berak azkenai lez, bere seme IVn Karloseri borondatez idatzita: **ex egiala erregetzazko ardurarik artu, bere aita IIn Juanek esan arte, aitaren eskutik artuko ebala ta.**

IIn Juanek, bere emazte I Blankaren agindu orregaz, guztiz naspilduta euki eban bere seme IVn Karlos Nafar erregetzazko zeregiñetan, IVn Karlos, ezkerrekoa eta esanekoa izanez gain, zordun be agertzen zalako, eta I Blanka amaren esanetan eroan ebazan agindu orreik, arik eta IIn Juan aitak ostera, ezkontzen zala esan arte.

1.442ko urtean eta I Blanka ama il zan ostetik, IIn Juanek, Leonor bere alaba txikerra, Foixeko Gaston Kondeagaz ezkondu eban, Leonor bere senarragaz Bearnera bizitzen joanda.

1.444ko Jorraillan ezkondu zan Nafarroako IIn Juan, Gaztelako errege leiñuan, XIIn Alfonsoandik etorren Enrikeztar Fradike amirala⁽¹⁾, eta Ayalatar Marianaren alabeagaz, aundizale, ospezale ta dana gura eben Enrikez ta Ayalatar Juana orrek, 19 urte euki ebazala.

Emendik aurrera ta I Blankaren azkenai bidez, IIn Juanen jardunbidea bere seme IVn Karlosegaz, gogortu egingo zan ezin besterarte, bere emazte Enrikeztar Juana Lizarrara bialduta, IVn Karlosen errege-ordezko zeregiñak nastu ta oztopatzeke alegiñean ibilteko, Nafartarren asarre aundiak sortu ebazanak.

1.445eko urtea baiño ariñautik IIn Juanek, betiko lurraldearen nagusizko jabetasunaren erruz, Gaztelako errege IIn Juan beren lengusu eta onen gudal agintari nagusi⁽²⁾ Albaro de Lunagaz borrokan, Atienza ta Torrijako Uriak artu ebazan, eta urte onetan talde biak

(1) Amiral = almirante. (2) Ordezko = lugarteniente.

Olmedon aurrez aurre aurkeztuta, Nafarroako II In Juanek, Aragoitar guda lozteakaz batera egon arren, astiñaldi gogorra artu bear izan eban, eta borroka orregaz amaitu ziran aragoi-tarrentzat, gaztelaniako lurraldeakaz euki ebezan indarrezko eragipen guztiak.

2. 6. *Nafartarren, anai-arteke guda.*

1.444ko urtean IVn Karlos, II In Juan bere aita ezkondu zanetik, eta al eben gogortasun andianean bere aurka asi zanean, Gaztelara joan zan, bere lengusu Asturiaseko Printzea ta Albaro de Luna kondestablearen laguntza eskatzera.

Oneik argi itxita, eurak ez zirala Nafarroagaitik borrokatzen, II In Juanen aurka baiño, eta gaiñera zirikatuz: *Aitak emoten eutson arrera txar eta otzagaitik, obeto ibiliko zala gaztelarrakin alkartuta*, esanda.

Bai, bide batez be oartuazota, zelan bere ugazama edo ama ordea aurdun egonda, ekarriko eben ondorengotasunagaz. Ostean eta bakarrik egon ziranean, Asturiaseko Printzeak Albaro de Luna Kondestableari itaun au egin eutson: *Guk baiña, zer lortzen dogu Nafartarrai laguntzeagaz ?*.

Kondestable jaunaren erantzuna:

Ixten dauksagun, 40 urteko anai-guda.

1.451ko Iraillaren 8an IVn Karlosek eurakaz, alkartasunezko ituna sinatu egiten dau, eta Asturiaseko printzea ta Luna Kondestable oneik, inguratuta euki eben Buradoneko gaztelua itzultzen dautsoe.

Nafarroan, aita- seme auen arteko anai-guda asi ondoren, Nafartar sendiak banatu ziran, euren alderdikidetasunak sortuz, Beamundarrak, IVn Karlosen alde kokatu ziralako, ta Agramondarrak, II In Juanen alde.

1.451ko Urrillaren 23an borrokatu ziran talde biak Aibarreko zelaietan, eta IVn Karlosen guda lozteak astiñaldi andia artuta, II In Juanek, atxilotu ebazan Beaumotdar Luis Nafartar Kondestablea eta IVn Karlos.

1.452eko Epaillaren 10ean Enrikeztar Juana IVn Karlosen ama ordea, ariñeketan urten bear izan eban Lizarratik, bere semea Aragoiko legeak agintzen eben eran, Aragoien jai zedin, eta or ibili zan larri, Nafarroaren mugako Sos errixoan jai zalako egun orretan, gero Aragoiko II In Fernando katolikoa izango zana.

Enrikeztar Juana onek, Lizarratik Aragoiko Sosera aldatuta bere seme Fernando katolikua jaioteko egoanean, berak euken amurru aundiena erakutsiko eban emendik aurrera, ordez eukezan seme/alabaren aurka, Leonor txikerrenagaz izan ezik, Fernando beren semea Aragoi ta Nafarroako erregea izan zedin.

Eta Juanak, bere senar II In Juaneri alegiñ orregaz bultzatuta, IVn Karlos eta II In Blanka bere seme alaba oneik, erregetzatik alboratu egiezan, 1.455eko urtean II In Juanek Nafar erregetzaren ondorengotzatik, euren aurka baztartuaren aldarrikapena egin ondoren, biak pozoituta ilgo ebazan azkenean.

Kondaira onen zeaxtasuna, IVn Karlosen bizi kondairan argituko dogu.

Guda au ezan amaituko arik eta 1.512an II In Fernando katolikua Iruña menperatuta, I Karlosek 1.522an Mayan, ta 1.523an Ondarribiko borrokak irabazita, Nafar askatasunezko Ikurrak menperatu arte.

2. 7. *Aragoiko jaurkintza.*

1.454ko urtean II In Juanen anaia Aragoiko Vn Alfonso, Italia eta Siziliaren egoaldetik jaurkitzen egoala bere erreinua, II In Juan izendatu eban Aragoi ta Kataluñako ordezko lez⁽¹⁾.

1.455eko urtean II In Blanka, bere neba IVn Karlosegaz batera, bere aita II In Juaneri, Nafar erregetzan eurak euki ebazan errege/erregeiñ izateko eskubideak eskatu eutsoezan, eta onek, ondorebage biak itzita, Leonor irugarren alaba 30 urte ebazala ondorengo lez izendatu eban, Nafarroarren arteko anai-guda biztuta.

1.458ko Uztaillaren 15ean Aragoiko Vn Alfonso erregea ondorengo barik il da, II In Juaneri egoki jakon Aragoitarren erregetzazko aulkia.

Eta 1.458an Uztaillaren 25ean II In Juanek, naita batera Kataluñako jaurkintza bere seme IVn Karloseri emon bear, bere seme Fernando⁽²⁾ Montblankeko Duke ta Ribagorzako Konde izendatu eban Balagerreko Uriaren jauntzagaz batera.

1.460ko urtean IVn Karlos atxilotu eben bere aita II In Juanen aginduz, eta Kataluñan II In Juanen aurka egon ziran erakundeak, La-Biga, errien andiki zaldunak eta eleizako abade ta agintari batzuk matxinatuta, anai arteko guda antzeko bat asi eben.

1.460ko urtean Katalan gortekoak Leridako Urian batzartuta, aske itzi egicela bere seme IVn Karlos eskatu eutsoen II In Juaneri.

Eta 1.461eko urtean Katalanek, Penedeseko Billafrankaren ongunea onartzea beartu eutsoen II In Juaneri, Kataluñan berari sartzea debekatuz, bertoko agintarien baimenik babe.

Katalan gortekoak, IVn Karlosen ardurapean itxita egin eban onek Kataluñako jaurkintza, lan ori geien Kataluñaren orokorrezko edo Generalitateko arduradunak egin bearrean geratuta, II In Juan, IVn Karlosen aitak, semearen atzetik ibili zalako beti atxilotu naian.

1.461eko urte berean II In Juanek, gogo bageko aldarrikapen bat egin bear izan eban, IVn Karlosen erregetzazko eskubidearen jabetasunak onartuta.

Eta 1.461eko Iraillaren 23an il zan IVn Karlos, Enrikeztar Juana, II In Juanen emazteak pozoituta.

IVn Karlos il ostean Katalanak, aurrera eroan eben II In Juaneri Kataluñan sartzen ez iztea, bertoko arduradunaren baimenik babe.

1.462ko Otsaillan baiña, II In Juanek Penedeseko Billafrankaren ituneri jaramon egin barik Kataluñan sartuta, katalanen anai arteko guda asi eben, remensako payes nekazarien iraultzagaz bateratu zana.

Kataluñako matxintasunaren aurkako borroka orretan II In Juanek, Aragoi, Balentzia ta Siziliaren zintzotasunak bereganatzea lortu eban.

Katalanek baiña, II In Juan errege lez ez ebelako ontzat artzen, erbesteratutako bat lez, euki eben.

Kataluñako Jeneralitatearen guda lozteak, Pallarestar Rojerren aginduz, Enrikeztar Juana ta bere seme Fernando, Jeronan egon ziran gazteluan, inguratuta euki ebazan lau illabetetan, arik eta II In Juan frantzezaren laguntzarekin askatu arte.

XIn Luis frantzezaren laguntzagaitik, erabagi ziran ordaiñak, 200.000 urre-gorritzko otxin edo dolbekoa⁽³⁾ zan, II In Juanek urte baten barruan ordaindu bear ebana, eta ordainketa

(1) Ordezko lez = regente. (2) Fernando el katoliko. (3) Dolbekoa = de doblones de oro.

orren bitartean Zerdeña ta Rosellon emon ebazalako baikuntzan, Frantzezaren jabetasunera aldatu ziran, 200.000 dolbeko dirutza ori IIn Juanek, sekula ez ebalako ordaindu.

Guda luze onetan Katalanak, Gaztelako IVn Enrikeri eskeiñi eutsoen Bartzelonako konderria, eta izendatu be bai, Frantzezak baiña bitartean sartuta, IIn Juanek zor eutsozan ordaiñak eskuratu gura ebazalako, gaztelarrak nai aleginduarren be, ez eben Bartzelonako konderri ori artu.

IIn Juanek denbora oneitan, bere maltzurtasunezko trikimaillu guztieagaz, Nafartar erreñua bere alaba txiker, Leonorren alde ipinteko ibili zalakoan, bere bigarren ezkontzako seme Fernando katolikoaren eskuetan izteko ibili zan, bere alaba IIn Blanka, erregetzatic zelana aldenduko alegiñetan ibili zalako, baiña denboraren igarotzeak erakutsiko eban, ori be guzur utsa izan zala, azken baten, Leonorren aurka be ibili zalako.

1.462an Jorraillaren 12an IIn Juanek Oliten, bere alaba txikerra Leonor eta bere senar Gastonekin sinatu eban alkargo bat, Leonor, bere urrengo lez izendatuta, eta bere senarra be, ondorengo lez onartu ebana.

Eta gauza orreik, IIn Blanka benetako erregeiñaren eskubideen gaiñetik egin bear ziran lez, bereala asi ziran azpikeriz, IIn Blankaren ilketa antolatzen.

1.462ko urtean IIn Blanka bakarrik, eta bere aitaren naikerizko aginduan Oliten atxilotuta egoala, IIn Juan, Frantziko XIIn Luisekin Agurainen batzartuta egon zirala, alkargo bat egin eben, IIn Blanka 38 urte eukezala, Frantziko XIIn Luisen 16 urteko seme txikerra Berri'ko Dukea izan zanaren Karlosegaz ezkondu zedin, eta IIn Blankak ezetza emon eban lez, aita asarre, Foixeko IVn Gaston bere suiñen agindupeko Monkada dorrean atxilotzea erabagi eban.

1.462ko Jorraillaren 23an IIn Juanek aginduta, Mosen Pierres Peraltakoak, mendi osterata atxilotuta eroan eban IIn Blanka, eta Orreagako lekaretxean egon ziranean, IIn Blankak: ***Bere Nafar erregetzaren eskubideak ezereztu naian, atxilotuta eroaten ebala aldarrikatu eban, bere ordez, Leonor aizta txikerra ta Fernando ugaz-nebaren mesede.***

Eta olan izan ez balitz, arduradunak baliobage itxi egiezala beren salaketa orreik, olango zeozer egiterakoan, euki ebazan eskubideak bere borondatez, Gaztelako errege IVn Enrike, bere lenengo senarra zanaren zainpean iztea zalako.

1.462ko Jorraillaren 30ean, IIn Blanka berak egin ebana.

Dana dala, Leonor jaio zanean, aitaren tresna biurtu zan, beren seme/alaba IVn Karlos eta IIn Blakaren aurka egiteko.

Eta 1.464ko Abenduaren 2an, il zan pozoituta IIn Blanka, bere aita IIn Juanen aginduz, Frantziko Orthez errian.

1.463ko urtean eta Kataluñako borroka luze au aurrera doiela, katalanak, IVn Enrikeri egin eutsoen Eskeintza bardiña, Portugaleko Pedro konde ordeari be egin eutsoen, au baiña, urte bi beranduago il zan lez Kalaf'eko borrokan, eta gero Aragoiko errege izango zan IIn Fernando katolikua 13 urte bakarrik euki ebazanaren aurka, porrot eginda, or geratu jakien katalanari aukera ori.

1.466ko urtean Katalanak, Anjou'ko Renato'ri be egin eutsoen eskeintza bardiña, baiña orrek be, ez eben aurrerakuntzarik euki.

1.468ko Otsaillaren 13an bulerreko min-biziagaz il jakon Enriketa'tar Juana emaztea, Aragoiko-Nafar errege maltzur IIn Juaneri.

1.468ko urtean II In Juanek, Iruñako gotzaiña Txabarri´tar Nicolás, bere Leonor alabaren aolkulari zana, il eban.

1.469an Epaillaren 5ean Aragoi ta Nafarroako II In Juan erregeak, bere seme Fernando Gaztelako I Isabelegaz ezkontzeko alegiñetan ibili zala, ariñautik il zan II In Pio Aita Santuaren bulda bat eskarniatu eban, I Isabel eta Fernandok euki eben leen maillako lengusutasuna ezereztuteko, ta an egon ziranak jakin arren gertaera ori, Leridako lurraldean, Zerberako Urian siñatu eben ezkontzazko alkargo orren agiria.

Nafarroako IVn Karlos izan zan, Gaztelako I Isabelek, ezkontzeko euki eben leen senar-gaia, eta II In Juan bere aita ta Enrikeztar Juana bere ama ordeak, alegiñ guztiak egingo ebazan Isabelgandik aldentzeko, IVn Karlos pozoituarte. Karlosen bizi kondairan argituko dodana.

Eta 1.469ko Urrillaren 19an, Balladolizeko Bibero jauregian ezkondu ziran Gaztelako I Isabel eta bere leen maillako lengusu, Aragoiko erregetzaren ondorengo, Siziliako errege ta Jeronako Printzea zan, II In Fernando katolikuagaz.

1.469ko Abenduaren 16an, Lorenako Dukea il jakien katalanari, ta II In Juanek Bartzelona inguratu ondoren, bakezko ongune batera eldu ziran alde biak.

1.472ko Abenduaren 22an, II In Juan bere zitalkerizko irurogeita amabost urte euki zitu-zenean, ta ia itsu egon arren, bere seme Fernandoren laguntzarekin, Bartzelonan sartzea lortu eban, eta egin eben ongune bitartez, danari parkamena emonda, Kataluñaren Foru ta askatasunari ziñez itz emon ondoren, Kataluñako anai guda luze ori, Predralbeseko elkargo orregaz amaitu zan.

II In Juanek, bere askenengo borrokakaz, Rosellon ta Zerdeña be berrezkuratu gura ebazan, baiña XI In Luisek ez eutson ezer emon, diru askoren zorrak euki ebazalako beragaz.

II In Juan bera izan zan bere 82 urtekin XIV-XVeko gizaldi bitartean, geiago bizi edo ta zarenretariko erregea izango zana, 1.479an Urtarrillaren 20an Bartzelonan il zan arte.

2. 8. *Oar-labur baten bidez, emen ikusten doguna.*

II In Juanek bere bigarren emazte Juana Enrikezegaz batera, IVn Karlos ta II In Blanka euren erregetzazko eskubidetatik aldentzeko, eurok sortu ebela Nafarroako anai arteko guda ikusten dogu, eta trikimaillu guztiak ibilita be, ezinean agertu ziranean, pozoitu ebezala biak, Nafar erregetza, euren azkeneko seme Aragoiko II In Fernandoren eskuetan izteko alegiñean.

2. 9. *II In Juanek, bere bigarren ezkontza bidez, Gaztelako Enrikeztar Juanagaz euki ebazan alaba-semeak, oneik izan ziran.*

1.448ko urtean, *Aragoiko Leonor.*

1.452ko urtean II In Juanen ondorengo izango zan *Siziliako errege, Aragoiko izenean II In Fernando, eta Gaztelako I Isabel erregegiñaren bizi-lagun lez, Vn Fernandoren izenagaz ezagutuko zana.*

Eta 1.454ko urtean *Aragoiko Juana*, Napoleseko errege I Fernandogaz ezkondu zana.

2. 10. *Eta II In Juanek legezko ezkontzatik kanpo euki zituzen seme/alabak.*

1.439/40ko urtean *Juan*, Zaragozako gongotzain edo artx-apezpikua izango zana.

1.417ko urtean *Alfonso*, Kalatrabako maillan nagusia izango zanaren alaba Eskobartar Leonorregaz euki ebana.

Nafartar Leriñeko II Konde Beaumonttar Luisen andreagaz euki eban *Aragoiko Leonor*.

Eta 1.455ko urtean, *Maria*.

1.479ko Urtarrillaren 20an, 83 urte eukezala il zan II In Juan.

Aundia esaten eutsoenai baiño, andinai, lapur, guzurti, ta maltzur aundi bat izan zana.

Nafartar euskal errigizarte ta erregetzari ainbat kalte egin ondoren, txarren egin bear izan ebena, bere emazte Enriketar Juanagaz batera eginda, adibidez:

Aolku ta ikaspide zikiñakin, II In Fernando euren semea, norberkerizko ta bete ezinezko maltzurkerian apaindu ta tresnatu, maltzurtasunezko guzur orreikaz, Nafar erregetzagaz geratu zedin, Gaztelar ta Aragoitarren betiko ametsat beteteko.

2. 11. *Fernandez de Kordoba, Ayala ta Enrikeztar Juana.*

1.425eko urtean Medina de Riosekon jaio zan Enrikez eta Kordobako Fernandeztar Juana au, 1.431ko urtean Fernandez de Kordoba ta Ayalatar Mariana il jakon ama, eta Enrikeztar Fradike, Gaztelako amiralaren bitartez.

Mendiko Kasarrubiosen Vn Erikeztar Jaun au:

1.447/1.468 urte bitartean, Nafarroako erregearen bizi lagun ta erregiña izan zan.

Eta 1.458/1.468 urte artean, Nafar ta Aragoiko erregiña.

Gaztelako amiralgo nagusi baten alabea izan, ta gazte gazterik ama bage geratuta, andinai edo ta andi zale, buru arin, buru gogorreko maiñatsu edo apatatsu, ta sutsuzko agintzaillea zan andre au, bere senar Aragoiko II In Juaneri ainbeste okerkeri egiten lagunduta.

1.444-1.445eko urtean bigarrenez, Aragoi ta Nafarroako II In Juanegaz ezkondu zan, eta beste alaba semeak goian aipatuta dagozan lez, noizean bein sortzen diralako gauza oneik, edo bere berezitasunagaitik, Fernandorena bakarrik aipatuko dot amen:

1.452ko Epaillaren 10ean, eta Aragoiko legeakaz adoz egoteko, ia denbora barik edo ta doitasunezko denboran elduta, Nafarroagaz muga egiten dauan Sos'eko erritxoan jaio zan, gero katoliko ez izenarekin esagutuko zan Aragoiko II In Fernando, eta Gaztelako I Isabelekin ezkondata, Gaztelako Vn Fernando lez, 1.516ko urtean il zan seme au.

2. 12. *Enrikeztar Juanaren zeregiñak, erregiña lez.*

1.458ko urtean Aragoiko Vn Alfonso il zanean ondorengo barik, bere anaia eta orduan Nafarroako erregetzan ezkontza bidez, lagunezko senar-errege izan zana, izendatu eben Aragoiko errege II In Juanen izenagaz, eta Juana, Nafarroako erregetzan bere Aragoiko II In Juan lapurragaz ezkondata, Nafarroan lapur edo guzurrezkoa, eta Aragoien benetakoa izan arren, erri bi orrein erregiña lez agertu zan.

Juana, sutsuzko ekintza baten agertu zan beti, bere gizonaren lenengo ezkontzako seme nagusia ta Nafartarren benetako errege izan zan IVn Karlos Bianako Printzearen aurka.

Eta geiago, jakin ebenean, Gaztelako Isabel bere seme Fernandorentzat gura eban emaztea, Gaztelako IVn Enrike bere anaiak, Nafar Leringo kondestablegaz, oso aurreratuta euki ebela Isabelen ezkontza, bere seme orde edo ugazeme IVn Karlosegaz.

Enrikeztar Juana au, IIIn Juanegaz ezkontuta eta IVn Karlos, IIIn Blanka, eta irugarren alaba Leonorren ugazama edo ama orde lez, ez zan geratuko iñoz bere ardurapean eukezan iru seme alabaren aurka, ta berak IIIn Juanegaz euki zituzenaren alde, nai bere ardurapekoak Nafar erregetzan ondorengo lez, benetako errege erregeñiak izan, arik eta euragandik pozoituta, lenengo biak il ebazan arte.

1.461eko urtean IVn Karlos il eben ostetik, eta IIIn Juanek bialduta, Juana bere seme Fernandogaz 11 urte eukezala, Barzelonara joan ziran errege orde lez, Fernandok 11 urte orreikaz al izan ebelako Aragoien ondorengo errege izan, eta tituludunezko errege Nafarroan.

Juanak, bere senar IIIn Juaneri Kataluñaren jabetza lortzeko laguntzen egoala, aurka ipini ebazan erritarrak Kataluñako Generalitatearen jauntxoakaz, eta Remensako payes nekazari eta jauntxuen artean asarre bizi ori zabaldua, katalanentzat ain basati ta odoltsua izango zan, anai arteko borroka latza sortu eban.

IVn Karlos pozoitzeko agindua emon ebalako salatuta, Juana eta bere seme Fernando, Jeronako gotzai ta Remensaren gaztelura joan ziran ostonketako babes billa, an, Aldundiko gudaloztearen erasoari eutsi bearrean agertuta.

Juana andre onen amets aundiena, bere seme Aragoiko IIIn Fernando, Gaztelako I Isabel erregeñagaz ezkontuta ikustea zan, eta 20 illabetegaitik ez eban ikusi.

1.468an Otsaillaren 13an Tarragonako Urian il zan bulerreko min-biziaren gaixorekin Enrikeztar Juana au, matrakarako ainbat bide zabalik itxita, bere ostean biziko ziranentzat.

Ballstar Karreras'ek esaten dau, Argaiz'tar Gregorioren "La perla de Cataluña"ko liburuan, 104ko orrialdean: "Manuscrito he leído en lo que confesò la reina al tiempo de morir al rey D. Juan su marido, que avia dado veneno al principe D. Carlos". (Carrera Valls, Cataluña, Descubridora d'Amèrica, pag, 159).

2. 13. *Nafartarren Bianako Printzea lez, IVn Karlosen kondaira.*

1.421eko Lorailaren 29an Balladolizeko lurraldean eta Peñafieleko Urian jaio zan Bianako Printzea izango zan, Nafarroako IVn Karlos au.

Bere ama Nafarroako erregeña I Blanka, eta aita, Aragoiko erregetzaren seme txikerrena zanaren, IIIn Juanen semea zan.

1.423ko Urtarrillaren 20an IVn Karlosen aitite IIIIn Karlosek, bere billoba jaio ta urte bi beranduago, Bianako Printzerria sortu eban, iñoren arazo barik Karlos gaztea, Nafarroako errege eskubide guztiekaz izan zedin.

Eta barregarria dana, nor eta bere aita, Aragoiko IIIn Juan izatea, IVn Karlos bere semeari, erregetzazko bide ta eskubide guztiak, moztu egingo eutsozanak.

Zeozer jakin ote eban IIIIn Karlosek ?.

Oliteko erregetzaren jauregian asi ta bere azkuntzaren jakintasunezko arlo guztiak bete ebazan IVn Karlos onek:

Bost izkuntz, elerti ta eder-lanetan trebea, gizabidea, ta eroan onaren arloak zentzu aundiz ikasita bere erregetzaren jaurkintzarako, gudarako eta zalduneko buruzagitasunean jakintsua izateko, bitartean arraunlari, eizan ta zaldi gainean ibilteko ardura andiko ikasketarekin bete ebazanak, gazte paketsu ta jakituna izateko.

Zaletasun aundia euki eban aberezko arloetan, mota askoko abel-baratz aundi bat euki arte, eta soiñu-zale aundia be izan zan, berak bere maniura edo arpa ta kitarreagaz joteko ta josten ebazenentzako, eres zatiak idazten ebazalako.

1.427ko Dagonillaren 9an Nafarroako gorteak, ostera ziñez itza emon eutsen Bianako printzeari Nafarroako erregetzaren ondorengo lez.

1.439ko Iraillaren 30ean Klebes´tar Ines, Klebeseko I Adolfo Dukearen alaba eta IIIIn Felipe Borgoñako Dukearen loba zanarekin ezkondu zan IVn Karlos, 19 urte zituzela.

1.441ean Loraillaren 1ean IVn Karlosen ama I Blanka il zanean, bera geratu zan Nafarroako erregetzaren ondorengo Bianako Printze lez, eta bere aitite IIIIn Karlosek Frantzian irasita, Nemours´eko konderriaren jabetasunagaz.

Zoritxarrez baiña, IVn Karlosen amak bere azkenaian, baldintzazko aolku bat emoten eutsen Karloseri: ***Erregetzazko izenik ez egizela artu, arik eta aitak, bere bedeinku ta baimena emon gabe***, IVn Karlosek, erregetzaren ordezkotza bakarrik artuta.

Amak, gogamen onegaz uste eban, bakeak lortuko zituzela aita ta semearen artean, azken baten eziñ-ikusaren ta alkartu-eziñezko gorroto-bizi baten geratu zana, bata nortasunaren legez eta bestea norkeriz, biak sinistu egiten ebazan eskubideetatik ez ebelako urten gura.

Nafarroako erregiña I Blankagaz ezkondu, bere bizi-lagun lez bizi zan, Aragoiko I Fernando erregearen seme ta Gaztelako I Juan erregearen biloba, gero Aragoi ta Nafarroako errege izango zan IIIn Juan au.

Ia bere gaztetako denbora guztia, Gaztela aldetik borrokan ibili zan, Aragoiko erregeak gaztelanian, ondorengo jabetasunean lur zabal ta ugariak euki ebazalako.

Ez gitxiago Gaztelako gortean euki gura eben eragiteagaitik⁽¹⁾, lenengotan lortu ebana, arik eta Lunatar Albarok, Gaztelako jaurkintzan goi maillako agintaritzara igon arte.

Nafarroako erregiñaren bizi-lagun⁽²⁾ IIIn Juan onek, bere matxinzale edo ta errinaslearen betiko zeregiñekin ibilita, ez eban lortu, leku guztietan gorrotogarri izatea baiño:

- a) Gaztelaniako gauza guztietan esku-artzeagaitik, borroka ugari.
- b) Aragoien, bere erritar eta lurraldeak guztiz jaramon egin barik euki ebazalako, danak asarre.
- d) Kataluñan anai arteko guda luzeak.
- e) Eta Nafarroako erregetzan, beste biak ordaintzeko, bertako dirutik ordaindu egiten eban lez, eukezan erregekerizko andinaien borroketatik, anai arteko guda ugari.

1.447ko urtean, IVn Karlos eta bere aita IIIn Juanen artean egon ziran gorrotoak, gogortu egin ziran, baita IIIn Juanek, Nafartarren gortekoak asarre bizian ipini be, Gaztelako erregearen sasikumeko adarretik etorten zan Enrikez ta Fernandez de Kordobatar Juanagaz, Kalatayuzen ezkondu zalako, euri ezer esan gabe.

1.448an Jorraillaren 6an II jakon IVn Karloseri 27 urte euki zituzela bere Klebestar Ines emaztea, 9 urte ezkondu gero, ondorengo seme/alaba barik.

(1) *Eragiteagaitik edo eragitea = influencia.* (2) *Erregiñaren bizi lagun = rey consorte.*

Gaiñera Juana onek, bere aita Enriketar Fradike Gaztelako amiralgoren laguntzarekin, bere senarra IIn Juan bakera bideratu barik, eta berari, Fernando katolikua izenagaz ezagutuko zan semea emonda, *kuku txoriak egiten dauan antzera, Nafarroako abian egoan arrautza bota eta berea ipini gura eban*, bere seme-ordea Nafarroako IVn Karlos errege eskubidekoa, Nafarroako erregetzan “Sarkoi” bat izan bazan lez erabilta.

Juana berak, bultzatu eban bere senar IIn Juan, Nafarroan benetako erregea zanaren IVn Karlosen aurka, bere seme Fernando, gero IIn Fernando katolikua izando zanak, Aragoi ta Nafarroako errege izan zedin.

Dana dala, Europa ta Erdi Ugarte onen erregearentzat, eta Ego ta Iparraldeko euskal Nafartarrentzat batez be, oitura edo ekanduaren orekabageko goibeltasunezko denbora ekaiztsuak izan ziran, ezkontza orren bidez agertu ziranak, eta alan sortu zan gero etorriko ziranakaz.

Bianako Printze IVn Karlos onek, bere aitaren agindutara ipini bazan be, IIn Juan aita onek lege arloetan, berak asmatzen ebazan arrazoiakaz, egitik urriñ ibiltzen zalako, gaztelar eurak eskeiñi eutsoen IVn Karloseri, IIn Juan bere aita izan arren, Nafarroako erregetzatik botatea.

Gaztelar oneik baiña, IVn Karloseri argi ikusiaz egiten dautsoe: *Eurak ez zirala borrokatzen Nafartarren aurka, IIn Juan arrotza, Nafartarren erregetzatik botateko baiño*, eta IVn Karlos alegintzen dabe, bere ekanduzko egilletasunaren sorburutik, kendu edo alden du egiezala, bere aita IIn Juanek euki zituzten lapurtzazko asmakizunak betirako.

1.451ko Iraillaren 8an sinatu eban IVn Karlos Naparrak, IIn Juan gaztelar erregearen seme Asturiaseko Printzea ta Albaro de Luna kondestableagaz egin eban itun ori, Aragoiko IIn Juan Nafarroatik botateko.

Eta elkargo orren agiria ziurtzeko, beaumontesen alderdia IVn Karlosen alde kokatuta, eta IVn Karlosek euki zituzten nafartar gudalozteak I Luis Leringo Kondearen agindutara ipinita, IIn Juanek euki zituzten gudalozteakaz borrokatu ziran lenengoz, garrantzi andiko ondorio barik.

IIn Juanek bere agintaritzari indarra emoteko, bere emazte Enrikeztar Juana bialdu eban Lizarrara, gortearen jaurkintza bere seme IVn Karlosekin batera eroan egien, Juana onek baiña, bere agindunaiaren eraso gogorrekin ibilita, beaumontes nafartarren gorroto ta ezin ikusi biziak sortu ebazan bere aurka, eta Nafar ta gaztelatarrak IVn Karloseri esan eutsoen, ordua zala IIn Juan, errege maltzur ori, Nafarroatik atarateko.

Beaumontarrak Juana inguratu eben Lizarrako jauregian, baiña laster askatu bear izan eben ingurutasun ori, IIn Juan bere gudalozteakaz agertu zalako.

1.452ko urtean, Aibarren aurkeztu ziran, gudalozte biak borroka latz baten sartuta, eta IIn Juanek, Aragoi, Frantzez, ta Nafar Agramontesaren laguntzarekin garaipenduta, bere seme IVn Karlos Tafallako gazteluan atxilotu eban, gero, Tudela, Mallen, Monterrey eta Salduba edo Zaragozako gazteluetatik ibili ondoren, atxilotutako azkeneko toki onetan 20 illabete egin zituzten IVn Karlosek.

IVn Karlosek atxilotasunetik urteteko, bere aita IIn Juaneri esan eutson, aurrerantzean berak ez ebala errege titulorik artuko bera ilten zan arte, eta onek aske itxi eban.

1.452ko Epaillaren 10ean jaio zan Aragoiko Fernando, gero katolikoa izango zana.

1.453ko Bagillaren 23ko asken egun arte, ez eban askatuko II In Juanek, bere seme IV In Karlos euken atxilotasunetik.

II In Juan erregea gogaituta, bere suin Foixeko Gaztonekin, ordurarte IV In Karlosen alde ibiltzen zalako, berari deitu ta erabagi onetara eldu ziran, bere seme IV In Karlos Nafar erregetzaren ondorengotzatik kendu eta Leonor, bere lenengo ezkontzaren alaba txikerrena bere zenar Gaztonekin batera, Nafarroaren erregetzan leen ondorengotzan ezarri.

IV In Karlosek, Lizarran egin eban askeneko alegiña bere aitaren aurka, eta galdu ondoren, Iruña, Paris eta Erroman Aita Santu III In Kalixtogaz egonda, Napolesera joan zan bere maitetasun aundian euken osaba V In Alfonso Biotz Andikoa esaten eutsoenaren babesera.

1.457ko urtean elduta, eta V In Alfonso au, bere loba IV In Karlosegaz lilluratuta eukezan gizon itxura ta jakintzagaitik, Napoles eta Siziliako ondoengo lez izendatu eban.

1.457ko Epaillan Beaumontdar Juan Nafarroako jaurlariak, Bianako Printzearen izenean, gorteko arduradunak batzartu ebazan Iruñan, oneik, IV In Karlos, Nafarroako errege lez aldarrikatuta.

Eta 1.457an Bagillaren 26an Napoleseko errege V In Alfonso, IV In Karlosen osaba ta II In Juanen anai onek, IV In Karlos aldarrikatu eban Aragoi, Balenzia, Mallorca, Zerdeña, Sizilia eta Kataluñaiko printzerriaren errege lez, bere aita II In Juanen ostean, Napoleseko erregetza II In Juanen seme Fernando Kalabriako Dukearentzat itxita.

1.458ko Bagillaren 27an il zan V In Alfonso Aragoiko erregea, eta bere aita II In Juan Aragoiko errege koroatu ebenean, onek bere seme IV In Karloseri Napoles eta Siziliako koroak emon eutsozan, ortik aurrera IV In Karlosentzat bake aldi guztiak amaituta.

IV In Karlosek, bere osaba ilda, Napolesetik Siziliara aldatu zan, eta an egon zan urte oso baten bitartean, Portugaleko erregeak bere arreba Katalina eskaiñi eutson II In Juaneri, bere seme IV In Karlosekin ezkontzeko, ez zana aurrera joan.

1.458ko Uztaillaren 15ean IV In Karlosen aita II In Juanek, Aragoiko erregetza artu eban, bere agintaritzapean jaurlaritzeko.

1.459ko urtean IV In Karlosek, 38 urte euki zituzela eta bere aitagaz adizkidetu ondoren, osterata etortzen da Nafarroara, eta Beaumont tar Juanen bidez alkarrizketak asten dira, IV In Karlos, 9 urte zituzten Gaztelako IV In Enrike erregearen ugazarrebagaz⁽¹⁾ ezkontzeko, edo gero, I Isabel katolikua izango zanarekin ezkontzeko.

Denbora onetan ia batera, Portugaleko erregeak, II In Juaneri eskeiñi eutson bere arreba Katalina, IV In Karlosegaz ezkondu zedin.

1.459ko Uztaillaren 23an IV In Karlosen gogoan, bere aitak emendik aurrera, seme bat lez ondo artuko ebalata ta, Siziliatik urten da, Kataluñaren Salouko itsas-portuan lurreratu zan.

IV In Karlos bere aita II In Juanegaz euken politikako gauzatan alkar ipinita, Karlosek aitari, Gaztelako 9 urte zituzten Isabelegaz ezkontzeko, berak euki eban egitaraua edo montioa, aurrera eroan egiela eskatu eutson.

1.459ko Dagonillaren 28an IV In Karlos itsasora urtenda, Mallorkara joan ei zan, Palmako Eleiz Nagusiaren ondoan egon zan Almudaina errege jauregian, erritarren poz eta sugurpill pesta bidez kokatuta.

(1) Ugazarreba = hermanastra.

Aitak baiña, Felanitx´eko aitz gainean eginda dagoan Santueri ta San Salvador Santutegi bitartean, urbil dagon gazteluan, atxilotuta lez sartu eban.

Eta IVn Karlosek, emen euki ebazan Margalida Kolonegaz bere laztakerizko artu emonak, Margarita au, laguntasunezko andere lez ipini eutsolako.

1.459ko Urrillaren 28n eguna baiño ariñago, IVn Karlosek oartu zan Margalinda aurdun geratu zala, ta Mallorkako gotzai ta jaurlariari idatzi utsen eskutitz bat, gertakizun orreikaz arduratu egiezen.

Eta denbora baten barru, IVn Karlos jakin ondoren Mallorkako agintariak bete egin ebezala berak eskatu eutsezan ardurak, eskutitz au idazten dautse: *Agradecemos mucho lo que fecho haveys en recomendación de MARGARITA, la verdad de la cosa mostrara lo que haveys sentido de ella ser prenyada.*

1.459ko Azaroaren 22an IVn Karlos bere 38 urtegaz, Santueriko gazteluan atxilotuta egon zala, bere aita IIn Juaneri eskutitz baten bitartez parkamena eskatu eutson, eta emon eutsona.

Eta 1.460ko Epaillaren 20an IVn Karlos, bere aita IIn Juanegaz, Bartzelonan alkartu zan.

1.460ko Epaillaren 28an Baldonzellako lekaidetxean, Bartzelonako aolkulari nagusiengandik onartuta, Epaillaren 31n agintari lez, Bartzelonan sartu zan.

IVn Karlos Loraillean alkartu zan bere aita ta amaordeagaz Igualadan, eta ostera aurkeztu eutson bere aitari, berak, Gaztelako Isabelekin ezkondu gure ebalá.

1.460ko Bagillan, IVn Karlos eta Margalindaren seme Kolontar Kristobal jaio zan.

Eta 1.460ko Abenduaren 2an IIn Juan, bere seme IVn Karlosegaz Leridan egon ondoren, oartu zanean, Beaumontdar Juanek eroaten ebazan I Isabel ta IVn Karlosen ezkontzazko gora berak, Gaztelako IVn Enrikegaz euki zituzen elkarriketatik zelako garrantzi aundiak artuko ebezan.

IIn Juan eta Enrikeztar bere emazteak, I Isabel, bere 7 urteko Fernando semeagaz ezkondu gura ebalako, eroaldi gogor bat emon baetsen lez, bere seme IVn Karlos, atxilotu egien agindu eban, eta lenengo Lerida, Aitona, Fraga, Zaragoza ta askenez Mirabent ta Morellako espetxetatik ibili ebanean, txorakeri onen ondore, Kataluña ta Nafarroako erritar guztiak, IVn Karlosen alde matxinatu ziran.

Eta IIn Juanek, IVn Karlos semea ez eban askatuterik gura, arik eta onek, Aragoi ta Nafar erregezko izen-buruak ukatu arte.

1.461eko Otsaillaren 8an Kataluña osoa matxinatuta, eta matxinatuak IIn Juan ta bere emazte Juanaren atzetik ibilita, larri aldendu ziran oneik, matxintasunen eskuetan atrapauta ez geratzeko.

1.461eko Otsaillaren 25ean IIn Juan bildurrez, IVn Karlos aske itzi eban, erritarren poz aundiagaz.

Beaumontdarrak IIn Juan erregetzaren aurka matxinatuta, eta IIn Juanek Frantziko XIIn Luiseri beti lez laguntza eskatuz, IIn Juanen zorrak 200.000 urre-gorritzko otxin edo dolbaraiño igon ebelako, Frantziko XIIn Luisiek, Rosellon ta Zerdeñagaz geratu zan, zorraren baitura lez.

1.461eko Epaillaren 12an IVn Karlos Bartzelonara eldu zanean, erritarrak, goratzezko ongi etorri andi bategaz artu eban, eta elburu bat lez geratu zan, katalan ta baita beaumont-

tar Naparrentzat, II In Juan errege lez baztertzea, Rosellon eta Zerdeña, diruaren baituran itxi eutsozelako Frantziko errege XI In Luiseri, aitzakituz.

1.461eko Bagillaren 21ean IV n Karlos, Penedeseko Billafrankan egin zan elkargoagaz, ta II In Juanen seme nagusia izanda, Aragoi ta Kataluñan matxinatutako erritarrengandik ondorengo errege lez artu eban, eta Kataluñaren betiko ordezeko lez sinatu eban.

I Isabelekin ezkontzeko alegiñean IV n Karlosek, Gaztelako errege IV n Enrike Isabelen neba orde edo ugaznebagaz asi ebazan alkarriketak ostera, baiña II In Juan bitartean sartuta, ezereztu ebazan ongune guzti orreik.

2. 14. *Oartxo bat emen.*

Katalanak, II In Juanen seme IV n Karloseri egindako goratzezko ongi etorri oneik, bere baimenik gabe, asarratu eban II In Juan ezin besterarte, eta IV n Karlosek bere aita ta amaordearen aurrean belauniko, mendekotasunezko itxura aundienean parkamena eskatuta, danok pozik joan ziran Bartzelonara.

Bartzelonan egon ziranean baiña II In Juanek, atxilotu eban IV n Karlos, bere lagun berritzaille ona zanakin batera.

Orren atxilotasunezko bidetik, borroka sortu zan, eta II In Juanek astiñaldi ederra artuta, Nafarroara joan bear izan eban, bere emazte Juana, Kataluñako agintari lez itxita.

Eta Juana izan zan gero, IV n Karlos eta bere lagun berritzaille ona zainduko ebazanak, Bartzelonako errege jauregian, espetxeratuta egon ziranean.

1.461eko Iraillaren 21ean, IV n Karlos eta beragaz euken barritzaille lagun aundia, biak larritasun aundiz, gaisotu ziran batera.

Eta 1.461eko Iraillaren 23an, 40 urte, iru illabete eta 26 egun bete egingo ebazanean ilgo zan IV n Karlos, eta bere berritzaille lagun ona, urrengo egunean, Bartzelonako errege jauregian, IV n Karlosen ama-orde Enrikeztar Juanak, biak pozoituta.

IV n Karlosek, bere goi maillako jakintasunean, bost izkuntz, musika edo ta eresi arloetan jakin sakonak eukiaz gaiñ, edestilari ta elertizalea zan, baita Aristotelesekin idatzi ebazanek ekandu edo etikazko arloan gazteleratu be, Nafarroako erregearen kondaira, Exzelsiseko San Migel lekairtxeko mirariaren kondairak, eta elerti arauzko⁽¹⁾ idazki bat beste askoren artean, egin ebazan.

2. 15. *IV n Karlosek, euki ebazan alaba-semeak.*

1.439ko Iraillaren 31n ezkondu zan IV n Karlos Klebeseko Inesekin, Ines 1.448an ilda seme alabarik euki bage.

Ez zan ezkondu geiago, naita Gaztelako IV n Enrike erregearen I Isabel katolikua izango zanaren arreba ordeagaz, montio edo asmo batzuk egin arren.

II In Juan eta bere emazte Enrikeztar Juanak, asarre aundiekaz ezereztu egin eben, Isabel neska ori, euren Fernando semearentzat gure ebalako, IV n Karlos, Portugaleko I Eduardoren alaba Katalinagaz ezkontzeko alegiñetan ibilita.

(1) *Elerti arauzko idazki bat = obra literaria.*

2. 16. *IVn Karlos Bianako Printze onek, euki zituzen emakumezko maitaleak:*

-30 urtekin, Armendariztar Maria, bere arreba Leonorren neskamea zana, eta beragaz ezkonduko zala seme bat emoten ba eutson, esaten eutsona.

-Baita neska bat be euki eban, Nafarroa eta Aragoiko *Ana* deitu zana, 1.451-1.477 urte bitartean bizi, eta De la Bega ta De la Zerdatar Luis, Medinazeliko Vn Konde eta I Dukeagaz ezkondu zana.

-Napolesen egon zanean, Begako Bakatar Brianda andre ederragaz, ta bere bizi guztian Batzelonan il arte lagunduko eutsonakin maitemindu zan, eta beragaz euki eban Felipe semea, 1.456-1.488 urte bitartean bizi zan artean, Beauforteko Konde ta Palermoko gongotzai edo artx-apezpikua izango zana, askeneko lan au bete barik itzita, Bere osaba IIn Fernando katolikuak, Montesako nausigo edo zaldungo⁽¹⁾ ardurak bete egiezan eskaiñi eutsolako, eta Kordoba, moruetatik berrezkuratzen egonda, bertan il zana.

-Beste seme bat be Nafarroan bertan, Nafarroako Juan Alfonso, San Juan de la Peñako lekaretxearen apaizburu zana.

IVn Karlos ilteko larrian egon zanean, ta bere lagunak, De la Begako Briandarekin euken Felipe semea ondorengo lez izendatu egian ibili ziranean, bere arreba IIn Blankari iztea erabagi eban bere erregetzazko ondorengotasuna, ume ori ondorengotasun orregaz, anai arteko guda gorri baten erdian kokatzen ebalako.

-Sizilian, Kappa neskatxo xume bategaz be, euki eban beste seme bat, Juan Alfonso deitu zana, eta bere 1.459-1.529ko urte bitarteko bizitzan, San Juan de la Peñako lekaretxearen apaiz-buru izanez gain, Ueskako gotzaiña be izan zana.

-Bere serbitsuan egoneko, beste neska bategaz be maite mindu zan, Sayas´tar Giomar deitzen zana, eta beti urbil euki ebena.

Baiña guri arduratzen dauskuna, IVn Karlos Mallorkan egon zanean, Felanitxeko errian Anjoutar Renatoren serbitsura egon zan Kolon´tar Margalidarekin, 1.460ko Jorraillan euki eben Kolon semea da, Mallorkako Berd ta Martorelltar Gabrielen esanetatik, Amerikako lurralde zabalak azaldu edo argitan ipini ebazan Kolontar Kristobal izan dakoa.

Eta Kolontar Kristobalen gora beran iziltasunezko ongunde bat egon zalako, iñork ez eban aipatzen gertakizun ori.

Beste edestilari maltzur batzuk, edo katolikotasunean aberritutako batzangotasunaren, eritzi orregaitik atrapauta dagozenak: *IVn Karlos egi zalea izateagaitik, ez zala ostonduka ibiltzen zan gizona, eta ori kontuan eukinda, aur-galdu edo ta jaio barritan il zala ume ori esaten dabe, jakinda IVn Karlosek euki zituzen seme alaba guztietatik, lau onartu ebazala, eta Kolon´tar Kristobal euren artean dagoela.*

Baiña ez dabena esaten, Margalida bera, zelangoa zan gauza orreikaz, eta nortasunaren arloan, zelango zentzunagaz bizi zan berak egiten ebazanakaz, il edo ta bizi bazan ume ori guk jakin dagigun.

Edo ta Kolon, bere ama Margarita judu ondorengotatik agertu ezkeru, IVn Karlosen semea izanda, iruditu geinkez orduko denboratan sortuko ziran arazo gogor eta larriakaz,

(1) Montesako nausigo edo zaldungo = maixugo edo ikasketarako arduradun nagusia.

adibidez: *Kolontar Kristobal, IIn Fernando katoliku semeen istarlengusua*⁽¹⁾ zala, esatera-koan ?.

Pozoiak errez ibiltzen ebazan denbora aietan, eta laster konponduko ebezan arazo orreik, alango izkutuzko itzarmen gogor bategaz ez ba-ebazan isilduten.

1.461eko Iraillaren 23an, Bartzelonako errege jauregian egon zala il zan IVn Karlos 40 urte 3 illabete ta 26 egun euki zituzela.

Bere jauneko izen artean, Jaiotzatik, Nafarroa ta Aragoiko errege semea zan.

1.423ko urtean bere aitate IIIIn Karlos biotz onekuak, Bianako Printzerritasuna sortuaz batera, Nafarroako erritarrai aurkeztu eutsen Bianako printze lez.

1.439-1.461eko urte bitartean Gandiako Dukea izan zan.

Eta 1.458-1.461eko urte bitartean Biana eta Jeronako Printzea izanez gain, Montblankeko dukea be izan zan.

IVn Karlosen illetak, Bartzelonako Eleiz-Nagusian ospatu ziran, bere seme Nafarroako Felipe buru zala, eta 15.000 gizasemeen laguntzagaz.

Bere gorpua Eleiz Nagusi orreitan egon zan illobiratuta 1.472an, gero Pobleteko lekaide-txera eroan arte.

1.515eko urtean ango eleiztarrak *sainduetsi*⁽²⁾ lez izendatu gura eben, azkenean baiña, ez zan aurrera eroan.

IVn Karlos, aitagaz euki ebazan eztaibadagaitik ezagutzen da geien, bere bizitzan olan sortu ziralako gauzak, eta Gaztela ta Aragoiko gorteari begitu barik, atzeratuagoak izan ziralako, Frantziko gortera begituten eban, jakitunezko maillan, gizon andia izan zalako, eta bai lan ederraren babesle aundi bat, bere aitagaz euki ebazan eztabaida gogor orreik, bere jakintasunezko gauza oneik illundu arren.

2. 17. *Beaumont eta Agramontdarrak.*

Nafarroako gortean IIIIn Karlosek, bere suin Aragoiko IIn Juan zelakoa zan ikusi ondoren, eta bere ondorengo billoba, IVn Karlosek, ez egien euki arazorik, bere Nafar erregetzazko jaurkintzan, Bianako printzerria sortu eban.

Beaumont ta Agramontdarren sendi bi onen eztabaidak be, Nafarroako errege IIIIn Karlos eta bere alaba I Blanka il ostean asi ziran, I Blankaren gandik alargunduta egoan Aragoiko IIn Juan, edo IVn Karlosen alde alderdikidetu ziralako, eta biak gogorak izanda, Nafar erregetzazko eztabaida bidez, eriogilletasunezkoak izatera be eldu ziran.

1.456ko urtetik 1.507ko urterarte, Beaumontdar taldea, IVn Karlosen alde egon zan Beaumontdar IIn Luis Leringo Kondeagaitik bideratuta⁽³⁾, eta onen agintezko ardurapean egon ziran lurrak, Nafarroako Ipar aldea ta Mendebal erdi ingurukoakaz mugatuta egon ziran lurrakaz osotzen zan.

(1) *Istarlendusua* = *primo hermano*. (2) *Sainduetsi lez* = *honrrar como santo, o canonizar*. (3) *?ko urtetik, 1.508ko urteraino bizi zana, eta Nafar erregearen alde agertu zana, Biana-Lerin*.

Eta 1.451ko urtetik 1.488ko urterarte, II In Juanen alde egon zan Agramontdarren taldea alderantziz, nagusi maillan bigarrenekoa zan Peraltatar Pedro Santestebaneko Kondeak bideratzen eban, Aragoiko mosen izenagaz, ta oneik egoaldean, Ebro ibaiaren ur bazterrean ta ekialde erdian agintzen eben⁽¹⁾.

1.452ko urtean Pedro onek, Beaumontdarrak menderatu ebazan, eta Bianako Printzea atxilotu eban.

Gero ikusiko dan lez, talde biak alderdikidetatik aldatuko ziran, Bianako kondea Aragoiko II In Fernando katolikuaaren alde, eta Agramontdarrak Nafar erregearen alde, erlijio, ta gizarteko lege bideetan, naastetasun aundiagoak sortuta, Gaztelan Vn ta Aragoiko II In Fernandok, Nafar erregetza berekotu dagian.

2. 18. *Bizkaiko jauntzaren aria ostera artuta, 24n Bizkaiko jauna.*

1.454ko Uztaillaren 23an egin eben IV Enrike Gaztelako errege, eta Bizkaikoaren Orokozko Batzarrak, ille onen askenetan izendatu eben Bizkaiko Jaun lez.

1.455ko Otsaillaren 9an Gaztelarrak, Bizkaitar Batzarraren ardurapean egoan Bizkaiko idazkaria Etxeagatar Martin aldatu eben, eta Pedro Gomez de Sebillari emon eutson betiko idazkaritzaren ardurea, Bizkaiko Batzarra ta batzarkideak kontuan euki gabe.

1.455ko Epaillaren 4an, Gernikako Batzarraren aginduz, Garzia ta Salazarreko Lope ta beren seme Lope aita semeak, Abilan egoan IV Enrikerengana bialdu ebazan, IV Enrikeri esateko, Foruak agintzen eban lez, berak siñatzera etorri bear izan ebal.

Salazarreko Lope Garzia aita-semeak Abilan ez ebelako aurkitu, Sebillaraino joan bear izan eben IVn Enrike aurkitzeko, eta onek, une orreitan guda antolaketetan ibilita, ezin ebal joan, esan ondoren, 1.455eko Epaillaren 28an Foru Legeak baieztatzeko egin eben agiria sinatuazota, gure ordezkariak, umaje egin ondoren, etxera itzuli ziran.

1.455ko Loraillan IV Enrike Antxua esaten eutsonai, Kordoban ezkondu zan Portugaleko Duarte erregearen alaba, bere legusiña izan zanagaz, eta ezkontzaren bidez euki eben alaba, La Beltraneja esaten jakon, bere aita, Beltran de la Kueba zala esaten ebalako. IVn Enrikek, erregetzaren ondorengo izendatu ebana, bere arreba Isabelen aurka egiteko.

1.456ko epaillaren 4an, Gaztelako errege IV Enrikek, Bizkaiko jauntza ziñ egin barik artzeko ibili zalako, edo ta gudartean ibilteagaitik, mandio urdiñenak⁽²⁾ egiten bai beintzat egoalako, Gernikako Batzar Nagusiaren keiñaduragaz, beartuta etorri zan Gernikara.

1.457ko Epaillaren 2an IVn Enrike Gernikara joanda, Antiguako Amaren Eleizan, Erriaren Lur-Zelaiko Foruak zindu ebazan, ta ille orreitako 10ean Iribildukoak Bermion.

1.469ko urtean IV Enrikegaitik, Bizkaiko erri Iribilduen lurak saltzen ebillela surmurrua zabaldu zan, eta Bizkaitarrak erregeari, surmuru orrean argitasuna eskatuta, erregeak, Guzur andiak zirala esanda, bakeztu eben Bizkaitarren urduritasuna.

Bizkaitarrak, ez eben ontzat artzen surmuru ori buruz, IVn Enrikek esan eutsena, eta erregeak eskutitz baten bidez, ostera guzurtzen dauz Bizkaitarrak, Gaztelako erregearen asmo osoa, Señorioa zatitu eta alokatzea⁽³⁾ zalako.

(1) *Peralta-Tudela.* (2) *Mandio- urdiñenak = remoloneando.* (3) *Zatitu eta alokatzea = de acuerdo al sistema feudal vigente.*

Eta Bizkaitarrak batzartuta, erabagi au artu eben, *Jauntzar ori kentzea, eta Isabel⁽¹⁾ bere ugazarreba⁽²⁾ izendatzea.*

IV Enrikek ez eban onartu erabagi ori, ta lenengo maltzurtasunez⁽³⁾ jokatuta, larderiaz⁽⁴⁾ gero, eta 1.470eko Epaillaren 4an, bere errege aunditasunean Mungian galdu eben borrokagaz minduta, on artu eban, *Bizkaitarren agindua, beren gainetik egoala, eta euren eskue-tan bakarrik, Bizkaitar Jaunaren aldaketa.*

1.474ko urtean Abenduaren 11n, Madrillen egoala il zan IVn Enrike.

2. 19. 25n Jauna, Bizkaiko Jauntzan.

1.469ko Urrillaren 9an, Gaztelako I Isabel⁽⁵⁾ eta Aragoiko II Fernando⁽⁶⁾ Balladolizen ezkondu ziran.

1.473ko Iraillaren 15ean Bizkaitarrak, Gaztelako I Isabel eta Aragoiko II Fernandori, eskutitz bat bialdu eutsen esanez, *IV Enrikeren zintzotasunetik kanpo egon zirala, ezer ez ebalako jakin gura, euri emoneko itzagaz, maltzurtasunezko jokoan ibiltezan gizonarekin.*

Eta euren zintzotasunera aldatzen zirala egiztatzeko, *Lenago danak ilko zirala, eta bizirik geratzen ziranak lur onetatik alde egingo ebela, euren agindupetik kanpo geratu baiño len.*

1.473ko Urrillaren 14an, IVn Enrike il orduko, I Isabelek eskutitz bat emon eutsen Bizkaitarrai, Bizkaiko Foru Legearen askatasunak baieztatzen ebana.

1.474ko Abenduaren 11n il zan IV Enrike, I Isabel katolikoaren ugazneba zana.

1.474ko Abenduaren 12an, IV Enrikeren il otoizketak egin ziran.

1.474ko Abenduaren 13an, Fernando Aragoien egoala eta Isabel Segobiara joanda, gortearren aginduz, bertan izendatu eben Gaztelako erregeña.

Eta 1.475eko urtean Portugal eta Frantziaren aurka egin ebezan borroketan, an egon ziran Bizkaitarrak beti lez, Isabel ta Fernandori laguntzen.

1.475eko Iraillaren 20an Burgosetik Fernandok, irain ordeko⁽⁷⁾ agiri bat bialdu eutsoen Bizkaitarrai, IV Enrikerik *Judasen*⁽⁸⁾ izenagaz zelakotu ebazalako.

Eta emendik aurrera, ori ta merezimendu geiago daukelako Bizkaitarrek, Fernando ta Isabelek, bialdu eban eskutitz, agiri, norberaren agiri, lege berezi, ta albalaeko⁽⁹⁾ idazkiaren elburuetan, *Muy Noble è Muy Leal Condado* ipini egiala agindu eben. Fernandok au esanda urrengo egunean, Bilboko Iribildua, *Muy Noble y Muy Leal* izendatuta.

1.475ko Uztaillaren 7an, errege katolikoak Tordesillasetik agindu eben, Bizkaitarrak euren erritik kanpoko serbitzura joan bear izan ebenean, Foruak agintzen eban lez egin bear ebela, au da, gudariak erritik urten orduko ordainduak izan zitezela.

1.475ko Uztaillaren 27an errege katolikoak beste agindu bat emon eben Tordesillasetik Bizkaia ta Enkarterriko mariñelak, ez egiezala euren serbitzuak lurrean egitera beartu, Foru Legeak debekatu egiten ebalako.

(1) Isabel = gero katikoa izango zana. (2) Ugaz-arreba = hermanastra (3) Maltzurtasunez = con mentiras, engañosamente. (4) Larderia = con bravatas, amenazas. (5) Gaztelako I Isabel 1.451-1.504. (6) Aragoiko II Fernando 1.452-1.516. (7) Irain-ordeko eskutitza = carta de desagravio. (8) Judaseko izena = traidores. (9) Aalbalaeko = Eskutitz edo erregeak bialdu egiten ebazan txarletetan.

1.476ko Uztaillaren 20an Fernando, Bilbaora etorri zan Forua í zinez itza emoteko Isabelen ordez, eta Bilbaoko atean ziñ eginda, Larrabetzuko San Emeterio eta Zeledonon ziñ egiteko Eleizara joan ziran, ziñezpen orreik emoteko.

1.476ko Uztaillaren 30ean Gernikara elduta, Bizkaitarrak, Antiguako Santa Mariaren eleizan egon zirala, Fueroak ziñ egiazala eskatu eutsoen, eta Fernandok, orretarako etorri zala erantzun ondoren, *erreginagaitik be, ziñ egiten ebala, Bizkaitarrak berari emon dautseen laguntzagaitik ezkerdun dalako, eta sekula ez eutsela ertsitu edo estutuko eta gitxiago Fueroak autsi, ezereztu edo oinkatuko.*

Bizkaitarrak orren ostean, umajea oiturazkoa zan lez, Fernando, Gernikako Zuaiztpean dagon arizko alkian ezarrira, beren eskuak muinkatzera emon ebazan.

Eta askenez, Bermion ziñ egin eban.

1.476ko Iraillaren 25ean Fernandok, agindu bat emon eban, *Bizkaitarrak ezin dirala baitu edo atxilotu, errikoen artean eukiten ebazan ordaindubako zorrak gaitik.*

-Euskal berbea, egizko aintzakotzat euki ebalako ?.

-Gaur, Orejatar Martzeliñok, bardin esaten dau.

2. 20. *Fernando ta Isabel errege katolikoak, euki ebazan seme - alabak.*

-1.474ko Abenduaren 13an Isabel, bera erregiña izendatu orduko euki eban lenengo alaba, Isabel izendatu ebena, eta Portugaleko erregeagaz ezkondata 1.498an il zana.

-Bigarrena mutilla izan zan, Juanen izena ipini eutsoena, eta 1.497an Urrillaren 4an il zana.

-Iruigarrena Juana izan zan *Zoroo* deitzen eutsonai, Alemaniako Kaisarren seme I Felipe Ederra esaten eutsoenagaz, ezkondata.

-Laugarrena, Maria, Isabel bere aizta il zanean, Portugaleko erregeak, bere koñatua izan zanagaz ezkondu ebana.

-Eta bostgarren, Katalina, Inglaterrako Printze Arturogaz ezkondu zana, ta alargunduta, onen anai VIII Enrikegaz ezkondu zana.

1.483an Iraillaren 5ean, Isabel be Bilbora etorri zan, eta Tenderiako ateetan Foruei ziñ emon eutsen.

1.483ko Iraillaren 8an Isabel, Portugaletera joanda, Otxoa Ortiz de Montellanoren etxean, ostera zindu ebazan gure Foruak.

1.483ko Iraillaren 16an Larrabetzuko San Emeterio ta Zeledonoren eleizan.

Eta Iraillaren 17an, Euskaldunentzat Saindua dan Gernikako Zuaiztpean.

Durangora joan zan, eta bertan Tabira, Durango, Elorrio eta Ermu Iribilduaren Foru Legeai be ziñ emonda, eta erri orrein bost giltzak artu ostean, Durangoko Santa Maria Eleizan amaitu eban ziñ egite ori.

Emendik aurrera eta 1.526ko idatzitako Foru Lege barriaren IIgaiak alan eskatu, Bizkaira ez zan etorri Gaztelako erregerik ziñ egitera, goian esan dodan lez, eskutitz bidez bete egiten ziralako oiturazko arau orreik, gero Bizkaitarrak Gernikako Batzarrean irakurrita baieztan zana.

1.504ko Azaroaren 26an, 53 urte ebazala, Medina del Kanpon il zan Isabel.

Eta Bizkaian bere eriotzaren elizkariak eginda, Gernikan, Juana eta Feliperen jauntza baieztu zan.

2. 21. *Taket-arteko ondorio labur-bat, Bizkaiko Jauntza onetan.*

Naita denbora borrokatsuak izan, Isabelen Andre Jauntzan ikusten dogu, bata bestearen beartasunean eta itzarmen bidez, gure Foru Legeak indartu egin zirala, Bizkaitarrak eta errege Jaunak zentzun andiko leialtasunean jokatu ebelako.

Denbora iltzaile oneitan, Euskaldunak itzarmenekoak beti lez izan ziran, ta ikusi dogun lez, Gaztelar erregeak euren larritasunagaitik, Bizkaitarren arremanakaz, oartuta egon zirala.

Gaztelar erregeak gure Jaun lez, lurretik laguntza aundia euki ebalako, eta ez gitxiago mariñel ta itsasontzi egilletasunean, euskaldunak, oso trebeak izan ziralako, leialtasun aundia erakutsi eben Ansburgotar Austriako errege guzti oneik III Karlos be, artean dala.

Emendik aurrera baiña, bolbora edo lerrauts-gintzaren⁽¹⁾ obetzeak ekarri eben izkillu ta kañoi gintzagaz, Gaztelar erregeak gero ta indar geiagoagaz aurkeztuta, arrotzen asi ziran.

Eta bide batez 325ean Nizean erlijio lez asmatuta, katolikotasunean azpikeriz dogmatuta etorten ziran mendekotasunezko arauakaz errege lez, al-osokerian indartuz, itzarmeneko ekandutik urruntzen joan ziran, berezko edo jabedunezko erriak, ardura gitxiagotan artuz.

Eta orregaz batera, Gaztelako gorteak maltzur eta zitalkeri gogorrean asita, itzarmenaren zentzunezko aztarnak naastuten asi ziran, naita euskaldunakaz oraindiño, emoneko ziñ-itzak, begirun aundiagaz zaindu.

2. 22. *Bizkaitarrak, Jauntzagaitik ordaindu bear ginduzan dirutzak, Gaztelako erregeakaz itzarmentzen asi gintzazanetik.*

Bost ordain-legeak ziran oneik:

1a.) Erregearen ardurapeko erroldan egon ziran baserriak, lurra lantzen ebazanagaitik ordaindu bear ebezan zergak.

1.486ko itunezko atalaren gora beran⁽²⁾, diru zarreko maraurietan⁽³⁾ 100.000 izan ziran, edo 200.000 diru zurian.

2n.) Erri Iribilduaren eskariak deitzen ziran, zerga oneik, erriak eukan giza seme alabakaitik ordaintzen zalako. Erregearen emaitzako eskutitzetan esaten dan lez.

Asieratik ordaintzen ebezan erri Iribilduek:

16.000 diru zarreko marauriak ordaintzen ebazan, Bermio, Bilbao, Durango, Lekeitio, Ondarroa, Gernika, Plentzia, Balmaseda, Gerrikaitz, Markina, Elorrio ta Portugaletek, eta diru zurian ordaintzen zanean 302.000.

3n.) Bizkaiko burdiñ olatan egiten ziran arratz edo kintal bakotzeko, 16 mairu, diru zarretan izaten zanean.

Zerga onen ordainketa erreztu egiteko, enkantean saldu⁽⁴⁾ egiten ziran egineko lanak, eta irabazten ebanak, orokorrezko erri diru zaintzan, 180.000 bellongo marauri ordaintzen

(1) *Lerrauts-gintzaren = fabricaci3n de la polvora.* (2) *1.486ko itun-atalaren gora-beran = segun el capitulado de 1.486.* (3) *Maraurietan = maravedies.* (4) *Enkantean Saldu = rematar, licitar las compras.*

ebazan, eta bertatik ordaintzen zan zuzendaritzaren⁽¹⁾ lan saria, 1.715ko urtean, 62.000 marairukoa zana.

4n.) Bizkaiko Jaunak emoneko erri eskutitzetan agintzen ziran lekaidetxearen amarrenak.

5n.) Iribilduaren buruzagiari ordaindu bear jakiezenakaz.

Oneik dira Bizkaiko jauntzan, euren ordainketarako euki eben eskubide bakarra, naita Bizkaiko Jaunengaitik izaten ziranean, eta baita gure jauntza, Gaztelako erregeen eskuetan ezarri zanetik.

Eta ordaindu bear zan diru guztiaren kopurua, 616.532 marauri izaten zan.

Gaztelako erregetzaren eskuetan jausi gintzazanetik, erregetzaren zerga sariak deitu ziran, ta erregeak zergazko sari ortatik, gudarako bear ziran aiztamakil, balesta gezilari ta bear ziran beste izkilluaren ordainketak egiten ebezan.

Ainbesterako emoten eban Bizkaitar leialtasunak.

2. 23. *Nafar erregeen aria ostera artuta, Nafarroako I Leonor.*

Nafarroako I Leonor, Ebrox eta Trastamarako leiñutik etorrena zan, Nafarroako I Blanka erregeña, ta Aragoiko errege seme II n Juan bitartez, ezkontza orren laugarren alabea izanda.

1.426ko urtean Otsaillaren 2an jaioa, Oliteko errege jauregian.

Nafar Aragoiko erregeen alaba izanez gaiñ:

-1.441ko urtetik 1.472ko urteraiño ezkontza bidetik, Foixeko Konde Andrea.

-1.462ko urtetik 1.479ko urte artean, Nafar jaurlaria.

-Eta 1.479ko Urtarrillaren 28tik Otsaillaren 12rarte, Nafarroako erregeña.

2. 24. *I Leonorren ama-aita ta neba-aiztaren eriotzak.*

1.425eko urtean Dagonillaren 22an il jakon bere aizta nagusi Juana.

1.425eko urtean Iraillaren 8an, bere aitite III n Karlos, Ona ta Argitsua izan zana.

1.441eko urtean Jorraillaren 1ean il jakon bere ama I Blanka.

1.461eko urtean Iraillaren 21ean il zan, bere ama ordea edo Enrikeztar ugazamak pozoituta, bere neba nagusi IV n Karlos.

1.464ko urtean Abenduaren 2an eta bere aitak pozoituta au be, bere aizta II n Blanka.

1.468ko urtean Otsaillaren 13an eta bulerreko min-biziaren gaixotasunagaz, bere ugazama edo ama-ordea, Fernandez de Kordoba eta Enrikeztar Juana.

Eta 1.479ko urtean Urtarrillaren 20an 83 urte euki ebazala, bere aita, Aragoiko II n Juan.

2. 25. *I Leonorren bizi kondaira.*

Erdiugarte edo peninsula onentzat, ta Nafarrantzat batez be, ekandubageko goibeltasun eta ekaiztsuzko denborak ziran oneik, Nafar erregetzaren irauntasuna amaierara bideratzen ebazanak.

(1) Zuzendaritzaren = corregidor.

Erregetasunezko legeari lotsa galduta, etorkizunerako iru gauza argitzen ziran:

Nafarroa, Aragoi edo Gaztelarpean menderatuta geratu.

Gaztela ta Aragoitarrak bat eginda, ego aldeko Nafarroa mendean artu.

Eta Auñamendiak berezko muga baten antzera geratuta, Frantziko erregetza iparreko Nafarroagaz jabetu. Geroago sortuko zana.

Leonor, Nafarroako I Blanka eta Aragoiko II In Juanen alaba gazteena zan, 1.425ean Iruñean jaiio eta bere aita 1.479ko Urtarrillaren 19an il zanean, illa orren 28an ezarri eben errege-aulkian, bere ugazanai⁽¹⁾, Aragoian II Ina eta Vn Gaztelakoa izan zan Fernando katoliko⁽²⁾ laguntzagaz.

1.427ko urtean Dagonillaren 9an, eta bere aita II In Juanek, IVn Karlos eta II In Blanka bere seme-alabari, bera baiño len, Nafarroako erregeak izateagaitik, euki eutsoen gorroto bidez, II In Juanek, bere Leonor alaba txikerra kutun lez artuta, panpiña bat lez ibili eban bere seme IVn Karlos eta II In Blanka alabaren aurka, Leonor, Nafar erregetzaren ondorengo lez izendatuta, IVn Karlos eta II In Blanka ostean.

1.434ko urtean bere aita ta bere ugazamak, Foixeko Gastonekin itzarmendu ziran, euren ezkontza antolatzeke.

Eta 1.436ko urtean Uztaillaren 30ean zinatu eben euren ezkontza, I Leonorrek Aragoi aldetik, Miranda, Larraga eta Falzeseko Uribilduen zergako kopurutik, 50.000 floriñezko dirutan artuta.

1.442ko urtean bere ama I Blanka il ostean egin eben benetako ezkontza eta Bearnera joan zan bizitzen bere senar Foixeko Gastonegaz. Eta Biarnon bizitzen egoala, euki zituzen Frantzisko Febo ta Katalin seme-alabak.

1.455eko urtean II In Blanka, bere neba IVn Karlosekin batera, bere aita II In Juaneri, Nafar erregetzan eurak euki ebazan errege-erregiñ izateko eskubideak eskatu eutsoezan, eta onek, ondorebage biak itxita, 30 urte ebazala Leonor irugarren alabea eta bere senar Foixeko kondea, Nafarroako gorteak beartuz, Nafar erregetzaren ondorengo lez izendatu ebazan, Nafartarren arteko anai-guda sortu ebena.

1.462ko urtean Jorraillaren 12an eta etorten ziran anai arteko guda onetatik, Martin eta Peraltako Pedro Agramotdar nagusien jaurkintza oztopotuta etorten zalako, II In Juanek, bere alaba I Leonor eta bere suin, Foixeko Gaston kondeagaz, Oliteko itun edo elkargoa izenpetu eban.

Eta agiri orreitan II In Juan, Nafar errege lez onartu, eta ondorengo lez I Leonor izendatu eban lez, IVn Karlos Iraillaren 21ean pozoitu ebenetik ilda, II In Blanka kendu bear zan begiko ikusmenetik, eta II In Juanek, II In Blanka bere alabea, bere suin Foixeko kondeari eskuratu ostean, Gastontar Juan eta I Leonorrek, euren Monkadako gazteluaren dorrean atxilotu eban, eta II In Juanek Dagonillaren 2an, pozoitzeko agindua emonda, il eben II In Blanka.

1.464ko urtean il zan II In Blanka, Nafarroako I Blanka eta Aragoiko II In Juan iltzaillearen, bigarren alaba.

Beaumontarrak baiña, IVn Karlos eta II In Blanka il ziranetik, Leonorrek aitaren alde egi ten eban lez il zan arte, ia ezer babesteko argibide edo arrazoi barik geratu ziran, apurka apurka II In Juanen zerbitzura aldatuta.

(1) Ugazanai = Hermanastro. (2) Fernando katolikua = 1.452-1.516ko urte artean bizi zan.

Guzur ta Maltzurrezko eginkizun auetatik I Leonorrek, Nafar erregetzaren ordaritzza edo ordaintza⁽¹⁾, berentzat artu edo jabedun lez geratu eban.

Eta Kanpion tar Arturok esaten dauan lez:

1.462ko urterako IIn Juanek bere emazte Juanagaz batera, Fernando katolikoa euren seme txikerrena euki ebela gogoan, Nafarroako errege izendatzeko.

1.463ko urtean, I Leonorrek, Beamontesakin izenpetu eban gudaren bake uanean.

Bere bete ezinezko andinaikerian, babes billa, edo bada ezbadan bere aitaren jokoetatik al-
dendu ez egiteko, ibili ebazan izen buruak, oneik izan ziran:

-Nafarroako erregetzaren ondorengoa.

-Aragoi eta Siziliako erregeen-alaba.

-Foix eta Bigorrako konde Andrea.

-Bearneko Jaun Andrea.

-Eta IIn Juan Nafarroako errege lapur eta maltzur aundiren orokorrezko-ordezkoa⁽¹⁾.

Une onetan ezan leike konturatu zala, bere aitaren ondorengotasuna ez zala Nafar erregetzaren eskubidekoa, edo ta lengotik konturatuta egon bazan be, ondo ostonduta eroan ebena bai.

1.467ko urtean Tafallan, I Leonor eta Beaumontdar kondestableen alegiñaren bidez geldi-une edo bake-une bat egin eben. Bereala asi ziran borrokan baiña, I Leonor, Beaumontdar guda indar babesera alkartuta, eta bere aita IIn Juanek, Peraltak bideratzen ebazan Agramontesarekin.

Eta emen aldatu ziran Beaumotdarrak IIn Juanen alderditik, I Leonor benetako Nafar erregeiñaren alde, ta Agramondarrak, Nafar benetako erregegandik, indar-lapur edo ta kentzaillea izan zan Aragoiko IIn Juanen alde.

Beaumontdarrak eta Agramontdarrak, eriotzaraiñoko etsaiak izan ziran, eta Aragoiko IIn Juanek, Agramondarrak oparitu ta abegi onean erabilten ebazan, bere alboan eukiteko.

1.468ko urtean IIn Juanek, I Leonorren aolkularia zan Txabarritar Nicolás Iruñako go-tzaiña il eban, I Leonor, bere orokorrezko ordearen arduratik⁽²⁾ kenduta eta bere seme Gastonen izenean ipinita, Nafar gorteko naste-borrastea azkeneraiño eroan ebena.

1.470eko urtean baiña, Gastonen eriotzak, ordearen orokorrezko ardurari, bere lekura eroan eban eta oraingoa betiko, I Leonor izendatuta Nafarroaren ordezko nagusi lez.

1.471ko urtean Aragoiko IIn Juanek baiña, ukatuazo egin eutson I Leonorri, eukezan Aragoiko erregetzaren eskubideak, len artu ebazan Nafarroako ordezkoaren truke.

1.472ko urtean Uztailaren 10ean il zan, Foixeko Gaston, bere emazte I Leonorri laguntza ekarten egoala, eta larrialdi aundi baten sartu zan Nafar erregetza, Frantzia, Aragoi eta Gaztelakoak egiten eutsezan guda keiñu edo meatxuakaz.

1.479ko urtean Urtarrillaren 1ean il zan Aragoiko IIn Juan errege maltzur au.

Eta 1.479ko Urtarrillaren 28ko urte berean, Tudelan izendatu eben Nafar erregeiña lez.

1.479ko urtean Otsailaren 12an il zan I Leonor.

(1) *Ordaritzza edo ordaintza = Lugartenencia. Lugarteniente general por el serenísimo rey mi muy reduplicable señor e padre en este su reino de Navarra.* (2) *Lugartenencia del reino.*

I Leonor erregiña egin eta amabost egun barru Tuteran il zan, eta beren azken naian: *Bere anai IV Karlos Bianako Printzearen eskubideko jabe bideak eskatu ebazan bere ondorengotasunentzat, Nafarroako erregetza, bere seme Frantzisko Feboren arduran itzita.*

Eta laguntzaren billa joan bear baeben, Frantziako erregetzara joan zitezela, aolkua emon eban.

2. 26. *Nafarroako Gazteluak ezereztuten.*

Saldukeri ta judaskeri geiegiak gon ziran orduko denboratan, eta Trebiñoko Laratar Manrikeri, Pedro kondea, ta Gipuzkoako Oñazekoak alkartuta, Nafarroaren mugaldekoak, bai eta Lekunberri, Leiza ta Gorritiko gazteluak ezereztu ebezan.

1.472ko urtean Dagonillaren 2an, I Leonor Nafar erreñu osoaren eskubideko erregiña zanak, ordezkotzako jaurkintzan aginduta⁽¹⁾, agiri gogor bat atara eban, Leringo kondea, San Juaneko lekaidea, eta Luxako Jaun Beaumontdarrak eriotzara ta ondasunaren baitura zigortzen ebazanak, aurrerantzean eta azkenerarte, Beaumontdarrak Fernando katolikoa-ren aldera aldatuta.

Ortik aurrera, Nafarroako erregeak askatasunekoak ba ziran be, saman Beaumontetarren lepokoa eroaten eben, Fernando katolikoak ondo erabilten ebana.

Eta Beaumontesak ekarri ba ebazan bere aldera Fernando katolikoak, ez eutson nazkarik emon, bere etsai aindiaren Peraltatar Pedoren agindutara egon bearrak.

Beste aldetik, Frantzian Laterrizko jabetasunak euki ebezalako, Frantziko erregearen agindutara egon bear ziran. Geiago, Foixeko leiñuaren ondorengoak, etenbageko auziketari ibili ebezalako.

Nafar erregetzan, etenbageko borrokan ibilteagaitik anai artean, eta Frantzia, Gaztela, ta Aragoitarrak keiñatsu, Nafar erregetza ezereztuteko alegiñean ibilita, orren zalantzazko oreka-larrian bizi bear izan zan beti. Nafartar erreñuaren eriotzea, Aragoiko IIIn Fernandok, oreka orreik apurtu ebazanean sortuta.

Euren jarduera une orreitan, eta iru errege etxe orreïn lurralde-jeografikoak beartuta, Nafartarren bakea beti, Frantzia, Gaztela ta Aragoiko bakearen mendepan egon zan, arin apurtzen zana, iru erregeetxe orreik, Napoleseko erregetza, euren errege jabetzazko atzean ibili ziralako.

Emen ikusten dogu argi, IIIn Juanek, Enrikeztar Juana, bere bigarren emazteagaz batera, eukezan benetako ta ordezeko seme-alabaren arrazoiz, gure naiez aukeratzen ebezala Nafar anai arteko gudak beti, Nafar erregetzazko eskubideak, euren kasketaldietan tronkaleko errege jabetzatik moztu edo aldatu egiten ebezalako beti.

Goian esan dodan lez, biak goi-zale edo ta bete ezinezko gosezkoak ziran, berezko edo eskubideko legetik urrunduta, IIIn Juanen lenengo ezkontzako seme-alaben pozoitasunak, bere emazteagaz batera agindu ebezalako, eta ainbat maltzur ta guzurrezko gauzak egin, Nafar erregetzaren lapurketa eginda eta Aragoiko mendean geratuz, Nafartar erregetzaren koroia, euren seme Fernando kutunaren buruan ezartzeko.

1.512ko urtearen une aretan IIIn Fernandok, ez eban Nafarroa menperatzea aukeratu.

Goiko kondairan esan doten lez, IIIIn Santxo Garzez Nafar errege Aundiak, Gaztela ta Aragoiko konderririk bere semeen artean bananduta, errege maillara igon ebenetik, katoliko aberkuntzan batzangotzeko eritziak, euren eskomunikatuko legeen aritik, beti ibili ziralako, Nafar erregetzazko menpearen billa, bere koroagaz geratzeko.

(1) Ordezkoztzako jaurkintzan aginduta = Mandando como lugarteniente general del Reino.

2. 27. *I Leonor eta bere senar Foixeko Gaston kondeak euki ebezan seme-alabak.*

-1.444ko urtean jaio eta 1.470ko urtean Azaroaren 23an Liburneko urian il zan Gaston, Bianako printzea eta Kastelboneko bigarren kondea izanda, Frantziako VIIIn Karlosen alaba, Madalena ezkondu zana. Beren seme alabak, Frantzisko Febo eta Katalina ondorengo lez, Nafar erregeak izan ziran.

-Pedro, 1.449ko urtean Otsaillaren 7an Pau'ko urian jaio ta 1.490eko urtean Dagonillaren 10ean Erroman il, Arleseko gongotzain edo artx-apezpikua zana.

-Juan, 1.450ko urtean jaioa eta 1.500eko urtean Etanpes'en il. Etanpes'eko kondea eta Narbonako bigarren kondea izanda, Frantziko errege XIIIn Luisen arreba Orleans'eko Mariagaz ezkondu zan, eta euki ebazan seme alabaren artean, IIIn Fernando katolikua bigarrenez, Foix'eko Germanagaz ezkondu zana zan, Nafar erregetzazko eskubideak, bere emaztearen bidez eskatuta Nafar gortekoari.

-Maria, 1.452ko urtean Karkasonan jaioa, eta 1.467ko urtean Kasalen il. 1.469ko urtean Montferrateko markesa VIIIIn Gillermogaz ezkondu zan.

-Juana, 1.454ko urtean Paun jaioa, eta 1.476ko urtean Paun il, Armagñak'eko kondea Vn Juan'egaz ezkondu ta egon zana.

-Margarita, 1.458ko urtean jaio ta 1.486ko urtean Loraillaren 15ean Klissonen il. 1.471eko urtetik, Bretañako IIIn Franziskogaz ezkondu ta. Bere Ana alabea, Bretañako Duke Andrea zan, eta birriten Frantziko erregina, VIIIIn Karlos eta XIIIn Luis Frantziko erregeak ezkondu ta egon zalako.

-Katalina, 1.460-1.494ko urte bitartean bizi zana, eta 1.469ko urtetik, Kandale ta Benaugeseko kondea, Foixeko Gastonegaz ezkondu zana.

-Isabel, 1.462ko urtean jaioa ta 1.479ko urtearen ezkeroz il zana. Ponseko jaun Guy'egaz ezkondu ta egon zana.

-Ana, 1.464ko urtean Urtarrillako illean Iruñian jaioa, eta 1.464ko urtean Urtarrillaren 3an Iruñian il.

-Leonor, 1.466-1.480ko urte bitartean bizi zana, eta Medinazeliko dukeagaz ezkontzeko egonda, ezkondu baiño len il zana.

-Jaime, 1.470-1.500eko urte bitartean bizi zana, eta Kortés eta Montforteko kondea izanda, Ezpeleta ta Peraltatar Pedro⁽¹⁾ ta Foixeko Isabelen alaba zana, bai bere lengusiña zan Peralta eta Foix'tar Anagaz ezkondu zana. Eta bere emazte, Foixe'ko Isabelegaz bakandu⁽²⁾ zanean, Lerin ta Beaumont'tar Luis'en alaba Beaumont'tar Katalinagaz ezkondu zan.

2. 28. *Bizkaiko Jauntzaren aria osterata, 26n Bizkaiko Jauna.*

1.504ko Zemendiaren 26an il zan I Isabel katolikea, eta Gernikako Batzarrak, bere arima-gaitik il-otoizketak egin da, illaren askenean bere alaba Juana⁽³⁾ ta I Felipe⁽⁴⁾ Ederra suñe, izendatu ebazan Bizkaiko jaun lez, 1.516rarte iraun ebena.

2. 29. *I Juana, Zoroa esaten eutsoenaren, bizi kondaira laburra.*

1.479ko urtean Azaroaren 6an, Toledon jaio zan I Juana au.

(1) Ezpeleta ta Peralta'tar Pedro = Mosen Pierres "el joven". (2) Bakandu = separar, desunir, divorciar. (3) Juana la loca = 1.479-1.555. (4) I Felipe "Ederra" = 1.478-1.506.

1.555ko urtean Jorraillaren 12an, Tordesillasen II zan.

1.504ko urtetik, 1.555eko urtean il zan arte, Gaztelako erregiña izan zan I Juana.

Eta naiz ta, 1.506ko urtetik erregiña lez ezer ez egin, arik eta Aragoiko IIn eta Gaztelako erregetzan Vn Fernando bere aitak, eta baita gero bere seme Ganteko I Karlosek, 1.509ko urte ezkeroztik beren eriotzerarte, Tordesillaseko dorrean zigortu ta bazterreratuta, zoratu lez euki eben erruz, guk, gure Bizkaiko Jauntzaren edestirako, agiririk aurkitu ez.

Zergaitik baztartu eben baiña, zoratuta egoalako, edo, 1.495eko urtetik aurrera, berak erlijio katolikoan euken siñeskaitzagaitik, jazarkundetuta edo erasotuta, aidian ibili ebalako ote zan ?.

Bere senar I Feliperen Aleman erritarrak, norkeritsu bidetik, jailari edo ta erlijiozko arloetan ez ziran sartzen, edo ardura gitxi eukiten ebana bai beintzat, erdiugarte onen errigizartee-tan, gotzai. abade, lekaide, lekaimeak euren katolikotasunaren erlijiozko legeen itsutasuna-gaz, sartzen ebazan estukuntzaren aurka.

Lutero, orren denborakua da, eta orrek zeozer esangura dau.

I Juana, balekite erlijioaren aldeko estukuntzagaitik gogaituta, ez zan aitortza ta Mesa Santurik entzuteko zale.

Eta ekintza orrek bakarrik, bere fedearen zaintzazko abade ta lekaideak zoratuta ekarten ebazalako, bai beren aita ta semeen aginduz, gauza bi orrek ez ba ebazan beteten, ziper edo oñazeko zigorragaz be alegindu ziran.

Batez be, luze eta gogorrak izan bear ziran, Sandobal ta Rojastar Bernardo, Lermako dukea, eta bere emazte Medinazeliko dukearen alaba, Zerdako Katalinarenak, Deniako markesak izanda eta Juana euren agintako zainpean egonda, markes auek zigorraren keiñadagaz, egunero antolatatu egiten eutsoezan erlijiozko egitaruak betetako.

Bere ama I Isabelek beintzat, ixiltasunaren ezkutuko agindua emon eban, I Juanaren erlijiozko gora bera orreintzat.

Zoratuta egon ote zan I Juana ?.

Zergaitik, bere Fernando aita eta bere seme I Karlosek, erre egin ebazan I Juanaren agiri guztiak, beren lorratz edo arrastorik ez daiten geratu ?.

2. 30. *I Juanak euki ebazan aundiki izenak.*

-Aragoi eta Gaztelako errege alaba.

-Austriako artxiduke andrea ; Borgoña ta Brabanteko dukesa ; Flandeseko kondea ; Barzelonako kondea .

-1.504-1.555ko urte bitartean, Gaztela, Leon, Galizia, Granada, Sebilla, Murtzia, Jaen, Kanariaseko ugarte ta Mendebaleko Indiaren erregiña. Eta Bizkaiko Jauna, Gaztelako erregetzagaz batera emon jakona.

-1.515-1.555ko urte bitartean Nafarroako erregiña.

-Eta azkenez, 1.516-1.555eko urterarte, Aragon, Balenzia, Mallorca, Napoles eta Siziliako erregiña.



2. 31. *I Juanak bere senar Anbsburgoko I Felipe Ederragaz euki ebazan seme alabak,*

-1.498-1.558ko urte bitartean bizi zan Leonor, Portugaleko I Manuel erregeagaz lenengoz ezkondu, eta I Manuelen eriotzaren ostean Frantziko I Frantziskogaz ezkondu zana.

-1.500-1.558ko urte bitartean bizi zan Karlos, 1.516-1.556ko urte bitartean Gaztelako errege I Karlosen izenagaz. Eta 1.519-1.558ko urte bitartean, Europako Kaisal-Erri-Santu Aundienaren Kaiserra, Vn Karlosen izenakin.

-1.501-1.526ko urte bitartean bizi zan Isabel, Dinamarkako IIIn Kristianekin ezkondu.

-1.503-1.564ko urte bitartean bizi zan Fernando, eta bere anai I Karlos il zanean, Europako Kaisal-Erri-Santu orren Kaiserra.

-1.505-1.558ko urte bitartean bizi zan Maria, Ungria ta Boemiako IIIn Luisegaz ezkondu, berau il zanean beko-laurralderriaren jaurlari izan zana.

-1.507-1.578ko urte bitartean bizi zan Katalina, Portugaleko IIIn Juanegaz ezkondu zana.



2. 32. *Nafar Ego-aldeko menpetasunaren edesti laburra, Bizkaitar Jauntzaren kondaira onetan.*

1.504ko Zemendiaren 26an Isabel katolikea il zanean, naita IIIn Fernando berak ikusi, Gaztelako jaurkintza bere alaba Juana ta Juanaren senar Austriako I Felipe ren eskuetan itzi bear ebala, Gaztelako gorteak, Aragoiko beren erreinura bialdu eben IIIn Fernando.

Gaztelako gortekoak, ez eben jakin zer egin eben, ez ziralako konturatu, zelangoak ziran IIIn Fernandok eukiten ebazan asarreak.

IIIn Fernando, laster asi zalako alegintzen, Gaztelako errege oneik, zelan baztertu.

1.505ko Urtarrillaren 23an Fernandok, Toroko gortetan Juanaren zorotasuna azalke ratu eban eta Isabelen azkenaiaren agindutik, Gaztela ko erregetza berak zuzendu bear ebala, esan eban.

1.505eko Urrillaren 12an, Aragoiko IIIn Fernando bere suin Felipe, ikus-eziña alde batetik, eta bestetik, Frantziako errege XIIIn Luisek, Felipe artxidukearen al izan edo bera izan zana nagaitik bekaitz euki ebalako, biak alkartu ziran.

Eta baita biak batzartuta, Bloiseko elkargoa ospatu, IIIn Fernandok bigarrenez, Foixeko Germanagaz ezkontzeko onartu ebana, Frantziko errege XIIIn Luisek.

Denbora oneitan, Frantziko errege XIIIn. Luisek, ondo egiten eban berba, beren lengusu Beaumonteko Luis Leringo kondea eta Nafarroako kondestablegaitik.

Egia baiña, Leringo konde Luis onek, beren obekuntzagaitik itz ustelekoa izanda, bardiñ konpontzen zala Frantziko naiz Gaztelako erregeakaz, Nafar erregetzaren aurka jokatzeko. 1.505eko urtean Urrillaren 19an, Foixeko Jermanak 18 urte eukezala eta II In Fernandok 53 urte, ezkondu ziran ordezko legean.

Ezkontza onen bidetik, II Fernandoren emazte Jermanari, Napoleseko ondorengotasuna emon eutson Frantziko erregeak, eta Fernandori Jerusalemeko errege izena, Jermana ilten zanean, ostera itzuli bear ebena Frantziko erregetzara.

Ezkontza onek, larritu eban ezinbestearte Gaztelako gortea eta geiago, 1.509ko urtean Jermana bere emazteak, bigarren seme Juan emon eutsonean.

II In Fernando katolikoen seme Juan au, jaiotzatik ordu gitxira ez bazan il, Aragoiko errege izendatuko eben, I Felipe Eder eta Juana bere emazteari II In Fernandok, Aragoiko erregetzaren ondorengotasunezko bideak moztutearren.

1.506ko Bagillaren 27an II In Fernandok, Gaztelako erreinua ezinezkoa zala beragabe bide-ratzea ikusi ondoren, bere suin Felipe Ederragaz Billafafilan batzartuta, alkargo au sinatu eben: ***I Felipe ederraren emazte Juana Gaztelako erregiña, bere zorotasunezko gaixotasunagaitik, erregetzazko zereginetatik alboratzea.***

Denbora onetan, II In Fernando katolikua izar eta indarrak itxura baten berantza joan ziran, eta Frantziko errege XII In. Luissek, gero ta jokabide txarragoan artzen ebazan Nafarroako erregeak.

1.506ko Dagonillaren 27an, I Katalina Nafar erregiña bere senar Albrit'eko Juanegaz, Balladolizgo Dueroko Tudelan, Gaztelako Juana ta Felipe-Ederragaz batzartuta, barneko adiskidetasun ta bekearen itun bat sinatu eben. Nafarroako erregeentzat ain ongari izan zana, baita Gaztela, Ingalaterra ta Erromako Aita Santuaren adiskidetasuneru urbiltzen ebazalako.

Fernandok, sekula ez eutsen parkatuko Nafar erregeai, berari ezetza emonda, beren lepo gañetik Gaztelar erregeakaz egindako itun ori.

Eta naita, II In Fernandoren maltzurrezko gaiztotasuna danak jakin arren, baita berak euki ebazan maltzurtasunezko asmoak izkutatzeko, Napolesera joanda, norik susmatuko eban: ***1.506ko Iraillaren 25ean, pozoituta ? I Felipe-Ederra ilgo zala, eta Juana zoratu lez bazartuta, Gaztelarren antzoki nagusian, Fernando katolikua agertuko zala, antzezleri nagusi lez ?.***

1.506ko urte onetan, II In Fernando katolikua indarrez barriztuta, eta bere maltzurrezko alegin bidez, Nafarroan anai arteko guda biztu eban.

1.506ko urtean Gaztelako gortearen jabetzazko eritzian, garrantzi aundiko gauza bat sortu zan, euskaldunak emen kontu aundiagaz argitu bear doguna.

Gaztelako gortetan Euskal Bizkaitarrai, ez eutsiela sartzen itzi, berba auek esanda: ***“PORQUE (ERAN O) SON GENTES, DE ESTADO SEPARADO”.***

Esan orreik, eurak bakarrik adierazten dabe, Euskaldunek egiten ebezan itzarmenak, aukeratu egiten ebazan Jaun erregeekin bakarrik egiten ebala, eta ez Gaztelako gortekin, gu nortasunezko erri bat izanda, gure batzarrak Gaztelako erregea, akuratu edo alokatu egiten gendulako, epaikaritzazko zeregiñak, artekaritzazko lanean itzalez bideratu egiezan.

Eta gure jauntza aldi orretan Gaztelako erregearen eskuetan egon arren, erregearen pertsunagaz egiten zala itzarmena, Gaztelako gortearen eragipenetik kanpo.

1.506ko urtean Agorrellaren 27an gaztelatar errege oneik Fernandok ezer jakin gabe, Nafarroako erregeak azkidetasunezko alkargo bat sinatu eben, eta ortik ikusiko dogu zelakoak ziran Fernandoren asarreak.

Fernando bitartean, Foixtar Jermanarekin ezkondu zan eta seme bat euki eben.

Felipe Eder onek, ur apur bat edanda il, eta Juana zoratuta egoalako, Gaztelako aberrikoiari ikaragarriko urduritasuna sartu jakien, In Fernandok zer egingo ote ebanagaz bildurtu arte.

Eta Jermana ta bai semea il ziranean, Gaztelarrak Fernandori deitu eutsoen, euren erregetzaren ordezkotzagaz arduratu zedin.

I Felipe Eder erregea il da, frantzez eta gaztelartean gudaren keiñadura sortu zan⁽¹⁾, eta Fernandok orren egoeraren unetxoa gozatu eban, len Juana ta Felipek egin eutsoen narga, urruin edo muziñagaz⁽²⁾ naparrak zigortzeko.

1.512ko urtean Uztaillaren 21an Alba dukearen guda indarrak Iruña aurrean geratu ziran, eta iñungo borrokarik gabe, 25eko egunean Albako dukeari emon eutsoezan uriko giltzak.

Goian aipatu dogun lez, In Fernandok *euskal baita* apur bat oraindiño eukela ziurtzeko esan bear dogu, Fernandok nai ta gudak emoten dauan txar edo okerreko eskubideak ezarri beren ekintza nafartarrakin, Done Fransizko Xabierren aitari, Nafar erregezko legearen aldekoa, gorputz ta arima guztiagaz izan zanari, il arte itzi ebal begionez, Nafar erregetzan euki eban aolkularitzazko lanaren zeregiñetan.

2. 33. *Ondorio laburra, Bizkaiko Jauntza onetan.*

Gaur lez, eta Nizeako batzarretatik, beti euki dabe Euskalerriko erreñu-jauntzaren aurka, katoliko maltzur joko ori, eta gaur orduan lez, ezer ez dabena argitu edo erabakitzen.

Dana dala, In Fernando katolikuak azkenean guzur utsez eta Aita Santuaren laguntzaz, nafartarrakaz nor geiago dala, Nafarroaren Auñamendiko Egoaldeagaz geratu zan.

1.513ko urtean Nafarroako gorteak, In Fernando katolikoa errege izendatu ebenean, or ibili giñan Bizkaitar, Giputzak eta Arabarrak naspilduta Nafarroako erreñuaren aurka, ba-koitzak bere Batzar Nagusi bidetik gaztelatarrakin euki genduzan itzarmenak alan eskatzen ebelako.

Baiña, edesti labor au ikusita, iñork esango daust, guda joko orreitan egon ziran guztiak, zelako aberriaren baita euki ote eben ?. Edo ta nork eta zertarako, itzarmeneko zentzutik ebatuta, erabilten ote ebazan odoljarioz, gudari guzti orreik ?.

Kontuan artu bear da, lurralde orreineko erriarrek, euskeraz berba egiten ebela, eta demokrazizko euskal nortasunaren baita eukinda, iñork ez ebala euki beren izatezko nortasunaren kanpo, beste aberritasunezko ametsik, euskaldunak beste berezko errien antzera, iruzurtuta ibili ziralako beti, Katolikotasunen goitik berako agintaritzaren erlijiozko sinismenagaz eta erregearekin eukiten genduzan itzarmeneko, irukote orren bidez.

Baita gainera, zer egin, Europa osoan egia guzurragaz naastuta sortzen zana, bardiña izatzen bazan, Frantzez, Gaztelar ta Aragoiko erregeak erakusten eben norkeriagaz ?.

Ez zan aukerarik egon, guzurraren lokatzarte orreititik iges egiteko.

(1) Keiñadura = amenaza. (2) Urruin edo muziñagaz = desprecio, menosprecio desden.

Nafarroa eta Euskalerra kanpo, Errege katolikoak euki eben goitik berako erromatar antolamenduzko jaurkintzak, ez euken zer ikusirik euskal Nafar, Giputz, Arabar eta Bizkaiko erritarrak euki eben errege-jauntasunagaz, eurak edozein arloan asmatzen ebazan maltzurrezko legeakaz, euskal agintariak, katuak umiakaz egiten dauan antzera, auek kokotetik ebatu ta ezberdiñeko eritzi lekuetatik ibilten ebazalako, gure izatasunezko nortasun eta legeak babesteko.

Orduan ?.

Kontuan artu, errege jauntzak eta bai erritarrak gaur lez, panpiña batzuk baiño ez zirala denbora aietan.

Nor izanda joko orren ariak eskuan artuta, ibili dauazan soka dantzari ?.

Antziñatik, datorren eritzi edo norkeriaren asmakizunezko gogoa da, Munduko gizarte osoa kaizar baten agindupean egon dadin.

Eta orduko Europaren kaisar eta erlijiozko agintariak ebatu ebazan, Ludi onen aolkulari nagusi lez, Erromako Kaisar katolikotasunean aberritu naian, menpetasunezko ari guzti oiek, gero txerpolari lez⁽¹⁾ ibilita, euren asmakizun orreik beteteko.

Baiña bereztasunaren aurkako joko orretan, gauza bat aztu jakien, Ludi au Jainkoak Berezitu ebala, eta Beren Legeak eukinda, iñork ez dala nor, norkerizko legeakaz Mundu onetan jokatzeko.

Iñoz, konturatuko ote gara ?.

2. 34. Nafar erregearen aria ostera artuta, Foix'tar leiñuan, I Frantzisko Febo edo Feboren izenagaz ezagutu zan Nafar erregea.

Pabe⁽²⁾ *gazteluan iraun eban I Franzisko Feboren bizitza, bere arbasoak III In Karlos Biotz Aundikoa*, eta IV In Karlos jakintsuaren Bianako printzeen antzera, musika, izkuntz, apainkeria, guda zaldun eta antzez-lanai zaletasuna erakusten.

Nafarroako I Leonor erregeñaren billoba zan, eta 1.479ko urtean I Leonor il zan orduan, errege egin eben, Bianako Printze lez.

Foixeko Gaston kondea, eta Frantziko XI In Luis erregearen arreba, Madalenaren semea zan.

1.469ko urtean jaio eta 1.483 urteko Urtarrillaren 29an Paben pozoituta il ebana.

1.472-1.483ko urte bitartean, Foix, ta Bigorreko kondea, ta Bearneko bizkondea izan zan.

Eta 1.479-1.483ko urte bitartean, I Frantzisko Febo au izan zan Nafarroako erregea, Bianako Printze izenagaz Nafar erregetzaren ondorengoa izateagaitik, ta Agramontdarren laguntzagaz.

Beaumontdarrak une onetan, Aragoiko II In Fernando katolikuaren alde ezarri ziran, Nafarroan frantzezak ez zitezen sartu, Nafartar erregearen alde, II In Fernandok Gaztelarren gudalozteak zain ipinita.

1.479ko urtetik 1.481eko urteartean, Feboren erregetzazko denbora onetan, Beaumont ta Agramontdarren arteko gudak, gogortu egin ziran ezin geiagoan.

Eta Febok 12 urte bakarrik eukinda, bere ama Frantziko Madalenak artu bear izan eban agintaritza, erregearen-ordezko lez, ondo eroan ebana.

(1) Txerpolari = vendedor ambulante, acróbata, funanbulo, volatinero. (2) Pabe = Pau.

Madalena, Zaragozan egin eban berba IIn Fernandogaz, onek itxura baten, laguntzeko prest egoala emoten ebalako.

1.479ko Iraillaren 17an alkarrizketa orren ondorioz, Aoizko bake-une edo gudu arteko alkargoa sortu zan, eta Madalena poztasun aundiz ta arazo guztiak konpondu egin zirala-koan, alan esan eutsen Nafartarrai.

Egia baiña, IIn Fernando azpi-jokoan ibili zala zan.

Orregaitik garai onetatik emen aitatu bear dana:

a) Europa ta ezagutzen zan orduko mundua, laterrizko antolamenduaren katolikotasunean batzangotuta aberritzeko, eleizako erlijioaren gogo edo sendimendutik etorri arren, erdiugarte onen ezberdiñeko errigizarteetan ez zala egon alango oldozketarik⁽¹⁾.

b) 1.480ko Urrillaren 18an, olan erakusten daualako Rodrigex de Almella, Kartajenako Kalonjeak⁽²⁾ bere idaz lanetan, berak, berezko errien bizitzarako ezarri gura dauanean:

Gaztelako erregeak, eskubidea daukela Nafar erregetza beraganatzeko, Araba, Gipuzkoa ta Gaskuñako Lurraldeak artean dirala” agertzen dauanean.

Eta katolikotasunezko erlijio orren ondorioz lez, asi zan agertzen ugarteerdi onetan spain laterritutako errege bakarraren gogamen edo oldozmenena.

Bai gorputza artzen asi, arik eta XIXn gizaldian, guda bidez ezarri ziranetik, eta gaur ikusten dogun lez, zoritxar baten baiño edo utsegite aundi baten geratu dana, gaur Galicia, Katalan eta Euskaldunak ortze gabizelako noz askatu, katolikotasunean aberritutako fazizta orren txeberatik⁽³⁾.

Europar ez zalako egon espaina-katolikotasunean aberritutako sendimenturik, ez Italia, ez frantzikorik be, aien denborako errigizarteak, indar eta erlijiozko nastearen oldozmenean ekarten ebalako.

1.789ko urte ezkeroztik, eta guda gogor bidez ezarri ziran Europa osoan eta mundua bide-
ratzeko, aberri-merkantil-katoliko asmakizun orreik, Europaren berezko errigizarte guztia kontrolpean eukiteko, ***maltzuratasunezko lapur ta guzurti utzetan biurtu diranak***.

Beartsuaren poztasunak gitxi irauten dabe, eta laster asi ziran eztabaidak ostera be.

Aragoiko IIn Fernandok konponketa orreitarako itxura ona emon ba-eban be, ez eban emon geiegizko ordezkoa artu barik, eta Nafartar-erregetzari kalte aundiak egin eutsozan.

1.482ko Zemendiaren 6an, erregea koroatzeko ordua zala esanda, bere osaba Foixeko Pedro Kardinalak, Tafallan gorteak batuta, ta Nafartarrak errege lez onartuta, Gastontar I Franzisko Febo Iruñara joan zan, eta, Fuegoak agintzen eben eran koroatu eben.

Ortik aurrera, Anai-gudaren sorburuak bakezten asi zan, ta eriotzazko zigorrak agindu ebazan Beaumontdar edo Agramontdar izendatzen ziranai.

Kanpiontar Arturok diño, Madalena I Frantzisko Feboren amak, uts-bi egin ebazala:

Lenengoa, ***Fernando katolikoak eskatu edo adierazita, errege Katolikoan Juana alabagaz ez ebalako eskondu.***

(1) Alango oldozketarik = meditaciòn, reflexiòn, o modo de pensar nacionalizaciòn concreta entre la gente de los diferentes pueblos, cosa que despuès se hizo por fuerza de las armas en siglo XIX, dividiendo Europa en diferentes nacionalidades, sin tener en cuenta, la nacionalidades que se desprendian de los diferentes idiomas de cultura, por crear naciones donde el rey arbitraba las tierras. Asi el rey de Francia, se convirtiò en rey de los franceses, etc. Modificando el estado natural de los pueblos, en entes caprichosos, que nunca han tenido el respeto de los pueblos naturales, porque asi lo exigen las leyes de esta naturalizaciòn. (2) Kalonjea = canònigo. (3) Txeberatik = trampa fascista.

Eta bigarrena, *I Frantzisko Febo, Frantzira eroatea, bide orretan, Leringo konde III In Luisek Albaren guda lozteak bideratzen egoala, Iruña artu ebalako.*

1.483ko Urtarrillaren 29an I Frantzisko Febo bazkal ostean txilibitua joten ibili, eta larritasuren sartzan egoala igarri ebanetik, *andik ordu bira il zan, emon eutsoen pozoiaz.*

2. 35. *Nafarroako erregetzan, Foix'eko I Kataliñ erregiña.*

Nafarroako I Kataliñ, Foixeko Gaston Bianako printzea ta Madalena, Frantziko XI In Luis arrebaren alaba txikerrena izan zan.

Foixeko I Kataliñ au, bere anai I Franzisko Feboren ondorengoa zan, Nafar erregetzan.

1.468an jαιο zan urtetik, Mont Marsanen egoala, 1.517ko Otsaillaren 12ko egunerarte bizi zan.

1.483ko urtean bere anai Febus'tar Frantzisko gazte ilda, bera egin eben erregiña 5urte eukezala.

1.483-1.484ko urte bitartean, bere ama Madalenaren errege ordezkotzan egon zan.

Nafarroako erregiña izanez gain, Gandia, Montblank eta Peñafieleko Duke Andrea, bai Foix, ta Ribagorzako Konde Andrea, eta Bearneko bigarren Konde Andrea be, izan zan.

1.483ko urtearen-1.513ko urterarte Nafarroako erregiña izan zana.

1.483-1.492ko urte bitartean borrokatu bear izan eban Kataliñ onek, ama Madalenaren laguntzagaz, bere osaba Foixeko Juanen aurka, erregetzaren jabetasunagaitik, Nafarroako anaien arteko guda luzea sortuta, Beaumontdar eta Agramontdarrak, bata bestearen aurka bideratu ebena.

Foixeko Juan Kataliñaren osaba onek, Nafar ondorengotasunean bigarrena izanda, bera errege izateko, Aragoiko erregetzaren Salikako legea ezarri gura ebalako.

Orduko ekaiztsu ta naastezko denboratan arrazoia baiña, eta Juanek eukiko ebazan norkeri guztien gaiñetik, Nafar erregetzan beso indartsuak bear zirala zan.

1.483ko urtean, Beaumontdarrak Aragoiko II In Fernandori eskatu eutsoen, Nafarroako erregetza Aragoiko erregetzagaz bat egin egiala, baiña Fernandok bere emazte Isabelegaz, euren seme Fernando Asturiaseko printzea, Katalinagaz eskondu gurean, beste ezkututako bidetik egin gura eben ezkontza ori.

Katalinaren ama, Madalenak baiña, atzeratu ebazan katolikuaren asmoak, printzearen gazteasuna aitatuta.

Joko orretan egon zirala, XI In Luis Frantziko erregea be sartzan zan, Gaztelako errege izango zan batek, Foixeko laterriakaz jabetuta beren aurka, Burdeos eta Tolosako atetan kokatzen zalako. Orregaitik bera be sartu zan beste eskontza batzuk eskaiñita, eskontza ori ezereztuteko.

Ekindza oneik, Nafartarren anai arteko guda gogorak bistuten ebazan, beti buru ziran Beaumot ta Agramont Nafar alderdikideen artean.

Oneik, euren norkerizko andinai, dirugose edo ongoSean, erregetzaren izatasuna beratu egin ebelako, euren arteko gorrotoaren ta alkar ikusi-eziñezko tresneri biurtu zan.

Eta orain, Beaumontdarrak eskubidearen zaindaria izan ziranak, lapurraren alderdian kokatuko dira. Eta Agramontdarrak, Nafarroaren erregezko eskubidearen zaindari.

Gauza orreik, beti sortzen dira Aberriaren giza-barnea galtzen danean, eta erabiliko arroxkeriakaz, guzur eta nastetasunezko bideak zabaldu egiten diranean.

Europa osoan norkerizko alderdiak sortuta, ugarterdi onetan Frantziatik asita, Nafarroa, Gaztela, ta Aragoiko alderdikideen artean, eskubidearen arloetan, sortu ziran naasteak, aundiak ziran.

Baita, katolikuak euren meatxu gogorrakin, egiten ebazan alegiñ ugariak, Asturiaseko Printzea, Nafar errege aulkian ezarri zedin.

Madalena, Kataliñen amak baiña, gogorkeri guzti orreik eutsi ebazan, Nafarroako Lerin kondea ta errege ordeak, Asturiaseko printzea Nafarroako erregetzan ezartzea lar zalakoan, atzeratu egin zirala ezker.

Madalenak, emen aipatu bear izan eban, gero 1.503ko urtean Juan ta Kataliñ´ek Nafar gortee-tan esan ebena: ***Su aundi biren bitartean kokatuta gagoz, ez dakigula, ortik zerk agertu leikenik.***

Madalena berak azken baten, bere anaia Frantziako errege XIn Luiseri aolkua eskatu bear eutsola esanda, askatu egiten zan entrabalozko arazo orretatik.

1.483ko Loraillan ta 1.483ko Bagillaren 25ean Gaztelako Isabel be, bere seme Fernando Asturiaseko Printzea, Katalinagaz eskontzeko alegiñetan ibilita, ta artu emon orreik egiteko Burgo-sera joanda, Kaltzadako Domingo Deunaren erria aukeratu eban, euren izketaldiak egiteko.

Izketaldi oneik, azken gaiztoa euki eben I Isabelentzat, berak bere seme Gaztelako Fernando Asturiaseko printzea, Nafarroako errege izendatzeko asmoa euki ebalako, eta Nafar gortekoak alderantziz, Kataliñ printze onegaz eskonduta, orduan erregiña izendatzea gura ebalako, ez ziran konpondu.

Zuurtasun, diplomazi, edo ta trebetasunezko alkarrizketa oneik, Frantziko XIn Luisek erabakitzen ebazan Nafartarren aldetik, ta Madalenak urbilletik jarraituz, errege katolikuak ez eben lortu garaipenik, Leringo errege orde ta kondeak, Asturiaseko Printzea Nafarroako errege izendatzekoetan, lar arriskatu edo beartu egin ziralakoa, atzerantza egin ebalako.

1.483ko Uztaillan errege Katolikoak, Frantziko XIn Luisek, zelango joko ona egiten eutsien ikusita, ostera be bialdu ebazan orde-zkoak Pabera.

Madalenak, guzti au ikusita, zalantza aundi baten erdian agertu zan, alde batera egin ezkerro, galbide edo arrisku bardiñean agertzen zalako, beste aldekoakaz jokatur bezela.

1.483ko urte onetan, Nafarroaren Iruñako gortekak, bai Bearn eta Bigorreko laterriak be, I Katalina artu eben euren erregiña ta berezko Andre Jabe bezala.

Emen aipatu bear dana, Beaumontdarrak Fernandori, Nafarroa Aragoiagaz alkartzeko eskatu eutsola.

1.483ko Garagarrillan il zan Madalenaren neba XIn Luis⁽¹⁾, beren ondorengo VIII Karlosek, Frantziko erregeen aulkira igonda.

1.484ko urtean Madalena amak, estutasunezko egoera lari baten aurkitu zan, Nafar erreñuko gortekoak oartzen ebala, andi-zaletasunetik baztertu zedin, eta Kataliñ ezkontzea erabagi eban, onek 15 urte bete ebazanean, Gaskuñaren Mendebaleko Albrit´tar Juanegaz.

1.484ko Bagillaren 14ko egunean idatzi ziran, Kataliñ, Albret´eko IIIIn Juan Tartaxeko bizkondeagaz eskontzeko, artu ziran erabagiak.

Eskontza onen bidez, seigarrenez sartuko ziran atzeritarrak Nafarroa´ko jaurkintzan.

(1) XIn Luis berak irasi eban Frantziko erregetzan: “berezko, guzizko edo ta orokorrezko erregetza” = *el absolutismo real de Francia*.

Eta Kataliñaren ezkontza ori, VIII In Karlosek, bere aolkularien esanak onartuta, XI In Lui-sek antolatuta euki eban erara, bete egin zan.

1.484ko Uztaillaren 9an eta Urrillaren 2ko egiunetan⁽¹⁾ asi ziran argitzen Foixeko ondo-rengoaren arazoak, Kataliñaren aldera, eta ez bere aitagiñarrebaren naierara.

Batez be, arrisku aundiko txatal berezi bat euki ebalako auziketa onek:

Auziketa orren erabagia, Pariseko Lege-biltzarrean artu bear zala.

Lege-nai orren bidetik, Nafarroako erregea, Frantziko erregeari, ondo esan bearrean gera-tzen zan.

Albrete 'ko Alanok, menpekotzaren edo feudoko⁽²⁾ alkartasunetan sartu zan, Madalena be beragaz eroanda.

Eta 1.485eko urtean Nafarroan, ausardi aundiko borroka asi zan.

1.485eko Otsaillaren 8an, Nafartarren ordezeko-erregearen agindupeari ezetza emon eut-soen orduan Beaumontdarrak, Nafarroako erreñuaren bakea, ezinezkoa biurtu jakien erregeari, Madalena berak, Leringo kondeagaz adiskidego elkargoa sinatuta, Leringo kon-de eta beren alderdikideentzat, ongille edo ekartsua izan zana.

1.486ko urtean Ordesen, Leskarreko Notre Dam Eleiz Nagusian ezkondu zan gure Kataliñ, Albreteko Juanegaz, naiz Iruñan koroatzeko, 1.494ko urterarte itxaron bear, bake une iges-egi-lle bat sinatu arte, Beaumontdar Leringo kondea Luisek, Aragoiko II In Fernando katolikoagaz.

Emendik aurrera errege-katolikuak, Nafarroako erregetzaren, eskontzan eta gortearen ze-regiñeko antolabidearen atzean ibili ziran, Katalina ta Juan gazteak izan ziralako.

Madalena amak baiña, geiegi zirala orrein atzean ibili ziranak, eta katolikuak euki eben gal-bidearen arriskua ikusita, Frantziako erregearen laguntza eskatzen eban.

Ezkontza onek ez eban euki Beaumontdarren baimenik, ez eta Agramontdarren atsegin edo poztasunik be.

1.486ko Abenduaren 4an Feudoko biltzarretan, Nafarroako errege-ordea Albreteko Alano izan zala, errege gazteen izenak entzuten asi ziran.

Eta I Kataliñ erregiña, Nafarroara etorri zedin koroatzeko, Leringo kondea geratu zan, bi-deko arazoak garbitzekoen arduragaz.

Agramontetarrak baiña, Oliteko atek itxi eutsuezan Kardinalari⁽³⁾, eta erregeak ez ziran ausartu, Auñamendiak igarotzen.

1.486ko Iraillan Gortearen aginduz, Albret 'eko Alain izendatu eben errege orde, agiri orrek txatal berezi au eukala: ***Errege-ordea urrunetik dala, eta egon ezinean, bere anai Abesneseko Jauna izan daitela egillea.*** Eta bera izendatu eben ardura orretan orokorrezko teniente edo ordezekoa izendatu ostean.

1.486ko urte berean, Beaumont taldeko Grazianek, Agramontdarrari eraso eutsen, eta ba-rriro biztu zan anai arteko guda.

1.488ko urtean gauzak baketzeko, Tudelak eskatuta, Agramontdarren anaiarteko taldea sortu zan. Eta Beaumontdarrak Iruñan, bereala sortu eben bardiña.

1.488ko Urtarrillaren 3an, Madalena eta bere alaba I Kataliñari, Frantziko Lege Biltzarre-tik deitu eutsoen.

(1) 2ko egiunetan asi ziran argitzen = se empezaron a aclarar los contratos que se celebraron el dia 2 de Octubre.

(2) Menpekotzaren edo Feudoko agiria = contrato-vasallaje. (3) Kardinalari = Beaumontdarren kidea zalako.

Eta eldu ziranean, Beaujeuko Ana Frantziko erregiñ ordeak baiña, eurengeatik lau urte ariñago, gomendiozko alegiñ ta trebetasunetzko laguntza gustiak pozik egingo ebazanek euren alde, Albret'eko Alano jaunak, Nafarroako errege ordeak zanak, gudarako euren zaletasunagaitik asarratuta, oraingoan, atsegiñez itzi ebazan sasiarteko eginkizun orretan, korapillatu zitezten.

Albret'eko Alanok, Bretañako lurraldeetan eskubide batzuk eukezala-ta, Bretañako dukearen alabeagaz ezkondu gura eban, lurralde arein gaiñean, begiak ipini ebazalako.

1.488ko Epailaren 21ean Albret'eko Alanok, orren zeregiñen garaipena ta Beaumont'en menpea lortu naian, Balentzira joanda, Fernando katolikoagaz, adiskidetasunetzko alkargo bi antolatu ebazan. IIn Fernandok, oraindiño gaztel uri batzuk eroaten ebazalako nagusi lez lurralde aietatik.

Gazteluri orreik, Nafar Kapitain edo gud-agintaritzapean geratu ziran, utziera orreik, itxurazkoak ziralako, beste aldetik errege katolikuak Nafarroan, aginpide nagusia eukinda, Nafar berezko erregeak baiño, erantzun obeagoak eukiten ebazalako.

Fernando urriñ egon zan Labrit'eko Alanoren naikundetetik, beren naiak bete zitezten, Juan printzearen alde jokatzin ebalako, eta azken baten Bretañatik zeozer ataratekoan, Nafar errege ordeak aginduta, Roselloneko⁽¹⁾ lurraldea eskuratzeko.

1.491ko Urtarrillaren 2an Alanok, Fernandoen jokoa zelakoa zan jakinda, Frantzesakin alkartu zan, ainbat gauza berentzat, beren seme eta beren anaiarentzat, diru ta lurraldetan lortuta.

Gaiñera, Narbonako Juan bizkondearen naiak babesgabe uztea eta Frantzesaren laguntza eukitea, Gaztelako erregeak erasoan, Nafartarren aurka etorten baziran, asko zalako.

1.492ko Urtarrillan Granadan, eta Dagonillan Zaragozan be, arremanak egon ziran, Nafar erregetza, Gaztelatarren babesgoan izteko.

IIn Fernando baiña, asarre aundian sartu zan, Alanotar Juan, Frantziko erregeagaz batera ibiltin zalako, eta zalantza askoren ostean, Beaumont Kondestablea eta beren lagunak, Iruñean ziñez, itz emon ebalako, andik aurrera Nafarroako erregearen agindutara geratuko zirala.

1.493ko Jorraillaren 13an Pariseko Lege-Biltzarrak, Foixeko laterrien jabetasuna oraingoz, I Kataliñ erregiñaren ardurapean iztea erabaki eban.

1.493ko Zemendiaren 7an Nafar Kondestablea eta beren sei adisdikideak, Iruñan ziñ eutsoen elkargo orreri. Eta erregeak Ordezen, Abenduaren 4an.

Nafarroako erregeak baiña, beti lez eta ostera be, euren anak, infernuko lekuan sartu ebazan⁽²⁾, IIn Fernando Katoliku erregeari eskatu eutsuelako, euren baikuntzapean bete egiazala ongune⁽³⁾ orreik. Bide orretatik, IIn Fernando katolikua geratu zan alkargo orren erantzugille.

1.494ko Urtarrillaren 12an, amar urte geroago egin zan Nafarroako erregearen koroatzea.

Eta ez eragozpen barik, Beaumontdar kondestableak, Uriaren atea giltzatu ebazalako, Agramontdar geiegi etorri ziran aitzakiagaz. Erregeak gabon orreik, Egueseko basa-bazter edo baseritxo baten, ospatu bear izan eban.

1.494ko Urtarrillaren 19an Iruñan, eta Jorraillaren 30an Medina del kanpon, IIn Fernando katolikuak isilleko alkargo baten bidez, laster eskatuko ebazan beren itxurazko babesaren lanagaitik, egin ebazan artekaritzazko ordaiñak, eta Nafarroako erregeak beartuta geratuko

(1) Frantziko oroigarri-lurraldea dana. Langedok, Auñamendi ta Lurrarteko itsaso'ean artean kokatuta dagoena. Bere Uri nagusia Perpiñan izan da. (2) Baleiteke, beartuta izatea. (3) Ajuste.

ziran, jaioko zan Ana, euren alaba nagusiena, katolikuen seme Juanegaz ezkondu zediñ. Edo ta mutilla eukiten ba eben, katolikuen senitarteko neskatilla bategaz ezkondu.

Asko asarratuko zan Frantziko VIIIIn Karlos erabagi orreikaz, Nafarroako erdikotasun orrek, beren sarraldi asmoaren bideak ezerezean izten ebazalako Nafarroako gortean, eta gaztelatarrai nausitasunezko ziurtasuna emoten eutselako.

Eta 1.494ko Epaillaren 20an Lionen, beti Nafarroako zeregiñaren gaiñean egon ziran Frantziko VIIIIn Karlos eta errege Katolikuak alkartuta, antolamenduzko zalantza orrein erabakiak epaitu ebezan, erabagi onekaz:

-Narbonako Juanen asmoak Nafarroako erreinuarentzat ortik aurrera, eurak eroango ebezala.

-Frantzian egon ziran laterrien erabakigabeko auziketak, Frantziko Lege Biltzarraren burubipean geratu zitezela.

-Eta onen erabagiak eldu arte, Nafar erregeakaz, Narbonako bizkondeak, euki eban guda geldituta, auzibideko Laterri orreik, Nafarroako erregeen ardurapean geratu zitezela.

VIIIIn Karlosek Juan bizkondearen laguntzagaz, Italiako gudaldia asi eban, eta Nafarroa babes barik geratu zalako, errege Katolikuak agertu ziran jaun ta jabe, Juan eta I Katalina Nafarroako erregeak, eurengana naita naiez joan bear izanda, Beaumontdarrak gero ta okerrago joan ziranak geratzeko.

1.495eko urtean il zan Katalinaren ama Madalena.

1.504ko urtean, eta Madalena, Kataliñ Nafar erregeñaren alaba, Ibarreko Medinan⁽¹⁾, Aragoiko IIIn Fernandok baituta eukela il zanean, Nafar errege eta Leringo kondearen artean, borroka geiago biztu ziran, 1.504-1.508ko urte bitartean iraun ebena.

Nafarroa atsekabetzen eben gaxotasunak, larritasunezko maillara igonda, ezinezkoak bihurtu jakien Nafar erregeari, agertzen zan ondamenari eusteko, ta ez zan izango txikerrena, alderdikideak igon eben lekutik beratzeko, indar aundieneko al izate edo eskumena bear zanean, erregetzaren aulkira, emakume bat igotea.

1.504ko Zemendiaren 26an il zan I Isabel katolikea, eta bere arimagaitik iletak egin da, illaren askenean bere alaba Juana⁽²⁾ ta I Felipe⁽³⁾ Ederra suñe, izendatu ebazan Gaztelako errege, erregetzaren ordezkotza, Zisneros kardinalari aginduta, beren azkeneko naien zaintzale izendatu ebenean.

Orañarte ikusi dogu, zelako jokuan ibili ziran Aragoiko IIIn Juan eta Enrikeztar Juana, IIIn Fernando katolikua gurasoak, gero seme oneri alegintzeko, Nafar erregetzagaz geratu zedin.

Urte askoko lan zitala bidez, laster gertatuko zana, Europa guztiko katolikotasunaren maltzur ta guzurtien bedeinkua euki ebelako:

Gure kondaira onetan eta Aragoiko IIIn Fernando kondaira onetan sartuta, jakin bear doguna, zelako maltzur jokoak ziran ibiltzen ebazanak, Aita Santuen gandik asi eta Europak euki ebezan erregeetatik amaituta, IIIn Fernando katolikua maltzur guzurti ta azpikerizko jokoan euren gainetik, ain maisutasun aundia artzeko, eta Europako errege guztien ardatz biurtzeko.

Maltzur guzti orrein indarrezko jokoa Mundu osoarentzat, katolikotasunezko guzur aundienaren garaipeña lortzen ibili ziralako da.

(1) Ibarreko Medina = Medina del Campo. (2) Juana la loca = 1.479-1.555. 1.496ko urtean ezkondu zan Felipe Ederra deritsonekin eta 1.504-1.506ko urterarte erregeña izanda Felipe il zan arte, Tordesillaseko gaztelura baztertu zan, bertan bere azkeneko 49ko urtetan bizita. (3) I Felipe Ederra = 1.478-1.506.

Eta indarrezko joko ori, ezpata ta ziñeskintza edo dogmatikaren bidez izan zalako, gure denborara eldu dan osotasunezko guzurra ezarri eben gauza guztietarako, bizitzak, bizitze-ko bear dauan gauza guztiak, euren kontrolpean ipinita.

Gero ta aundiagoa egin jakuna, bereztasunezko Lege ta Baitan ezer ez dabelako konpondu, eta gaur arte be, eritzi bardiñean gatozelako, Ludi onen erri ta gizarte guztien eskubideak, ankaz gora dankaguz.

Gaur egiten dan guztia, Demokraziaren izenean egiten dala esaten dabe, baiña iñork esango ote daust, noren demokrazia gaitik, berbetan gabiltzan ?.

Mundu onen bizitza, zentzuz eroateko, eta epe laburrean emendik alde egin bear dogulako, gizarte lez antolaketarako sortu bear daukaguzan baldintzak, iñundik ez dira gure baldintzak.

Jakin ote lei orduan, NOREN baldintzak dira orreik ?.

Ortik ez bagara asten, daukaguzan arazoak, sekula ez doguz konponduko.

1.504ko Zemendiaren 26an Isabel katolikea il zanean, onek beren azkenaiak-zaintzeko Zisneros⁽¹⁾ izendatuta, IIIn Fernando berak ikusi eban, Gaztelako jaurlarintza bere alaba Juana ta Juanaren senar Austriako I Feliperen eskuetan itzi bearko ebalu, eta Gaztelako gortek, ori berori ikusita, Aragoiko beren erreinura bigaldu eben IIIn Fernando.

Gaztelako gortekoak, ez eben jakin zer egin eben, ez ziralako konturatu, zelangoa izan ziran IIIn Fernandoren asarreak. IIIn Fernando, laster asi zalako alegintzen, Gaztelako errege oneik, zelan baztertu.

1.505ko Urtarrillaren 23an Fernandok, Toroko gortetan Juanaren zorotasuna azalkeeratu eban eta Isabelen azkenaiaren agindutik, Gaztelako erregetza berak zuzendu bear ebalu, esan eban.

1.505eko Urrillaren 12an, Aragoiko IIIn Fernandok bere suin Feliperen, ikus-eziña alde batetik, eta bestetik, Frantziako errege XIIIn Luisek, Felipe artxidukearen al izan edo bera izan zanagaitik, bekaitz euki ebalako, biak alkartu ziran. Eta baita biak batzartuta, Bloiseko elkargoa ospatuz, IIIn Fernando bigarrenez, Foixeko Jermanagaz ezkontzeko onartu eban, Frantziko errege XIIIn Luisek.

Denbora oneitan, Frantziko errege XIIIn. Luisek, ondo egiten eban berba, beren lengusu Beaumonteko Luis Leringo kondea, edo Nafarroako kondestableari buruz.

Egia baiña, Leringo konde Luis onek, beren obekuntzagaitik itz ustelekoa izanda, bardiñ konpontzen zala, Frantziko, naiz Gaztelako erregeakaz, Nafar erregetzaren aurka jokatzeko.

1.505eko urtean Urrillaren 19an, Foixeko Jermanak 18 urte eukezala eta IIIn Fernandok 53 urte, ezkondu ziran ordezko legean.

Ezkontza onen bidetik, II Fernandoren emazte Jermanari, Napoleseko ondorengotasuna emon eutson Frantziko erregeak, eta Fernandori Jerusalemeko errege izena. Jermana ilten zanean, ostera itzuli bear ebena Frantziko erregetzara.

(1) Jiménez de Zisneros'tar Frantziako = 1.436-1.517ko urte biartean bizi zana, 1.492eko urteen ezkerortik I Isabelen aitortle. 1.504ko urtean I Isabelek bere aznaien-zai izendatu eban. 1.506ko urtean I Felipe Ederra il zanean, Gaztelako erregetzaren orokorrezko jaurlari izendatu eben. 1.507ko urtean, Nápolestetik etorteko deitu eutson IIIn Fernandori, eta IIIn Fernando etorri zanean, Aragoi-Gaztelako erregetzaren fedezain izendatu eban eta bide batez kardinalaren txapela ekarri eutson. 1.516ko urtean IIIn Fernando il zanean, onek ordezko erregetza artu egien agindu eutson I Ganteko Karlos babestu dagian. Frantziko errege I Franziskok Nafarroaren erregetza ostera berrezkuratzeko ezereztu eban, eta Nafarroako gaztelu guztiak moztuteko agindua emon eban.

Ezkontza onek, larritu ebazan ezinbestearte Gaztelako gortekoak eta geiago 1.509ko urtean, Jermana bere emazteak, bigarren seme Juan emon eutsonean.

IIIn Fernando katolikoen seme Juan au, jaiotzatik ordu gitxira ez bazan il, Aragoiko errege izendatuko eben, IIIn Fernandok bere alaba I Juana eta bere senar I Felipe Ederrari, Aragoiko erregetzaren ondorengotasunezko bideak moztutearren.

1.506ko Bagillaren 27an II Fernandok, Gaztelako erreinua ezinezkoa zala beragabe bideratzea ikusi ondoren, bere suin Felipe Ederragaz Billafafilan batzartuta, alkargo au sinatu eben: ***I Felipe ederraren emazte Juana Gaztelako erregina, bere zorotasunezko gaixotasunagaitik, erregetzazko zereginetatik alboratzea.***

Denbora onetan, IIIn Fernando katolikuaren izar eta indarrak itxura baten berantza joan ziralako, bere eragipenez Frantziako errege XIIIn. Luisek, gero ta jokabide txarragoan artzen ebazan Nafarroako erregeak.

1.506ko Agorrillaren 27an, I Kataliñ Nafar erregina bere senar Albriteko Juanegaz, Balladizgo Dueroko Tudelan, Gaztelako Juana ta Felipe-Ederragaz batzartuta, barneko adiskidetasun ta bekearen itun bat sinatu eben. Nafarroako erregeentzat ain ongarri izan zana, Gaztela, Ingalaterra ta Erromako Aita Santuaren adiskidetasunera urbiltzen ebazalako.

Fernandok, sekula ez eutsen parkatuko Nafar erregeai, berari ezetza emonda, beren lepo gañetik Gaztelar erregeakaz egindako itun ori.

Eta naiz, IIIn Fernandoren maltzurrezko gaiztotasuna danak jakin arren, baita berak euki ebazan maltzurtasunezko asmoak izkutatzeko, Napolesera joanda, norik susmatuko eban:

1.506ko Iraillaren 25ean, ur otz apur bat edanda esaten dabe, I Felipe-Ederra ilgo zala, eta ***Juana zoratuta, Gaztelako antzoki zabalean, Fernando katolikua agertuko zala ostera, antzezlarari nagusi lez ?***

Fernando bitartean, Foixtar Jermanarekin ezkondu zan, eta seme bat euki eben.

I Juanaren senar Felipe Eder onek, ur apur bat edanda il, eta Juana zoratuta egoalako, Gaztelako aberrikoari ikaragarritzko urduritasuna sartu jakien, IIIn Fernandok zer egingo ote ebanagaz bildur.

Eta Jermana ta bai semea il ziranean, Gaztelarrak ikusi eben guztiagaz, bada ezbadan, Fernandori deitu eutsoen, euren erregetzaren ordezkotzagaz arduratu zedin.

Eta emen, garrantzi aundiko galdera bat agertzen jaku: ***Gaztelarrak Zergaitik ez eutsoen Zizneroz kardinalari deitu ? Naiz ta Zisnerosek erregeen ordezeko ori, denbora apur baten eroan ?***

I Felipe Eder erregea il da, frantzez eta gaztelartean gudaren keiñadura sortu zan⁽¹⁾, eta Fernandok orren egoeraren unetxoa gozatu eban, len Juana ta Felipek egin eutsoen narga, urruin edo muziñagaz⁽²⁾ naparrak zigortzeko.

1.506ko urtean Iraillaren 25ean pozoituta il eben I Felipe Ederra, ta Gaztelako gortekak, Zisneros izendatu eben, erregetzaren orokorrezko jaurlari nagusi.

1.506ko urte onetan, Fernando katolikuak indarrez barriztuta, bere maltzurrezko alegin bidez, Nafarroan anai arteko guda biztu eban.

1.506ko urte onetan Gaztelako gortearen jabetzazko eritzian, garrantzi aundiko gauza bat sortu zan, euskaldunak emen kontu aundiagaz argitu bear doguna.

(1) Keiñatu egiten ebazala, edo alan esan eben beintzat = que les amenazaban. (2) Narga, urruin edo muziñagaz = depreció, menosprecio.

Gaztelako gorteetan Euskal Bizkaitarrai, ez eutsiela sartzen itzi, berba auek esanda: **“PORQUE (ERANO) SON GENTES, DE ESTADO SEPARADO”**.

Esan orreik eurak bakarrik adierazten dabe, Euskaldunek egiten ebezan itzarmenak, aukeratu egiten ebazan Jaun erregeekin bakarrik egiten ebal, eta ez Gaztelako gorreakin, gu nortasunezko erri bat izanda, gure batzarrak Gaztelako erregea, akuratu edo alokatu egiten gendulako, epaikaitezko zeregiñak, artekaritezko lanean itzalez bideratu zitezen.

Eta gure jauntza aldi orretan Gaztelako erregearen eskuetan egon arren, erregearen pertsunagaz egiten zala itzarmena, Gaztelako gorreaken eragipenetik kanpo.

1.507ko urtean Urtarrillaren 23an, Zisnerosek, Napolesen egoan II In Fernandori deitu eutsen etorteko, eta II In Fernandok, Gaztelako erregetzaren orokorrezko billakari ta fede-zain izendatu ebanean, Fernandok berentzat ekarten eban Kardinalaren txapela emon eutsen.

1.507ko Dagonillaren 21ean II In Fernando, Gaztelan sartu zan, eta berton berari egineko irainak, bai Dueroko Tuteran itunagaz gogoratuta, Nafar erregearen aurkako alegiñetan asi zan.

1.508ko urtean II In. Julio Aita Santuak, Nafarroako erregeak eskomunikatu edo eleizatik kanpora atara ebazan, Iruñako gotzaintasun eta Tuteran dekangoaren gora beragaitik.

1.508ko Bagillan, II In. Beaumontdar Luis Leringo kondeak, 1.506ko urtean Fernandoren alegiñagaz Nafarroaren aurka asi eben guda, eta onek babes gabe itzi ebalako, guda beren aurka asi zan itzultzen, Lerinetik asi eta leialtasunean euki ebazan gazteluak, Nafartar eskuetan asi ziralako geratzen.

1.508ko Zemendiaren 16an, Beaumontdar II In Luis Leringo kondea il zan, eta bere seme Beaumonttar III In. Luis izan zan, Nafartar erregetzaren aurka, Albako dukearen gudaldia bideratu ebana.

1.508ko Abenduaren 10ean, Alemaniako I Maximiliano, Frantziako XII In Luis, II In Julio Aita Santua eta II In Fernando katolikoak, Kanbritzen, Beneziaren aurkako alkartasuna sinatzen egon zirala, XII In Luis eta I Maxilianok, beste kidegotasunezko itun bat sinatu eben.

Maximilianok, estu aldien gaiñetik, bakearen zabaltasunezko obari edo ongari guztiak gura ebazala Nafar erregeentzako, ta naita Frantziko XII In Luis erregearen aurkakoa izan, alkargo orreri idazkun berezi bat bialdu eutsen: ***Sinaduraren ostetik eta urte bateko epean, Nafarroako erregeari ezin jakiela kalterik egin, ez Frantziko errege bidetik, ez Foixtar Gazton Numerseko dukearen aldetik.***

Eta Alemaniako kaisarren arreba Margaritari esker, Nafar erregeen Kataliñ eta Juanen izeanak, sartuta geratu ziran alkartasun orreitan.

1.509ko urtean, Juan erregeak Nafarroatik kanpo euki ebazan jabetzak, Bearneko lege biltzarrean batu ebazan.

1.509ko urtean, Fernando Nafarroako zeregiñetan asi zan sartzen, eta erabagita eukela esan leike, beren erara, Nafarroagaz geratzeko.

1.509ko Uztaillaren 28an, Fernandok Balladolizetik, Beaumontdar III In Luis Nafarroako kondestableari idazten dautsen eskutitzan diñotso: ***Nafarroa, guda bidetik menperatzeko, berak esango eutsela, noz eta zelan egin.***

1.509ko Abenduaren 20an eta 1.510eko urtean sinatu zan Bloiseko alkargoaren bidez, Austriatar Maximilianok alde batetik, Nafar erregeak Juan eta Katalina babesten ebana,

eta bestetik II In Fernando katolikua, eta biltzar orreitan Gaztelako jaurkintzaren ardurak argituz, Juan eta Katalina Nafar erregeak izendatuak izatea lortu eban Maximilianok.

Gaztelan, erregeakaz sortzen zanagaitik, eleiza ta Europako erregeak, erregeen arazo orreik argitu eta erabagitzeko biltzartzen ziran: ***Europako erregetzaren iraspenak indartsu iraun egiazan.***

1.510eko Urtarrillaren 7an ostera agertu jakiezan Nafarroako erregeari albiste txarrak, XII In Luisen aldetik, Tolosako Lege Biltzarraren aginduz, Bearneko bizkonderriaren jauntza, Luiseri emon bear eutsoelako.

XII In Luis, Nafar erregearen aurkako jokoan, Lege Biltzar erabagien ondoan ibilita, Juanen zerbitzari batzuen ondasunakaz geratu zan, Foixeko Gaztoneri bost gazteluen ardura emonda.

Erabagi ori ez zan aurrera joan, Fernando katolikoa eta II In. Julio Aita Santua, asarratuta agertu ziralako.

1.510eko Urtarrillaren 21ean Iruñako gorte ta Bearnekoak illabete bat beranduago, bost ordezkioak bialduta, euren laguntza ta leialtasuna emon eutsoen urte biko alkartasunaren eskeintzagaz, Nafarroako erregeari.

Eta Nafartarren erreñua babesteko zeozer gertatzen bazan: ***Orokorrezko abizenak, dei adarrera deitu egiezala.***

Eta olan iraun ziran gauzak, 1.511ko urterarte emengo aldetik.

1.510eko urtean, II In Julio Aita Santua, XII In Luisegaz guztiz asarratuta, Nafar erregeai, exkomunikatu edo eleizatik kanpoko zigorra kendu eutsoen, Iruñako gotzai zeregiñetan, Juanen anaia, Albret'eko Amaniel kardinala ezarrita.

Oso denbora korapillotzuak ziran oneik, Aita Santuaren agindu gora-beran, Europako errege eta eleizako nagusi batzuk naaztuta ibili ziralako.

1.414-1.418 Konstanza eta 1.431-1.445 Basileako Eleiz Batzarretatik, zabaltzen ta indarra artzen asi zan, ***Aita Santuaren agintaritzaren gainetik Eleiz Batzarra zala bakarrik nagusi.*** Erregeak ondo ikusten ebena, euren naikerietan, sarri aurkezten ziralako Aita Santuaren zeatzasunakaz.

1.511ko Bagillan, Katalina eta Juan Nafarroako erregeak, uste eben, eurak erdikotasun edo alderdigabeen kokatuta egon zirala, naita euren babesle edo laguntzaille Maximiliano, Alemaniako erregeak, 1.508ko urtean Trenton II In. Julio Aita Santuagaitik kaisar Jauna aukuratua izan zanak, alegin asko egin, Aita Santuaren alderdian kokatu zitezten.

Naita eurak, beti baieztuz edo ta ziñeztuta esaten ebena, eurak sekula ez zirala alboratu II In. Julio Aita Santuaren aginpetik.

1.512ko urtean, Letraneko Vn Eleiz Batzarrean asita, II In. Julio Aita Santua izan zan eritzi orrean aurka urten ebana, eta 1.517ko urtean Xn Leonek, guda-indar bidez izan zan, Pisako sasibatzar eta gogamentzar orreikaz amaitu ebana.

II In Fernando katolikua bere maltzur ta guzurrezko ekintzagaz⁽¹⁾ izan zan bakarrik, Nafar erregeak, zalantzan ipinten ebazanak, egiaren aurrean.

Ez bakarrik Nafarroa berentzat gura ebalako, beren ametsaren asmogogoak, Lurrarteko itsasoaren inguru gustiaz batera, Konstantinoplaren jabetasuna gura ebalako.

Begitu nun geratzen ziran, gaurko espainitar aberkidearen ametsak, II In Fernandoren guzurrezko irakatsiak, egi lez ezarri gura ba dabe.

(1) Fernando izan zan eleizaren bareizkeri edo alderdikeri orreik sort-arazi ebazanak. Eta Nafar-erregearen aurka egiteko, ez eban ezeren lotsarik euki Aita Santua'ren bulda'k eskerniatzeko.

1.512ko urtean II In Fernandori miñ asko egiten eutsonak, Nafar erregearen Enrike semea Bianako Printzea lez, Frantziako errege, XII In Luisen alabeagaz ezkontzeko ibili zala, eta ortik atara ebazan bere arrazoiak, Albako dukea Nafarroaren aurka bialtzeko.

1.512ko Epaillan II In Fernando katolikoak bere maltzur bidetik, Frantziako errege XII In. Luiseri guda aurkeztu eutson, eta Nafar erregearentzat, ia ezinezkoa biurtu zan alderdi ba-getasunean agertzea.

Alde batetik, Nafarroaren zaintza, gaztelatarren alkartasunean aolkatzen ebalako.

Bestetik, Foix eta Bearneko laterriaren zaintzak, Frantziaren adiskidetasuna aolkatzen ebalako.

Eziñ eben ezelango mugialdirik egin, II In Fernando adi egon zalako, XII In Luisegaz alkar-goan baten bat egite ba eben, berak eleiza aldetik euken aukereagaz, Nafar erregeak, bereizkerizale ta eskomunikatuaren marran ezartzeko, zain egoalako.

II In Fernandok orren bitartean, Nafar ordezeko mezulariakaz, Burgos, Erromako Gotzai, ta Auzitegikoei, eziñ egin ziran guzurrezko adierazpenak egiten ibili zan.

II In Fernandok, Nafar erregearen aurka ausnartzen eban maltzurrezko jokoa, euren seme Bianako printzea, zelan bere baituran eukitea zan, bere bir-alabeagaz eskontzeko, Frantziako guda-lozteari, Auñamendi ta Bearneko bideak ebagitekoaren aitzakiagaz.

Bera Frantzira aldatzeko maltzurkeri uts ori, Gipuzkoako bideetatik aske ibilteko zan.

Baita, II In Fernandok, Frantziako bidearen ziurtasuna eukiteko, eta Nafarroan be, bere guda-lozte Santuak aske ibili zitezten, gudu antzezko gazteluak⁽¹⁾ bere agindupera eskatzen ebazan.

1.512ko Uztaillaren 3an, II In Fernandok, Nafarroako erregeak aulkitik botateko euki eban amarrukeria, berak Saldubako⁽²⁾ Uriari idatzitako eskutitzan agertzen dau:

-Frantziako erregeak, bereizkeri bidez, zatitu egin dau Eleizaren batasuna, katoliko bizitza artegarazita.

-Aita Santuak laguntza eskatzen dausku, etsai indarrak bere ingurutik aldentzeko.

-Erromako Aulkiak, Gurutzada orretarako, Barkamen osoa bialtzen dausku.

-Mezularien bidetik oartuta geratu gara, zelan alkargotu egin diran Nafar erregeak gure aurka, Frantzesari gure lurraldeetan sartzen izteko, ta gure erreñu ta jauntzazko lurraldeetatik eurak gura nai duena artzeko.

Eraso aldi ori, zuzengabekoa izan zalako, eta oraindiño ez ziralako agertu eskerniatutako Buldak⁽³⁾, Fernando basakerizko otso itxuratik, azeri emeen maltzur itxurara aldatu zan, zentzunezko gizon emakumearen giza barrenak iruzurtu edo atzipetu⁽⁴⁾ naian.

Orretarako, Bloiseko itun edo alkargo baten agiria, beren erara aldatuta agertu eban, Frantzia ta Nafar erregeen artean alkargotuta egon zirala esaten ebanak, Nafar erregearen alde, Gaztela ta Aragoiko menpetasuna lortzeko.

1.512ko Uztaillaren 17an, Nafar Mariskala Burgosen egoala urdurik, erregeari esaten eutson: *Fernandok lar eskatzen eballa, eta Abizen Orokorrezko deiadarrera dei egiala, guda-lozteak prest egon zitezten.*

Artu emon orreik II In Fernandok, Mariskalai egindako erantzunagaz amaitu ziran: *Berak, indarrez artuko eballa, zuek borondatez emoten ez dozuena.*

(1) Gudu-antzezko gazteluak = castillos estratégicos. (2) Salduba = Zaragoza. (3) Eskerniatutako buldak = bulas del Papa falsificadas. (4) Atzipetu = engañar, embaucar, trampear, seducir engañosamente.

1.512ko Uztaillaren 21ean, Albako dukearen gudaloztea, 1.000 gudari gizon, 2.500 zaldi, 6.000 oinkari eta 20 kañoiakaz osotuta egon zana, III In Luis Leringo kondeak bideratzen eban, aurreko lerroan Giputzak, Arabarrak eta artean nafar zaltzailleak zirala, Burundako ibarretik mugak apurtu ostean, Etxarri Aranazen gau eginda.

1.512ko Uztaillaren 22an Uarte Arakilen egin eben gaua.

Eta Uarte Arakil babesteko egon ziran Erronkal gudari apurrak, Ozkiarteko aizpitartera aldatu ziran.

Sartzailleak, Aizkorbeko lepotik inguratuta alderatu eben arrizku ori, gau orretan, Iruñaren aurrean, karpapeetan lo eginda.

Nafarroako I Juan erregeak, Tuterari 500 gudari eskatuta, Katalina erregeñari, Bianako printzea eta beste seme alabakaz batera, Bearnera aldatu zitezela agindu eutsen.

Eta iges egite ori, ain bizkorra izan zalako, Frantzisko semea, bero ta nekearen larritasunagaz il jakien.

1.512ko Uztaillaren 23an Iruñatik, Nafar erregeak exkomunikuaen pekatua egin ebela ta, azpiko jokoaren zurmuruak zabaltzen asi zirako, gau orreitan I Juanek, alde eban.

1.512ko Uztaillaren 24ko gauan Muskarian⁽¹⁾, Gonzalotar Mirafuentesen agindupean egon zan Nafar gudaloztea, Tafallara aldatu zan, eta Gonzalo au oartuta, erregeak Iruñatik alde egin ebela, Lumbierrera aldatu zan aginduaren itxaropenean.

1.512ko Uztaillaren 25ean, Gaztelar guda nagusi, Toledoko Fradike Albako dukeak, Arga ibaia igaro ta beren gudaloztea zabaldua, eraso egiteko prest egoala, Uriaren ziñezko gizonak aurreratuta, Iruñako giltzak emon eutsozan.

Berak, Gaztela ta Aragoiko erregeen izenean:

Oiturak eta oiarauak begirunez gordeko ebazala ziñ eginda.

-1.513ko urtean Epaillaren 23an Iruñako Urian, eta Nafar gorteko batzarra, Beaumontdarrazak bakarrik osotuta, II In Fernandok Foruari ziñ eginda, ***eutsi egingo ebala Nafar jaurkintza guztia***, esan ostean, ***Nafarroako errege izendatu eben.***

-1.515ko urtean Tuteran sinatu zan alkargoarekin, nafarroako erregeari andik aurrera, jaurkintzazko bideak moztu eutsoezan.

-1.515eko urte orretan, II In Fernandok Burgosen, Gaztelako gortekak batuta eta iñungo Nafar ordezkariarik bage, Gaztelako erregetzagaz alkartu eban Nafarroako erregetza.

Eta emendik aurrera, Kataliñ eta Juanek egin ebezan alegin guztiak alperrezkoak ziran, arik eta euren seme Enrikek 1.530eko urtean, errege lez jaurkitu Benafarrako lurraldeak, Gaztelako I Karlosentzat, Auñamendiko basoak gatz izanda jaurkitzea, muga lez, bertan itzi ebazalako.

1.516ko Urtarrillaren 23an Fernando katolikua il zanetik, Gaztelako menpekotasunak Zizneros kardinalak zuzentzen ebanai zor dautsezela, ***baita gaurko espaina onek be***, Nafar menpekotasuna.

Kanpionek emen, garrantzi aundiko gauza bi argituten dauz, ***Nafarroa, Fernando katolikua menperatu ebala, beren aurpegia erlijiozko mozorroaren estalpenagaz azaleratuta.***

(1) Muskaria = Tudela.

Eta Nafarroaren egizko menperatzailea, ez zala Albako dukea izan, IIn. Julio Aita Santua baizik.

Goian aipatu dogun lez, Fernandok oraindiño lotsa edo *begirunezko baita* apur bat eukela ziurtzeko, esan bear dogu:

Fernandok, nai ta gudak emoten dauan txar edo okerrezko eskubideakaz ezarri ba eben beren ekintza nafartarrakin, Done Fransizko Xabierren aitari, Nafar erregezko legearen aldekoa gorputz ta arima guztiagaz izan zanari, egizko zentzudun lez agintaritzan eskubide aundikoa zalako, euki eban aolkularitzazko aginpidearen errege-lanari, lotsa edo begirunez, il arte itzi eutsola.

Eta ekintza orrek au ikusi ezkeru, zeozer geiago esangura dau, berezko errien menpea, goi aldetik aginduta, erregeak baiño aginte geiagoa euki eben lekutik agertzen zalako.

Ortik aurrera, Gaztelako gorte ta erregeak ondo baiño obeto zaindu eben Iruñako gotzaiñ eta eleizaren agintaritzazko lekeide/me etxeetan Naparrak ez zitezela sartu, edo ta errege aulkietan Nafar-semerik ez egian ezarri. Nafartar erregetzaren irudia galtzen joan daiten, ta espaindar aberrikuntz katolikoaren irudia dirdaitu, Euskerearen izkuntza ezereztez, euskal aberritasunaren nortasuna, katolikotasunezko aberrikoi biurtu *dagian*.

Gaurko Laterriak eleizagaz daukien *eleiz-itunak*, ber-berori erakusten dabelako, berezko erriak diruz kontrolatuz gaiñ, Laterrien eragipenagaz, auek Erromatar Batikanori aurkeztuten eutsoezan gotzaiak, gure euskal lurraldearen (*artzaiak* ?) gotzaiak izan daitezen.

Alan egin eben Zizterreko lekaideak XVI n gizaldiko amaieran, Nafarroako erregearen il obiak ikus ez egiteko lekuetan ipinita, Nafar erriak, aaztu egian bere errege-arbasoak⁽¹⁾.

1.516ko urtean Urtarrillaren 23an Fernando ilda, Nafarroako erregeak ostera be gudarako leiaitsu agertu ziran, baiña aurrean Jimenez de Ziznerostar Fransizko, Toledoko kardinal nagusia, fedezain⁽²⁾ aundiena, eta orain errege-ordea zana agertu jakien, eta atzera egin bear eben.

Zisnerosek, koronel Billalbarekin Nafarroako gaztelu, eleiza ta dorre guztiak moztu ebazan, ainbat nafar ilda ta ereineko lurak kiskildu.

-Triskantza au eginda, Villalba koronelak Zisneroseri idatzi eutson: *Navarra esta tan baja de fantasia, despues de que vuestra señoria reverendisima mandó derrocar los muros, que no hay hombre que alce la cabeza sobre ellos* .

1.516ko Epaillaren 7an I Karlosen errege aolkulariak, berari esaten eutsoen, Nafarroako erregetza ostera emon edo itzuli egiola berezko erregeari.

Aragoiko Alfonso⁽³⁾ Zaldubako gongotzain edo artx-apezpikuak baiña, bere ugazanai I Karloseri eskatu eutson: *Nafarroako jabetzari eutsi dagiola, euren laterriaren babeserako bere zainpean, Auñamendiaren igarobide guztien giltzak eukazalako.*

1.517ko urtearen Iraillan Zisnerosek urtenda, Gaztelako erregetzan Igoa ta Alemaniako erregetzan Vna izan zan Karlos artzera joan zan.

1.517ko urtean Azaroko 8an, Zisnerosek ez ebana ikusi, bidean Roako errian il zalako 81 urte eukezala.

1.518an IIn Enrikek Montpelieren, ostera saiatu zan Gaztelako I Karlosekin Nafarroaren Ego-aldea askatzen eta alperrik zala ikusita, gudarako asi zan antolatzen.

Nafartarrak, ostera aupatu ziran borrokarako, Noainen 1.521eko urtean Bagillaren 30ean guztiz apurtuta geratu ziranak.

(1) Donemiliagako Kukullan nik ilusita. (2) Fedezain = inquisidor. (3) Aragoiko Alfonso = IIn Fernando katolikuaren sasi semea zana eta I Karlosen ugazanaia.

-Andik aurrera, espainaren Igo Karlos, Alemaniako Vn ta Nafarroako IVn errege izango zanaren eskuetan geratu zan dana.

-Onesk, Beenafarroakoak bertan itzi edo ukatu ebazan, eta Auñamendiak berezko muga baten antzera geratzea lortu eban.

- Emen argi ikusten dana, erregeak elkargokoak izan arren, azpikeriko joko baten bidez, erri-berezien suntsitutasuna gura ebela, baiña erri guztiak iltea lortu ezin leikezalako, alkargoan irraun gendun Austriatarren erregetzaldi guztian.

-Denboraldi orreitan, euskal gizon emakume askori, apur apurka Madrilleko jauregiaren lorio-bideetan⁽¹⁾ euskal izatasuna zatika jausten jakiela, *nortasuna galtzen asi ziran, bazuentzat atsegiñezko jokia izan zalako.*

1.517ko Otsaillan Nafarroako Kataliña Mont-de-Marsangoko irian il zanean, berak euki zituzen amalau seme-alabetatik, sei bizirik egon ziran.

Nafar erregeak gazteak ziranean, Madalena amamak betetan ebazan erregeen-ordezkoak, erregearen aita Albret'eko Alano jaurkintzagaz jabetu zanean baiña, gauzak txarrera okertu ziran. *Ez zan gizon ona, diru-zale, andi-nai, arroputz eta aldakorra izan zalako.*

2. 36. *Nafarroako I Kataliñ erregiñak bere senar Foix'eko III In Juan'egaz euki ebezan alaba semeak.*

Nafarroako Ana; Nafarroako Madalena; Nafarroako Katalina; Nafarroako Juana: Nafarroako Kiteria; Nafarroako Andres Febo; Nafarroako II In Enrike; Nafarroako Zorione⁽²⁾; Nafarroako Martin; Nafarroako Frantzisko; Nafarroako Karlos; eta Nafarroako Isabel.

2. 37. *Aragoiko II Ina eta Gaztelako Vn Fernandoren bizi kondaira laburra.*

II In Juan Aundia esaten eutsoenai, eta bere bigarren ezkontzako Enrikeztar Juanaren semea zan.

1.459ko urtean Urrillaren 26an Aragoiko mugan, Sos'eko Sada etxe aundian jaiio zan II In Fernando katolikua, bere ama Enrikezen borondate ta alegiñ aundi-gaitik, argintzako une orreitan bera oraindiño, Nafarroako lurretan egoalako.

II In Juan eta Nafarroako I Blankaren seme IVn Karlos Bianako printzea eta Aragoiko ondorengotasunean zarrena zana, Aragoiko ondorengotasunetik kentzeko.

Ortik aurrera, eta IVn Karlosen bizi kondairan ikusi dodu, zelango ale-



giñak egin ebazan Enrikeztar Juana, IVn Karlosen ama-orde onek, azkenean IVn Karlos pozoituta ilteko.

1.458ko urtean Fernandoren aita II In Juanek, Montblaneko duke, Ribagorzako konde eta Balagerreko Jauna izendatu eban.

1.461eko urtean bere anai orde IVn Karlos il ebenean, Kalatayuzen Fernando izendatu eban, Aragoiko erregetzaren ondorengo lez.

1.462ko urtean, Kataluñaren orokorrezko ordekoa izendatu eban⁽¹⁾.

1.468ko urtean Siziliako errege.

Eta 1.462-1.468ko urte bitartean, Kataluñako anaien arteko borrokan, beren aita II In Juanen aginduz, jaurkintzazko zeregiñetan sartu eban ikasle lez.

1.468ko urtean, bere Gaztelako lengusu Alfonso erregea il zanean, eta I Isabel Gaztelako ondorego lez onartuta, II In Juan bere aitak, iñungo alegiñ guztiak egingo ebazan Fernando Isabelegaz ezkontzeko.

1.469ko urtean eta Balladolizeko landaretegiaren jauregian ezkondu ziran Isabel eta Fernando.

1.473ko urtean ta Bildurgabeko Karlosegatik, Urrezko Toisoneko⁽²⁾ erakundearen zalduna.

1.474ko urtean Lorailaren 24an, Palensiaren Dueñasko urian Jasokundearen Andra Mariaren eleizan ospatu zana, Beljikaren Biebreseko Jaun Rubenpre´tar Juan´engaitik.

1.474ko urtean Gaztelako errege IVn Enrike il zanean, Gaztelan anai arteko guda asi eban Trastamarako Juana **La Beltranejak**, Portugaleko Afrikatar Vn Alfonsok lagunduta⁽³⁾, bere ustean, bera zalako IVn Enrikeren alaba, naita Gaztelako gortekoak jakin, Beltranen alaba izan zala.

1.475eko urtean Aragoiko II In Fernandok, eta eztabaida askoren ostean, Segobiako Adizkidearen elkargo bidez lortu eban, I Isabelegaz errege izan, agintaritzazko neurri bardiñean. Eta emen esan leike Aragoi eta Gaztelako erregetzak alkartu zirala, naiz eta II In Fernandok, beti bereiztuta eroan orren jabetza, agintaritzazko gauzak, euren kasketaldietan eroaten ebazalako.

1.476ko urtean, Toron, egin zan erabagibageko borrokan amaitu zana.

1.476ko urtetik 1.477ko urterarte, Santiagoko erakundearen diru-zaiña izan zan.

1.478ko urtean, Gaztelako Inkisizio edo fede-zaintza sortu eban.

1.479ko urtean eta Beltraneja´tar Juanaren gudalozteak menperatuta, Alkakobaseko itun edo ongune bidetik, I Isabel izendatu eban Gaztelako erregeña lez, Beltraneja´tar Juana, Koinbrako lekaimetxe baten zokoratuta.

1.479ko urtean Urtarillaren 20an II In Juan aita ilda, II In Fernando egin eban Aragoiko errege.

1.480ko urtean Toledoko gortearen 111ko legean idatzi eban Aragoi-Gaztelako erreñu bien elkartea.

1.480ko urtean, Gaztelako gortek aginduta, zuzendaritzaren irudia zabaldu eban errege katolikoaren ardurazko lurrale guztietan.

Eta 1.481eko urtean eta Kalatayuzeko elkargoan baieztu zan erregetza bi orren elkartea.

1.481eko urtean, sortu eban Gaztelako erregetzan, billaketa, edo ta Fede-Zaintzaren Inki-zizioa, erdi matxinatuta egon ziran zaldunak zigortu eta diru-kontuak zuzentzeko.

(1) *Orokorrezko ordezkoa = lugarteniente general.* (2) *Caballero de la fundación del Toiso de Oro = Urrezko Ille-zama edo Artillerako erakundearen Zalduna.* (3) *Portugaleko Vn Alfonso Afrikarrak gura ebena, Portugal Gaztelagaz bat egin, katolikotasunez aberrikutz asmo orreik, Portugaleko izenean eroan aurrerantza Kaisar lez.*

1.481eko urtean, Granadako Nazari mauritarren erregetza asi ziran menperatzen.

1.481-1.492ko urte bitartean iraun eban borroka au.

1.486ko urtean II In Fernandok, ez eban ikutu Aragoien jaurkintzarako egon ziran legerik, askatasunezko eritzikoak izanda, ostopo aundikoak izan erregearen ausi-eziñari edo uki-eziñari⁽¹⁾, eta berak agintzen eban lurraldeetan, Guadalupeko artekaritzaren erabagiak sendotzeko, katalan remensak, berentzat euki eben oitura txarrak kendu ebazan.

1.492ko urtean Urtarrillan 2an amaitu eben Granadako borroka, Boabdillen menpea edo etsaimenduagaz.

1.492ko Epaillaren 3an II In Fernandok, bateatu barik egon ziran judo guztiak kanporatu ebazan erdiugarte onetatik.

1.492ko urtearen ezkerotzik, Aragoien eragipena zabaldu gura eban Lurrarteko Itxaso bidez Ekialderantza, leen Italia eta Afrikako Iparraldekoa eginda.

1.493ko urtean, Bartzelonako ungunearen bidez, 1.463ko urtetik frantzespean egon ziran Roselloneko lurralde ta Zerdeñako ugarte berreskuratu ebazan.

1.495eko urtean, Napoles eta Siziliako erregetzak bereganatzeko, Alkartasun Sakratua⁽²⁾ irasi eban.

1.496ko urtean Abenduaren 19an, aita santu VI In Alejandrok, bera aragoitar semea izan arren, ez zan agertzen batera II In Fernandogaz, billur zalako aitasaindugo lurraldeak kenduko eutsozanagaitik, VI In Alejandrok bere berunezko bulda bategaz, I Isabel eta Fernando, katoliko lez izendatuta.

1.502ko urtean Otsaillaren 14an, mauritar guztien kanporatzea agindu eban, auek katolikoaren aberrikuntzazko erlijiora ez ba ziran biurtu edo aldatzen.

Granadan, mauri errege Boabdilegaz, erlijio, izkuntza eta euren nortasunezko oiturak lotsean edo begirunez artuko ebazalakoan, zinatu ebazan onartzeko baldintza guztiak.

1.504ko urtearen Azaroan II In Fernandok, frantzesari kendu, eta Aragoiko koroaren ize-nean ipini ebazan Nápoles eta Siziliako erregetzak.

1.504ko urtean I Isabel ilda, II In Fernandok, euki eben alaba zarrena Juana eta Zoroa esaten eutsoenai igon eban Gaztelako aulkira erregeña lez, jaurkintza berak artuta I Isabelek bere azken naian idatzi eban lez.

1.505eko urtean Urrillaren 19an II In Fernandok, Frantziko errege XII In Luisegaz egonda, onen lenengo lana, Luis´engandik I Felipe ederrak euken laguntza ezereztu eban, eta bera Luis´engandik baimena artuta, 18 urte eukezan XII In Luisen loba, Foix´eko Jermanagaz ordezeko legean ezkondu zan, berak 53 urte eukezala.

1.505eko urtean Juanaren senarra, I Felipe Ederra, ez eban gura panpiña baten antzekoa izan, eta II In Fernandogaz Salamankan batzartuta, Juana ta I Feliperen jaurkintza onartu eban, II In Fernando bera, erki-jaurleri lez geratuta.

1.506ko urtean Epaillako 18an Palentziako lurraldearen Dueñaseko Urian eta Buendía kondearen jauregian ospatu ziran ezkontza orren uztarketak⁽³⁾, bere emazte Jermanari Napoleseko erreñua emonda eta berari, bere il ostean osterata itzuli bear eben Jerusalemeko erreñua, II In Fernando beartuz geratuta, eukingo eben semea bere ondorengoa izan zedin.

(1) Erregearen ausi-eziñari, edo iku-eziñari = *infrangibilidad del rey*. (2) Alkartasun sakratua = *liga santa*.

(3) Uztarketak = *velaciones del matrimonio*.

Begitu non geratzen direzan, 1.480ko urtean Toledoko gortearen 111ko legean idatzi ziran Aragoi-Gaztelako erreñu bien elkarteko, erabagiaren legeak.

1.506ko urtean eldu ziran erdiugarte onetara I Juana ta bere senar I Felipe, eta laster agertuta II In Fernando ta I Felipe´ren asarre edo nai-ezak, Billafafilaren elkargo edo itun bidetik, II In Fernando Aragoira bialdu eben, Gaztelako errege lez, I Felipe Ederra geratuz.

Eta II In Fernandoren maltzurrezko gaiztotasuna danak jakin arren, baita berak euki ebazan maltzurtasunezko asmoak izkutatzeke, Napolesera joanda, nork susmatuko eban, 1.506ko Iraillaren 25ean, ***pozoituta ?*** I Felipe-Ederra ilgo zala, eta ***Juana zoratuta, Gaztelerrian, Fernando katolikua agertuko zala, arduradun nagusi lez ?***.

1.506ko urtean Iraillaren 25ean I Felipe il zanean, Zisnerosek artu eban ordegotza, baiña laster emon bear eutsoen II In Fernandori ostera, iñor ez ebalako jakin zer gertatuko zan, II In Fernando Gaztelako erregetatik kanpo itzi ba eben.

Nundik ote dator, katolikotasunezko aberkidetasun ori, erregetzaren ondoregotasunetik, edo erlijiozko bidetik ?.

Argi ikusten da emen, II In Fernandok ez ebalako euki gerorako, katolikotasun aberkeririk edo alango burutasunezko elbururik, bere norkerizko agintaritzan, aurrean eukiten ebalako erabagi bear ebena, bere gogoan ez ebalako jokutzen, osteko etorkizunekin.

II In Fernando agertu zanean, betiko zarratu eban bere alaba Juana Tordesillaseko dorrean, II In Fernando bera, buru belarri sartuta sakratuzko alkartasunean Kanbraiegaz, Beneziaren aurka.

1.509ko urtean euki eban beste seme bat Foixeko Jermanak, eta bizi zan denbora baiño ordu batzuk geiago bizi bazan, Aragoiko erregetzaren ondorengo lez izendatuko eben, gaztelarren etsipen edo etsimendurako⁽¹⁾, eta bai ta Gaztelar erregeari, Aragoiko bideak moztuteko.

1.512ko urtean II In Fernandok Nafarroa menperatzeko, II In Julio aita santuaren eskarniatu edo okertu ebazan berunezko buldak ibili ebazan, Nafarroako Kataliñ eta bere senar Foix´eko Juan eskomunikatu edo eleizatik kanporatzeko.

Jakinda, aberri-katolikotasunaren menperatzailezko legeetatik kanpo, zer gertatzen jakoen erregeari, eskomunikazio orretan ezarri ezkeru. Eta orregaz baliotu zan bera.

1.512ko Uztaillaren 25ean, Gaztelar gudar-nagusi Toledoko Fradike Albako dukeak, Arga-ibaia igarota eta gudaloztea zabaldua eraso egiteko prest dagoala, Uriaren ziñezko gizonak aurreratuta, Iruñako giltzak emon eutsozan. Berak, Gaztela ta Aragoitar erregeen izenean, euren Foruak, oiturak eta oi-arauak zintzo gordeko ebazala ziñ eginda.

1.512ko Uztaillaren 31n, Fernandok, guzurrez betetako agiria zabaldu eban.

1.512ko Iraillaren 21ean, Ego-aldeko Nafar osoa menperatuta geratu zan.

I Kataliñ eta I Juan Nafarroako erregeak, bereizkeri edo Alderdikeri-zale eta fede-ausle edo sinist-ausleak sekula-be ez ziran izan. Eta izan ba-ziran lez ordaindu bear eben. aita santuaren baimenagaz, maltzur guzurtiei aukerea emonten eutselako, katolikotasunaren eberkuntzazko asmakeria aurrera eroateko, Jainkoak ludi oneri ipinitako lege guztien aurka.

Bereztasunezko errien artean, Nafarroa menperatzea, lapurkeri aundi bat da, eta or dago 500 urte geroago konpondu barik, Erromako eleiza berak be, bere okerkeriak zuzendu barik daukazelako.

(1) *Etsipen edo etsimendurako = desesperación.*

Ez jakie esango, lapurrak direla ?.

IIIn Fernandok, ez eban Nafarroa gaztelarrentzat menperatzen ibili, berentzat baizik, eta alan agertzen da berak egin eban armarian, Nafarroako armaria Aragoiko marra artean agertuta.

IIIn Fernando, IIIn Juanen seme on-lez, Nafarroako anai gudan, buru belarri sartuta egoan, eta geiago, gaztelarren gudalozteak Nafarroako lurraldeetan sartzen ebazan orduan, Beaumotdar IIIIn Luis eta IIIn Julio aita santuen buldako laguntzagaz, Euskalerriko Nafar erria menperatu arte.

1.513ko urtean Epaillaren 23an Nafarroako gorreak batu ebazan IIIn Fernandok, eta batzar orreitan Baaumontdarrak bakarrik egon zirala, IIIn Fernando izendatu eben Nafar errege lez.

1.515eko urtean Bagillaren 7an, gaztelarrak Burgosen batzartuta, eta iñungo Nafar seme-rik-bage batzar orreitan, Nafarroako erregetza gaztelar koroagaz alkartzea erabagi eben.

Ez ebena bereala lortu, gudak aurrera egiten ebelako, arik eta Fernando ilda, bere seme I Karlosek 1.524ko urtean, guztiz Nafarroa menperatu arte.

1.516ko urtean Urtarrillaren 23an, Kazerezeko lurraldeetan, Madrigalejoko erritxoan il zan Aragoiko IIIn Fernando, Guadalupeko lekaimetxean Kalatrava eta Alkantarako erakundearen batzarrera joan zanean⁽¹⁾.

Jermana aurdun itxigura ebalako, baleiteke euken eriotzea, beren arremezko artu-emonak bizkortu egizan, kantarida⁽²⁾ asko ibilteagaitik izatea. Beste belar bat be egoan Kanariaseko ugarteetan, aita santuaren belarra esaten eutsoenai. Dana dala, larregi gura eban berentzat IIIn Fernandok, eta estutasun orreitan agertu jakon bere eriotza.

IVn Karlos erregearen Nafar kondairan ikusi dogu, zelan bere ezkontzatik kanpo eukezan semeen artean, Kolon tar Kristobal agertzen jakula.

Eta Kolonen idaz-lana ariñautik eginda daukatelako, bertatik artuko dodaz bear dodazan zeaztunak, IVn Karlos Nafar erregearen semea zala ikusi dagigun, idazten dodazan zeaztunak, berton idatzi dodazan zeaztunakaz parekatu ostein.

Garrantzi aundiko gauza jakitea dalako, errege katolikuak, Koloneri emon eutsezan erregearen ordexko Jaurlari ta aiek urrezko ondasun aundiak, izen buru aundiekaz batera, ez eutsoela emon Jenobako edozein bildots-illearen sal-erosle bateri, errege seme bateri baiño, gainera, Fernando eta Isabelen, leen maillako lengusu-loba edo istar-lengusua izanda, bere aita Nafarroako IVn Karlosek, IIIn Fernando ugaz-anaia eta I Isabelen leen maillako lengusua zalako.

2. 38. *Kristobal Kolonen, bizi kondaira laburra.*

Kolonen izena, baita beren alaba-semearen izenak eta bizitzak aiñ ostonduta ekarteko, izen leikezan baldintzatik asiko gara.

2. 39. *Leen, sasikumetasunean jaiotakoaren aurkako legeak.*

Aurrerago ikusiko dogun lez, Kolon, erregearen semea zan, eta ama aberatsa izan arren, erri koskor edo mailla txikikoa izan zan lez, ortik agertu ote jakozan, bere bizitzazko lan aundi guztien onartzeko arazoak ?.

(1) Bere Bizkaitar Larreatar Todayaz (pozoituta il ebena) euki eban alabea, abata izan zana, ikustera joan egingo ote zan ?. (2) Kantarida = insecto coleóptero, de color verde oscuro brillante, que reducido a polvo o tintura alcohólica, sirve en la farmacia como vejigatorio, en aquellos tiempos usado como afrodisíaco.

Eta orren aldi bat beintzat jakiteko, orduko kaizar legearen baldintzak ezagutuko doguz:

-Gaztelatar Alfonsotarren erregezko legeak, zeatz eta garbitasun guztiagaz debekatzen dabe, andre edo ta emakume txipiki, xume⁽¹⁾, edo ta oakaideakaz⁽²⁾, errege, printze, duke, konde, andiki eta abarrekin ezkontzea, gizarteko maillan eurak edo gurasoak azpikoak izan da *“ez zalako egokiena edo bear bezelakoa” orren goi maillako odolak, emakume xumearen odolagaz nastatu edo ongaizkatzea.*

-Eta jakin degun kaizarkerizko lege orreik noraiño debekatuten ebazan ezkontza orreik: *“Andiki ta erriko alaba bitarte orreitaitik sortzen ziran seme-alabak, andiki aiek debekatuta eukiten ebela jaioten ziranak, euren seme lez onartz.en”*, eta arrotzeko etsaikeri⁽³⁾ bidetik euren gurasoen ondorengo guztiai debekatuta be, umearen aziera edo ta azkuntza, jaiio berri ori, erri-ume⁽⁴⁾ biurtuta.

Errege guztiak baiña, sasiko seme-alaba ugari eukiten ebezan (*eta emen itauna*): zergaitik babesten ebazan guztiak, eleiz ta gobernuaren agintaritzazko leku berezietan kokatuta ?.

Orduan, zer edo ta zelangoak izan ziran lege orreik eurentzat ?.

-Eta emendik agertzen dira Kolonen senditasunezko izatearen izkutuzko illuntasunak, zati baten beintzat, bera IVn Karlos Nafar erregearen ta Mallorkako Kolon´tar Margaritaren semea izanda, eta bere aita IVn Karlos´en senidetasun bidetik, I Isabel erregeiña eta II In Fernando erregearen berezko loba edo ugaz-illoba izan zalako.

Edestilariak orregaitik, I Isabel, II In Fernando katolikoa ta Kolonen artean egoan izkutuko ongune bidetik, Kolonen jaiotasunezko izatea agertzen zanean, Korapillozko itaun mor-do bategaz aurkitzen ziran aurrez aurre, edestilari batzuk, euren Genobako erriaren edo euren irabazkoitasun alde begira, edozer gauza ipinten ebazalako, Berd ta Martorell´tar Gabriel´ek aztertzaille lez, aztarka asi arte.

-Nungoa ote zan Kolon: Jenoba, edo Mallorkakoa ?.

-Noren semea: Genobako artille saleroslearen Kolontarrena, edo Mallorkako Kolontar Margarita ta Nafartar IVn Karlos erregearen semea ?.

-Ala, Kolonen jaiotzazko senidetasuna, Gaztelako I Isabel ta II In Fernando katolikoagaz ziñezpeko baldintzakin, goian aipatu doguzan kaizar debekatuzko legeakaz, iñork jakin ez egien nungoa ta zer izan zan, itzarmenduta egongo ote zan ?.

Edo Kolon, Nafartar IVn Karlos erregearen semea izan da, Isabel ta Fernando erregearen leen maillako senidea zalako: Fernando, Kolon, I Isabel, eta beren aolkularitzazko aitolarria zan Ernando de Talaberatar Lekaidea, Abilako gotzaiña, Salamankako batzarretan nagusi, Kolonek euki eban asmoaren aztertzaille nagusia, eta erregeakaz aolkulari ta artekari zana-gaz batera, danon arteko egiunezko “Aitor-ixilpe”⁽⁵⁾ bat eukingo ote eben ?.

Orregaitik artu bear dogu kontuan, Aragoi ta Fernandok ez ebela euki ezer ikusterik arazo onetan, Gaztela-Leongo eleiz apaiz-lekaideak Isabelegaz ziralako, asmo onen yagole edo zantzaleak, II In Fernando artean egon arren.

Orduko denboraren erregeen agindu naiak, feudo edo ta maiztergoko jaunaren lege bereziak ezereztu egiten ebazalako, nai legeilletasunean, epai-legetan eta egilletasunezko arlo guztietan.

Kolon, orduko denboretan, ez zan iñungo legearen bereizkuntza edo salbuespen⁽⁶⁾ bat.

(1) Emakume txipiki edo xumeakaz = mujeres plebeyas. (2) Oaide, mulastin edo oe-lagun = barragana. (3) Arrotz-etsaikeri bidetik = a través de posiciones xenofobicas. (4) Erri-ume = inclusero, o, bastardo. (5) Aitor-ixilpea = secreto sacramental. (6) Legearen bereizkuntza edo Salbuespenbat = excepción, exención, dispensa o privilegio.

Orregaitik, 1.491ko urtean errege katolikuak, ararte Granada inguratzeko euki eben kanpaldian eta gero eraiki eben Santa Fe'ko Urian, ziñatu zan Granadaren menpekotasuna, baita Kolonek Indias'etara egingo ebazan bidaiaren elkargoak.

Orrez gain, Santa Fe'ko zeregiñaren zentzuzko asmoetan, zeozer geiago eukiten ba eben: "berton erabagi zan, erdiugarte edo peninsula onetan euren katolikoatasunezko espainiar asmoaren batzangotasuna lortuarate, ez ebela atzekadarik egingo.

Baita erregeak, eurak ostondu bear ebezan gauzaren, itzarmen, azpiraketak, kidetasun, sasiseemeen jaiotzak eta gaizkideko ixiltasunak erosten ebazanak, euren baitan pekatu orreik garbitzeko, Kolonegaz sortu zan bezela, begirune andikoak izaten ziralako, leku berezietan kokatuta euren sasikume orreik, euren odolak erregearen odolekuak be ziralako.

Ni ziur nago, Isabel eta Fernandok aurreko edestiari begira, ez ebela euki euren gogoetan alango batzango barnetasunik⁽¹⁾, gaur Europa guztian bananduta, leporatuta daukaguzan menperatzailetasunezko laterri auk euki dagiguzan.

Leen, sakontasunezko ikasbide orreik osotzeko, eurak, ez ebelako denborarik euki, eta argi ikusten dogulako Fernando ta I Isabel'ek zer egiten ebezan lege orreikaz.

Kontuan euki bear dogu, denbora aietan Bizkaia askoz zabalagoa izanda, Aberria zala I Isabel, IIIn Fernando ta Europako errege guztientzat, eta begirun orregaz artzen ginduzala inguru guztikoak, eurokaz euki genduzan nortasunezko itunak nastezkoak izan arren, Bizkaitarrak orduan jakitun eta larderi aundikoak ziralako.

Eta bigarren, edestiari begira alango batzangotasunaren asmakuntza urrunean ikusteko, beronek bear dauan antolakuntza lortzeko, berentzat goi maillako billakarien jakitun elkarte aundi bat bear ebalako.

Erregeak orregaitik, orduko denboran une guztietan etenbageko borrokan eta borrokarako asti barik ibilita, Europako erregeak nundik nora ikusiko eben errigizarte ta aberriko gauzatan aín urriñera, aurrean euken itsaso ta lurak be, ez ba ebezan ezagutzen.

Europa, Asia ta Afrikako errege-erregiñaren gainetik, beste erakunde gogor bat egon bear zan, eurak panpiñak lez erabilten ebazanak.

Nun aurkitu, menpeko batzangotasunaren asmatzaille orreik ?.

325eko urtean Nizeako Eleiz-Batzar Nagusia egin zanetik dator katoliko asmakizun ori, eta bertan dira betidanik jakitun orreik, munduan dagon goi maillazko ikastetxe nagusi orren elkarte orretan egon diralako beti, Ludi onen Ipar, Mendebal, Egoalde eta Ekialdeko aolkulari nagusi lez.

Bai eta gauza orrein argibide aundiena dana, Zisneros kardinalarekin daukagu, bera izan zalako Nafar erregetza gaztelar erregetzaren menpean edo etsaimendeko lez ezarri ebena, naiz katolikuaren azpiko joko ori izkutatzeko, I Isabel, IIIn Fernando katolikuak edo ta I Karlos'en izenak erabiliz.

Espainiko laterritasunaren arrazoiak izan zirela asmakuntza oiek ?.

Ez, mundu osoaren batzangotasuna lortzeko alegiñean ibili ziralako.

Gero eta Ludi osoaren batzangotasuna lortu ezinik ibilita, 1.789ko Frantziko iraultzaren bidez, XIXn gizaldean arrotz laterritu eben Ludi gusti au, berezko errigizartearen nortasun ta eskubideak zapalduz ezeren begirun barik.

(1) *Barnetasunik = profundidad, interioridad de conocimientos futuros.*

Eta odoljariozko ixurketa baten etorri dira edestitik zear, berezkotasunaren aurkako batzangotasun orreik lortu ezinik, Jaungoiko Berak, bereztu ebazan legearen aurkakoak diralako.

Nori esan bear jako, batzangozko gauza orreik Jaungoikuaren Legeen bitarteko azturan izan bear dirala, *bereztasunaren ekanduzko legean lortu ezik*, ez dagoelako beste biderik, munduko errigizarte guztian, bakez, batzangotasunezko ulermen orreitarra eldu gindezen.

Eta ardua dala ustedot ulertzea, bakotzaren askatasunezko eskubidea, uki-ezinezkoa dala, *Jaungoikuak erperatu ebalako Gai ezko-Ludi au, danontzat dan lege bardiñagaz.*

Gaiñera, batera ezin diralako gurtu, Zeruaren Goiko Jaungoikoa ta asmatzen doguzan gaiezko sasi-jainkoak.

2. 40. *Mallorka ugartearen asierazko edesti ta Kolonen alditan bizi ziran jendearen jakituri ta nortasunezko zeregiñaren aurkezpena.*

Mallorkaren ugartea, beste ugarte bi Ibiza eta Menorka erdian kokatuta dago, bere 3.625 Km karratuekin, itsas-bazterren inguruak 300 km. daukazela, Puig Mayor mendiaren goialdiak 1.500 metroekin, eta Erdi Ugarte edo peninsulatik 25 leko⁽¹⁾ Bartzelonako Egoalderaiño dagozela.

524.980 biztanlekin, Palma bere Uri nagusiaren edertasunean, abelur-ikastetxe, zapataren langintza eta atzerrien txangoketaz, gaur bakez bizi diranak.

1.229ko urtean menperatu eban Mallorka Aragoiko I Jaime garaitzailleak eta 1.349ko urtean, IVn Pedro Zeremoni zaleak, betiko lotu eban Aragoiko erregetzagaz.

XVn gizaldian Mallorkako Ugartea, Aragoiko lurraldea zan eta ez eban ezer ikusirik Gaztelako erreinuaekin, Kolon gaztelaniko gorteetara joaten zanean atzerritar bat izan bazan lez joaten zalako.

Mallorka Ugartean, baleiteke urriñetik etorten dirala itsasoko jakintzak ta mapagintzazko zaletasunak, K.a. 1.300 urte inguruan Ejiptziarrak euren jakiturizko mailla aundienean egonda, eta Greziarrak orduan ezagutzen zan mundu guztiko itsasoetatik asi ziranean ibiltzen, K.a. 1.000 urte gitxi gora beran, Euskalerrian “Triku-Arri”, eta eurak gaur “Talayots” esaten dautsoen jendekuntzatik datorrela, esaten dabe batzuk.

Baiña Mallorkaren nortasunezko jakintza, ezin da ulertu Lull, edo Lull´tar Raimundo frantzizkotarra barik, eta kondaira luzea dalako, zati aundi baten murriztuko dogu.

1.232ko urtean Mallorkaren Uri Nagusia dan Palman, gaur bere Kale Nagusiko 5n zenbakian egon zan etxean, Jaio zan Lull´tar Ramon teologu, izkutu edo mistiku, olerkari, jakin-zale edo ta bizitzaren eraman-ona edo filosofu mallorkindar au, eta ainbeste jakituri euki ebalako *Irakasle Argitsua*´ren ez izenagaz esagutzen eben danak, bera izan zalako Katalanezko izkeran, zentzuntasun aundiz geien idatzi ebena.

200 liburu baiño geiago dagoz gaur latin, arabiar eta katalaneraz idatzita.

Lull´tar Ramon au, I Jaime Aragoiko erregearen zerbitzura sartu zan 14 Urtegaz morroi lez, bere seme Pedro ta Jaimegaz lagun eginda.

Ezan geldirik egoteko gizona, eta Aragoi ta Kataluña ikusteko, bere denborak eukezan.

Gero, ezkondu be egin zan, seme bat eta alaba bat eukinda, baiña erlijioagaitik deituta, geiagogo gura eben Kristoren barriak zabaldu misiolari lez, eta ekintza orreitan aleginduko zan,

(1) Leko = legua, que equivale a 5.572, 70metros.

garrantzi aundikoa izanda, gurutzada santu gora beran Vn Zelestino eta Vn Klemente Aita Santuaren bitartean egon ziran beste Aita Santuakaz.

1.270-1.272ko urte bitartean, Konpostelako Santiagotik erromes ibilita, Mallorkara joan zan, eta Arabiar eta Latiña ikasita, “El Llibre de Contemplacio” arabieraz idatzi eban, ta ain omentsu zan “Ars Magna”, “Mestre” izena balio eutsonea.

Ortik aurrera, bere idaz nagusi “Blanquerna” be idatzi eban.

1.295-1.296ko urte bitartean, bere beste idaz-lan garrantzi aundiko zana be idatzi eban, “L’Abre de Ciencia” katalaneraz.

1.295ko urtean Frantzizkotarren lekaidetxean sartu zan, eta siñezbagekoak eskolatzen emon ebazan bere denbora aundiak, bere adierazko idaz-lanak izten eutsoen bitartean.

1.302-1.307ko urte bitartean, “Liber de Fine” beste liburu bat idatzita.

1.312ko urtean Bienako Eleiz Batzar Nagusia amaitu zanean, ostera joaten da Mallorkara.

1.314ko urte erdi ingurutik, Afrikaren lurraldean Iparraldeko itsas-ertzearen Bujia Urian lurreratuta, Tunezera joan zan mixiolari, eta itsas-ertzeko Bujiaren errira bigarrenez joanda, lenengo ostera egin eban antzera gogor arrikatu eban lez, oraingoan ez eban euki ainbesteko aldi onik eta 1.315eko urtean 83 urte eukezala, bertan, Bujiako errian il zan, gaur bere gorpua- ren ondarrak, Mallorkako Palma Uri nagusiaren frantzizkotarren eleizan illobiratuta dagoz.

Berd eta Martorelltar Grabielek esaten dau, Llull´tar Raimundok itzi eutsoen ikerketako eta jakitunezko lan aundiak, oso garrantzi andikoak izan zirala itsas-araudietarako.

Llull´tar Raimundo onek, bere askotako liburuetan aipatzen dauz orduko itsas-eskutitz edo mapak, zelan izan ziran orduko itsakuntzarako⁽¹⁾ oiñarrisko gidariak.

Bere denboran sartu ziran itsas-ontziaren gidari izateko: *Gabeko Astrolabio*⁽²⁾, euren iguzki-orratzakaz⁽³⁾ ta *Ipar Orratza*, berari emonda sarrera orren irabazpide ori, eta baita bi orratzezko *Eres/Neurkiña*⁽⁴⁾ itsasoko eskutitzetan aizearen sorrerazko aldi bitarteak neurtzeko.

Eta gaurko egunetan euren bitartez esan leike, Llull´tar Raimundo bera izan zala orduan egon zan amesleri bakarra, borobiltasunezko mundu onetan, beste lurralde aundi batzuk be egon zirela asmatzeko, eta Mallorkan bere jakituri aundiagaz itsasoko eskutitz edo mapagintzazko eskola ori sortu ebanak, Llull´tar berak esanda, 1.286ko urtearen baiño ariñautik asi zirala Mallorkako itsastarrak, eskutitz orreik erabilten.

Ez gitxiago, Kreskes judu-leiñukoak, Ludi-mapagintzan egin ebenakaz.

Jafuda´tar Kreskes, judu mapagille aundi bat zan, XIVn gizaldi erditik XVn gizaldiko lenengo erdiaren urte bitartean bizi zana.

Kreskesek, ainbat katalan izkuntzazko Ludi-mapak egin ebazan, danetatik 1.375ean egin ebena ta bakarra geratzen dana, bera Parisen, Frantziko aberriko liburutegian erakusten dabena.

Jafuda´tar Kreskes, bere aitagaz batera kristautu zanean, Ribes´tar Jaume´ren izena artu eban.

1.327-1.330urte bitartean Mallorkan beragaitik eginda eta esagutzen dan itsas-eskutitz zarrena dana, Londreseko “British Museum”ean dago Add. Ms.25691 asi-izkiekin.

1.339an Dulzert´tar Anjelino sinatzaile zala, Mallorkan lenengo ezagutu ta siñatu zan itsas-eskutitza “Pariseko Aberriaren Liburutegian” erakusten da.

(1) *Itsakuntzarako* = *profesión de marineria*. (2) *Astrolabio* = *izarren ibilketarako neurgailua*. (3) *Iguzki-orratz* = *cuadrante para determinar la altura de los astros sobre el horizonte*. (4) *Eres-neurkiña* = *compàs*.

Eta lenengoz sartu ziran “Aize-Arrosak”⁽¹⁾ Katuluñan Jafuda ta Kreskes´tar Abrahamek egindako mapa-sortan sartu ziran⁽²⁾.

2. 41. *Mallorkako ugartean bizi ziran Juduak, mapagintzan jakiten ebana.*

Llull´tar Raimundok, eskolaren eredu zko jakituriz, katalanez idatzi ta margoztu ebezan itsas-eskutitz edo mapak, garrantzi aundienetarikoa dira, askoz geiago, itsas-osteko ardura orretan ba ziran, eta eginkizun orreik dira aurkezten dauskuezanak, Mallorkan egon ziran itsas-osteko ikerketaren zaletasunezkoak.

Kontuan artu bear dogu, juduak orduko denboran euki eben merkantil artu-emonakaz, mauri ta kristau mundu guztitik zabaldua aurkezten zirela, eta ondo baiño obeto eza gutzen ebezala Lur-Arteko itsasoa eta beste itsasoetatik ur gaiñean ibilteko bear ebezan orduko tresneri guztiak.

Ez da arritzekoa ba, Kolonek alango Kristau sinismena ta itsas-zaletasunezko jakituria eukitea, Llull´tar Raimundo, Abraham Kresques eta bere seme Jafuda juduaren jakituri aunditik, asko eukelako ikasita.

1.391ko urtean kristau zoro batzuk, Kall deritxon judu auzunea erasotu eben, eta 300 judu inguru il ondoren, galazo eutsoen judutarrai kristautasunezko sinismenara itzuli zitezen edo bestela lur aietatik alde egien.

Sinismena aldatu eben artean, Kreskes´tar Jafuda be egon zan, eta izena aldatu bearrean agertuta, onek Ribes´tar Jaumerena artu eban.

Eta sinismena aldatu gura ez eben beste batzuk, Kolontarren antzera, Flandesera aldatu ziran.

1.391kako urtean, kristautasunezko sinismenara aldatu ziran judu artean, batzuk Kolonen izena artu eben, emendik Flandesera zabaldua.

Kolon Kataluñako abizen bat da, txori Kolonbus´en izenetik artuta dagoena, eta I Jaime Aragoiko erregeak ugarte au 1.229an menperatu ebenetik, eurak daukien oiturazko abizen batera biurtu zan.

1.394ko urtean Ribes´tar Jaume edo Jefuda´tar Kreskes onek, Bartzelonara joan zan mapagintzan.

Eta 1.412ko urtean, Portugaleko Itsasgizon´tar Enrike errege semeak deituta, Portugalera joan zan, bertan bideratzeko Enrikek sort-araziko eban mapagintzaren lantokia.

1.450eko urtean Mallorkako errigizartearen artean, auzitegikoak⁽³⁾ erritarren aurka matxinatu ziran, merkatari aberatsaren artean askok, Anjoutar Renatori lagundu eutsoen, Aragoiko errege biotz-andiko Vn Alfonsoren aurka.

Eta merkatari aberats onein artean, Kasenabe´tar Gillaume eta Koullon´tar Kristobal, Kolontar Kristobalen osabak zirenak be aurkezten ziran.

Dana dala emen agertzen dira Kolontar Juan aita, seme igeslari bi ta Margalinda alabea.

2. 42. *Nortzuk izan ziran Kolontar Juan eta Kolontar Margalida ?.*

Margalida mallorkinez, pitxi edo txirlarri´a⁽⁴⁾ dala esangura dau, eta Kolontar Juanen alaba izan zan, euren bizitza Felanitx errixoan *alqueria rojako* lur ondasunean eginda.

Eta nor ote zan Margalinda ?.

(1) *Aize-Arrosak* = *rosa de los vientos*. (2) *Mapa-sorta* = *atlas Catalan*. (3) *Auzitegikoak* = *forenses*. (4) *Margalida* edo *Txirlaria* = mallorkinez “perla” dala esangura dau. (4) *Gaur Son Ramonet* dana, Felanitx Uritik 2 km. ingurura eta SANTUERI gaztelu inguruan.

Margalinda, Nafarroako errege IVn Karlosen denbora pasa baten antzera, eta bere aitagan-dik atxilotzeko itxaroten egon zan denboran, laguntzen eutson andre bat zan.

1.459ko urte azkenetan beragaz maitekerietan ibilita, 1.460ko Bagillaren illean seme bat euki eben, *terra rubrako* Kolontar Kristobalen izena ipini eutsoenai, eta IVn Karlosek, lau seme alaba bere gain artu ebazanetik, Kolontar Kristobal izan zan bat.

Felanitx'en, Son Koloneko Kolontar Juan, Kolontar Kristobalen aitite onek, ia txirotu egin zan, bere etxe ta lurraren irabaziaz Felanitx'eko zuzendari, idazkariari eta alkate biurdika-tzailleai bir-erosi, eros-sari, edo aitzakia lez ainbat diru emon bear eutsoezelako, eukezan seme biak Kristobal ta Gillaume Kasenobetar Koullon oneik Probenzan atzerrituta, An-joutar Renato Probenzako erregearen alde egon zirako, 1.450-1.453ko urte artean, Jer-maniasen iraultzan, auzitegiko ta erritarren arteko guda gogorra amitu zanetik.

Kolontar Juanen seme oneik, sekula ez ziran itzuli ostera Mallorkara, eriotzea keiñuz, itxa-rotan euki ebelako.

Baiña Kolontar Juanen seme ta Margalidaren neba auek jakiteko nortzuk ziran, esan bear da:

Guillaume de Kasenove Koullon, Italian *Kolombo* lez eta espainitarren artean *Kolonen* ize-nagaz ezagututakoak, Anjou'tar Renato Probenzako erregearen serbitzuan egon zirala, eta Frantziako itxas-jazarle edo itxas-lapurren ontzi-nagusi edo Ontzi Nagusien Amirala izan zala Margalidaren neba au, eta Margalida ta IVn Karlosen seme Kolontar Kristobalek, bere Ontziren-Amiral osaba nagusi onegaz, ikasketa nagusiak egin eta gero, ainbat denboratan beragaz ibilikua zala, gero agertuko dan lez.

Emen, Kolontar Kristobalen bizitza argitzeko oso garrantzi aundikoa dalako, Probenzako erreñuaren edestiko bizi kondaira labur bat azaldu bear dogu, eta baita legez, zelako alda-kuntza egon zan itxas-lasterkari edo itxas-jazarle⁽¹⁾, eta itxas-lapurren artean⁽²⁾.

Probenzako erreñua, Frantziako lurraldearen ego aldean, Rodano ibaia, Lur Arteko itsaso eta Italiako lurraldeak inguratzen dabe, bere edestiko Uri nagusia Aix-en-Probenze izanda.

Beren lurraldea, Rodano ibaiaren agoak, Bar ibaia, Alpeseko bealdeak, eta Baukluse ta Itsastar-Alpeak osotzen dabe.

Paleolitiko-Neolitikotik, euskaldunak ziran lur orreitan bizi zirenak.

Eta Euskaldunai buruz, garrantzizko gauza da, 25etik 101eko urte bitartean bizi zan Silio Italiko olerkariak esan ebana: "Probenzako alor edo soroak⁽³⁾ leenengo landu ebezanak Auñamendi edo ta Pirineosetik bera joan zirenak zirala eta euren arteko ezagutzen ulertu zitezen, lurraldearen izena aipatzea bearrezkoa izanda, *Sicanos* zirala esan eben.

Sikano berbea, baleike Auñamendietan⁽⁴⁾ dagon *Zinka* ibaiaren izena izatea.

Eurak esaten dabe ez dagozela ziurtasun guztiagaz, baiña zeozer izan bear, beste ibairik ez dagoelako izen orrekin.

K.a. VII-VIn gizaldietan, erria fenizioak irasi eben.

K.a. IVn gizaldian griego fozenseak, Massaliako⁽⁵⁾ Uria sortarazi eben.

K.a. IVn eta IIIIn gizaldian, keltiarrak sartu ziran.

K.a. IIIn gizaldian, erromatarrak sartu ziran, eta Galia Narbonenseko lurraldeakaz osotu eben lurralde ori.

(1) *Itxas-lasterkari* = corsario. (2) *Itxas-lapurrak* = piratas. (3) *Alor edo soroak* = campo de cultivo. (4) *Auñamendietan* = Pirineos. (5) *Massalia* = Marsella.

K.a. 123 urte inguru, fenizioak Marsellako Uria berriztu eben.

K.o. Vn gizaldian, Bisigodoak menperatu eben.

K.o. VIIn gizaldian frankoak.

K.o. VIIIn gizaldian arabiarak.

Eta Karlos Martelek Berduneko ongundearen bitartez, 843ko urtean berrezkuratuta, Lotarioren eskuetan geratu zan.

Karlos Buru-soillen eskuetan, ondorengoz geratuta lur inguru ori, onek Probenzako leen erreñuan biurtuko eban.

947ko urtean Borgoñako aginpean ipini eban, eta ondore 1.032ko urtean Kaisarren agindura.

1.125eko urtean ondorengo lez, IIIIn Berengertar Ramon Bartzelonako Kondea eta Toulouseko Kondearen artean bananduta geratu zan.

1.246ko urtean Ajouko etxearen aginpean geratu zan, eta orren bitartez, 1.277ko urtean, Napoleseko erregetzagaz lotuta geratu zan.

1.266-1.285eko urterarte, Napoles eta Siziliako errege VIIIn Luisen seme, Anjoutar I Karlos izanda.

Eta I Anjoutar Karlosen errege denbora onetan, Aragoiko IIIIn Pedrok Sizilia menperatuta Aragoiko erregetzagaz alkartu eban.

1.284-1.309ko urte bitartean Anjoutar IIIn Karlos izan zan Napoles eta Siziliako erregea.

1.345-1.386ko urte artean, Anjoutar IIIIn Karlos, Napoles eta Ungriako errege.

Eta Probenzako Anjoutarren azkeneko agintaria, Renato izan zan.

1.408an Urtarrillaren 15ean jaio zan, Anjoutar Renatotar IIIn Luis erregearen seme au.

1.419ko urtean Napolezeko errege IIIn Luisek, bere seme Anjoutar Renato ondorengo lez eta 11 urte euki zituzenean Lorenatar Isabelekin ezkondu eban.

1.434ko urtean I Renatok eta Aragoiko Vn Alfonsok, borroka latzak euki ebazan Napoleseko erreñuaren gora beran.

1.442ko urtean, aragoitarrak Anjouko I Renato, Napolesetik bota ebenean, Taraskonen auzotu zan.

1.450eko urtean Mallorkako auzitegikoak matxinatuta, Vn Alfonsori agindu eutsoen erregearen aulkia.

1.452an Otsaillaren 28an il zan Lorenatar Isabel erregeña.

1.454an Iraillaren 11n Anjoutar I Renato erregea, ostera ezkontzen da Labaltar Juanagaz.

1.466an Dagonilaren 20an Katalanak, Mallorkakoak egin eben antzera, Aragoiko Vn Alfonsori eskaiñi eutsoen erregetza.

1.470ean Abenduaren 16an Anjoutar I Renatok, ostera agindu eutson bere seme Juaneri, erregetza berrezkuratuta egian, baiña Bartzelonan il zan.

1.471ko urtean Anjoutar I Renato, Taraskonera joan zan bizitzen.

1.479an Urtarrillaren 19an siñatu ziran Probenza ta Kataluñako bakeak.

Anjoutar I Renato erregeak, bere loba zan du-Mainetar III Karlos Probenzako Kondea, ondorengo errege lez izendatu eban.

1.481eko urtean Probenzako lurralde au du-Mainetar III Karlos Konde onen jabetzan egonda, eta ez ebelako ondorengorik euki, Frantziko errege XIn Luiseri aldatu eutson ondorengotasuna.

Eta 1.486ko Urrillan du-Mainetar IIIIn Karlos au il zanean, betiko aldatu zan Frantziko erregetzara, Probenzako Konderri au.

2. 43. *Itxas-lasterkari ta Itxas-lapurrak.*

Itxas-lapurarren irudia, ez zan itxas-lasterkariak irudizko izaeran euki eben antzekorik be, euren leen eta askeneko ardura, lapurretan egitea bakarrik izan zan.

Bigarrenaren ardura alderantziz, errege edo ta erriarteko agintaritzatik artzen eban eskugo edo baimenaz, etsaiezko erri baten itxas-ontziak erasotu, menperatu edo ta arrapaka kendu, eroaten ebazan egitamuzko argibide ta balio guztiak, izaten zalako.

Eta gure Kolontar anai biak, Kasenobe ta Kolontar Gillaume, Frantziko Aitor-*seme*⁽¹⁾ ta Ordezko-Almirante⁽²⁾ oneri, Frantziko XIn Luis erregeak bialtzen eutsoen eskutitzetan *dit Koulon* idazten eutsoen.

Kolontar Kristobal, Kolontar Kristobalen osaba, bere anaiaren antzera bardin ibili zan, baiña aiñ ospe aundirik euki bage.

Gero eurak baiño ospe aundia artuko eban euren loba Kolontar Kristobalek, IVn Karlos Nafar errege eta Margarita ´ren semea zanak, Ameriketako lurraren ezaguneraziakaz.

2. 44. *Kolontar Kristobalen bizitza.*

Berd eta Martotorell ´tar Gabrielelek esaten dauenagaitik, ainbat edestilari izan direla Kolontar Kristobal Felanix ´en jaio zala esaten dabenak:

Benezuelako aita Nektario, Lopez ta Flores ´tar Manuelek bardiñ, Madariagatar Salvador, eta Zerdatar Juanek Koloni buruz ankea sartu ba eben be *xueta*⁽³⁾ deitu eutsolako, danak jakin eben eta dabe, bere sendia katolikua zalako, Kolon bera be katoliku sutsua zala, IVn Karlos Nafarroako errege ta Margaritaren bidetik, sinismen orreikaz bizitzan gizon eginda.

Eta Kolontar Kristobal ta bere anai Bartolomeri *Kolonbo de Terra Rubra* esaten eutsiela.

1.459ko urtean IVn Karlos Nafar erregea, Santueriko gazteluan egon zala atxilotuta.

1.459an Urrillaren 28ko idazt-eguna daukiela, IVn Karlosek, Mallorkako Gotzaiña ta Jaurlariari idatzitako eskutitzak, eurei esanda *Margalida* ´gaz arduratu zitezela, nezka gazte ura beragandik aurdun geratu zala ta.

1.460ko Bagillan jaio zan Kolontar Kristobal.

1.461an Iraillaren 23an Nafarroako errege IVn Karlos il zanean, Kolontar Kristobalek urte bat eta iru illabete eukingo zituzen, gitxi gora beran.

Eta agiri onen agerketaren arazoa, XVn gizaldian Felanix ´en jaio ziran umeen argibideak, ezin diralako iñondik iñora aurkitu da, bateatuko egun eta bear ziran zeaztunak iñundik ez

(1) *Aitor-seme* = *escudero*. (2) *Ordezko-Amirala* = *vicealmirante de Francia*. (3) *Xueta* = *judio*

diralako agertzen, ez Felanitx'eko San Migel Goi-Angeruaren eleizakoak, ez eta San Salbadarren Santutegiko eleizakorik be.

Sendi ta gurasoen argibideakaz, bardiñ antzeko bat sortzen da Kolontar Kristobalen ama ta sendiagaz be, bakarrik aurkitu direlako Kolonen aitite, Kolontar Juan aitarena, Kolontar Margaritaren amarena, igeslari euki ebezan iru itsas-ontziren jabe Anjoutar Dukearen serbitzura, Kolontar Kristobal, eta Frantziko lurraldean deitzen eutsoen Kasenobe ta Koulontar Gillaume itsas-ontzi Amiralaren osabarenak.

1.462ko urtean Bartolome, Kolontar Kristobalen anaia jaio zan.

1.469ko urtetik aurrera Kolontar Kristobal 9 urtegaz eta bere anai Bartolomek 7 urtegaz Frantziko osabaren etxera joan ziran, euren ikasketak Anjoutar Dukearen gortean egiteko asmotan, eta ortik aurrera sekula euren bizitzan ez ziran itzuli Felanitxeko erritxora, naiz Kolonek itsasoaren beste aldetik Ameriketarren lur billa agertzen ziran Ugarte ta lurraldeari, bere ama ta beren erriko baselizaren izenak ipini.

Kolontar Kristobalek 9 urtekin asita, itsasontzietan ibili arren, 14 urte eta Bartolome bere anaiak 12 urte euki arte, ez ziran euren osaba Kolontar Kristobalen itsas-ontzietan ikasten ibili. Eta, Kolontar Kristobalen bizitza bere asieratik adierazteko, ainbat itaunari emon bear dau tzaguz erantzunak, eta ez edozelakuak.

Adibidez:

Bereztasunaren eta arzoizko lege guztiaren aurka, errege/erregiña, gorteko aolkulari, jaur-lari eta gero edestilarien artean, Kolontar Kristobal jaio eta noren semea zan gora beran ostonduak egiteko.

Ziñez itza emonda ?.

Dana dala, araubidez edo idazlari lekaide bidetik egiten daben orokorrezko ezkutaldi zital ori, gogorra izan bear izan eban, edestilarien gora berazko esanetan, Kolonen semeak be euren aita, norena eta nungoa zan jakin ez egien.

Eta beren izatasunaren izkutu zital oneik aurrera eroateko, Kolonek gaztelerrian legez arrotz lez agertzen bazan, bere Aragoiren Mallorkako jaioterrikoa lez be, ostondu bear izan eban itzarmen orren bitartez.

Dana dala, ongunde edo itun orren inguruan, ziñez itz emonda egon ziran guztiak ondo baiño obeto zaindu eben laterrizko elkarpide ori, idazkietan eta errigizartearen artean guzurrezko aztarnak zabalduta.

Baiña, zergaitik ote izango zan guzti ori ?.

Mundu-gai-fisiko onetan badakigu, egiten direzan gauza guztiaren izenak, asmoak, edo ta arrazoiak, euren sorburuzko gogorapen lekutik kentzen ba dirala, beste leku batera aldatzeko direzala, eta egikera orreik norkerizkoak biurtzen diran lez, guzurrean naspilduta, lapur, edo naikerizko esabidearen adierazpenetan biurtzen dirala.

Ala, Erromatar Kaizar-katolikotasunaren sasi-jakintasunezko arrazoi biurtzeagaitik izango ote ziran alegiñ orreik ?.

Zertarako: *Jainko Aitari*, guda-indarrean odoljarioz eginda, menpekotasun gizabatzango oneik eskeintzeko ?.

Jainkoaren Legeak, nori emoten dautsoe alango baimenik ?.

Jesus, bere Semea gure artean egon zanean, aolku ederrak bakarrik emoten euskuzan, naita batzutan lukurrerizko-fariseoak ostikadaka ibili, Aitaren etxea saleros-legez ibiltzen ebelako.

Ostikada orreik fariseo andikiak ez ebelako parkatzen, Jesus gurutzean il eben, eta iltze orren ondorioz bere sinismeneko aolkularitza katoliko alderdikidetu eben, mundu onetan Erromatar katolikotasuna, ziri edo ta zilborraren ardatza izan zedin.

Jainkoa Goiko Zeruan dago, eta guri Berak gai-sortarazitutako legezko baldintzakin bereztasun onetara, ez dauzku bialtzen norkerizko sasi-jainkotasunean bizitzen, len, Beragandik gaiezko bizi au baldintzatuta dagoelako.

Eta bigarren, jaioten garenok ulertu dagigun, nortasunez eta bakean bizi bear garella, bakotxaren beren eskubidetik zor-jakezanak, ardura aundienean ordainduta.

Zenbat bider gogoratzen naz gure Euskal guraso zarrakin: *Berba gitxi ta zeatzak, iñor kal-tetu barik, beti arduradun euren zorrak ordaintzeko, eta beti prest, gure euskal lege zarragaz oituratuta, beartsuari laguntzeko.*

b) Errege ta andikiak ortik aurrera, bereztasunezko legearen aurka egiten ebazanak eta gero itxuraz beintzat, euren artean gizon-emakume on-lez agertzeko, Santa Fe'n, eraiki eben Uria, ezarri eben zilbor lez, txar egiñekoari ongunde bidez garbitzeko, oitura lez egiten ebazan busti-zaletasunak⁽¹⁾, edo bakeak beste trikimalluekin lortzeko, ta abar.

Eta begitu, gizon/emakume jakitun aundi oneik, len eta gaur be, zelan egiten dabezan ostrukaren buru-ostonkera lotsati auek, euren artean truke: *Diru, eleiz-sari, ogipide, opari, mesede, koipekeriz busti, keñalari edo guda-indarrezko keñadakin guztiak*, gogoz erabilten ebezanak, euren baitak itzuraz beintzat, bakeztuteko buruz.

Norkerian, ala nortasunaren osagarritasunezko zor-ordezkaritzaren arrazoian egongo ote dira Jainkoaren Legeak ?.

Jainkoak Bere Legeakaz, mundu onetara jaioten garan danori, nortasunaren ardurazko kundeatzailleak izan gaitezcan bialtzen gaituz, iñungo zalantza barik.

Mundu onetan orregaitik, iñor ez dago baimenduta iñungo legerik sortarazten, *Berak* ipinitako *Legeak*, ortxe daukaguzelako ardura aundiz erabilteko.

d) Kolonek, I Isabel erregiñaren aldetik eukan babesa ta IIn Fernando erregearen aldetik gorrotoa.

Gorrotoa bai, baiña gorroto ori zergaitik ?.

Oraiñarteko edestia ikusita, argi dago, IVn Karlosen semea zalako.

Ala, IIn Fernando, IVn Karlosen ugazanaitasun aldetik, Kolonen osaba izanda, eta bere aita ta berak, IVn Karlos eta IIn Blankagaz Nafar erregetzan egin ebezan pozoitasun eta guzurretatik ostondu gurean.

Edo, euren alegiñez gain, Kolonen Nafar ondorengotasunean, orokorrezko itsas osoa ta lur barri orrein agerketaren bere erregearen ordezko agindupean legez artuta, Nafar erregearen edestiko adierazpenetan arritasun aundi orreik ez zitezen argiratu ?.

Badago beste bide bat, Kolonen jaiocerazko ixiltasun zital ori adierazpendu egiten dauena, eta nik esango neuke, ziurtasun aundiena daukana dala.

Ostondutasunezko ixiltasun zital orreik, Erromatar eleiztarrak, Katoliko batzangotzeko asmoaren aritik dakarrena dalako.

Bestela zelan ulertu, I Isabel ilda, IIn Fernando bere kaizar edo aundienetariko errege izateko itxaropenean Foix'eko Jermanagaz ezkondata, erdi ugarte onen ekialdeko Aragoi eta Napoleseko erregetzakaz ibili ebazan antolaketak ?.

(1) *Busti-zale = sobornador.*

Argi dago, egia bada Santa Fen katolikotasunezko-espainiar batzango orregaz itzarmendu ba-zirala, Erromako eleiztarren ardura bakarrik izan zala, eurengandik kanpo, iñork ez ebalako almenik ez ikusmenik euki, eurak esaten ebena, erregeak guda-indarrakin aurrera eroatea baiño, eta erregeak eleiztarren agindupean ez ba ziran ezartzen, VII n Fernandogaz sortu zan antzera, onen aginduz 1.810-1.823ko urteetan guda agintariak erregeen gaiñetik egin ebana baiño besterik egitea ez ebalako bear, katoliko-batzangotasun ori garaipentzeko. Ala noren aginduz egin eben guda-nagusi aiek, Kadizeko 1.810-1.812 Merkantil ta katolikotasunaren konstituziozko errigizarte batzango areik, gaur oraindiño keiñatzaile daukaguzenak ?.

e) Eta arrigarriena dana, Ameriketako bidai orren, azken mariñelaren ogi-bide, izen abizen ta jaio erriak jakinda, Kolonenak jakin ez ?.

f) Naiz egia izan, Kolonek ixiltasun orretarako Erregeakin benetako ziñezpen gogor bat eginda itzarmendu bazan be, urrengo urte ingurutan Gaztelako gortetatik, al izango ote ziran alako iziltasunik aurrera eroateko ?.

Iñundik iñora ez zan gerta ditekera, eta gitxiago, odolzaleko inkisizioaren agintaritzazko denbora aietan.

Ixilezko zitaltasun ori adierazteko, leen kontuan artu bear dituguzenak, orduko gertakizun orreik edestirako, idazten ebazan idazkariak dira, eta denbora aietan eleiztarren kontrolpetik kanpo, ez egoan iñor.

g) 1.460ko Bagillan jaio zan Kolontar Kristobal Felanix´eko land edo oraindiño zutik dagoen basetxe-gorrian, eta egia izan bear da, IV n Karlos Nafarroako erregearen semea zala, land-etxe orretan orain bizi diranak, **Margalidaren** izena ibiltan dabelako, eta izen ori gaur ainbeste urte igaro ta gero erabilteko, ez zan izando edozein neskatilla gazte batek euki ebalako ume bategaitik, izen ori gaur azpimarratzeko beste bereiztasunezko gertakizun berezitik etorri bear dualako.

Kolonek, 1.498ko irugarren itsas-aldiko bidaian, Benezuela aurrean ikusi eban ugarteari, **Margalida** bere amaren pitxi-izen ori ipini eutsan, Juan De La Kosa mapagilleak, Kolonek urte orretan, bere itsas-eskutitzan ugarte ori izenduta ipini ebanetik, aldatu ebana. Gaur, Madrilleko itsas-erakustokian dagoena.

1.474ko urtean Kolontar Kristobalek 14 urte euki zituzela, itxas-ontzitarra igoten dau, bere osaba Kasenobe ta Kolontar Gillaume Amiraltearen agindutara.

1.474-1.475eko urte bitartean Kolontar Kristobalek, Esporades ugartedian dauan Kio⁽¹⁾ Ugartera egin eban oster bat, bertan **Lentiskoaren**⁽²⁾ zugaitza ezagututa, gero 1.492an Azaroaren 12an aipatzen dauana, Kubako Ugartean be aurkitu ebalako.

1.476ko udan Kolontar Kristobal lenengoz eltzen da Portugalera, denbora onetan ondo baiño obeto ezagutzen eban Lur-Arteko itxaso, eta baleiteke Atlant itxasoarekin amesetan ibiltea, Zipango⁽³⁾ ugarteak aztu barik.

1.476an Dagonillaren 13an ikaragarrizko itxas-borroka bat egon zan erdiugarte onen San Bizente lur beso aurrean, Jenobako lau itxas-ontzi ta Frantziko itxas-lasterkariaren artean, auek Kolontar Kristobalen osaba, Kasenobe ta Koullontar Gillaume agindupean egon ziranak.

(1) Kio = Greziako ugarte bat. (2) Lentisko = txapar landara bat beti orlegi egoten dana eta egur gogorrekoa izaetz gain, bere barrutik argitzeko ibiltan zan olio bat ataraten eutsoena, eta usai-goza ta bizkorgarri lez be ibiltan zan "Almaziga" zukea be. (3) Zipango = Japon´eko ugartediaren antziñako izena.

Borroka onetan sua artu eban Kolonen itxasontziak, bera ta beren lagunakaz batera Jenobako itxasontzi bateri erasotzen egon zirala, ta uretara jausita arraun baten laguntzagaz, uger joan egin bear zuen Portugaleko izparter edo itxasertzean dauan Lagoseko ondartzara. Eta Kolontar Kristobal gazte onek, Lagos´etik baleiteke 15 milla⁽¹⁾ edo 24,135 Km. egon ziran Sagres ta San Bizenteko lur muturretara joatea, Sagresen itsastar Enrikek, Portugaleko erregearen semeak euki ebalako beren itxasoko-eskutzitgintza edo ta mapagintzaren lantegi zilborra.

Borroka onen ziurtasuna, Kolontar Kristobalen aldi bereko, Ruy de Pina Portugesa, eta Palenziako Alonsok argitaratu eben, Vn Fernando katolikuak egiztatu ebana, Diego de Barelatar Moseneri Iraillaren 5n egunean bialdu eutson eskutitzan.

Kolontar Kristobal borroka orretan, 16 urte euki ebazan.

Vn Fernando katolikuak *Kolontar Kristobalen* izenagaz idazten dau eskutitz au, Kristobal eri oraindiño *Kristoforo Kolonbo* esaten eutsonean.

1.477ko Otsaillean, Kolontar Kristobalek beren 17 urtegaz, eta itsasoaren jakiturizko arloetan Llull´tar Ramonen irakaspenak ondo ikasita, Islandiako bidean orduko Thule esaten eutsoen ugartea ezagutzeko eta itsas-bidai orren zeaztunak artzeko, urten eban itsasora.

1.477ko urte erdian Kolontar Kristobal itsasoaren zeaztasunezko jakin barriekaz Lisboan aurkeztu zan, eta itsasoaren jakitun andiko gizonakaz alkarrizketan ibilita, bere aipu ta ospea gorantza joan ziran.

Kasastar Bartolome lekaideak Kolonengaitik esaten eban:

Los Santos lekaidetxera joaten zala, Mesa Santua entzutera, eta lekaidetxe onen iraspene, Santiagoren zalduneko gizon aundiaren emazte ta alabaren etxea izateko izan balitz lez eraiki ebela, gizonak gudan egoten ziran bitartean, neskato ta andre garbitasun, zintzotasun eta agindupeko ziñ-itza emonda, euren senar, senargai eta semearen alditarako urruntean, berton itxaroteko zala.

Los Santos lekaidetxe ori, gudari-elkargoko Santiagoren lekaimeak zuzenduta egon zan.

1.478-1.479ko urteetan Lisboan, Kolontar Kristobal lekaidetxe ontara joaten zanean eza-gutu eban bere emaztea izango zan Moniz eta Perestrelo´tar Filipa, beragaz ezkontuta.

Eta 1.479-1.480ko urte onetan jaio zan Kolontar Kristobalen seme, Kolontar Diego, gero Itsas-zabalaren ondorengo bidetik, itsas-aundiaren bigarren Amirala izango zana.

Kolontar Kristobalen amagiñarrebak, bere gizonak eukezan itsasoko tresneri guztiak emon eutsozan Koloneri, onek poz aundia erakutsita.

Eta bere emaztearen sendi bidetik, Portugaleko andikitasunen arteko ate guztiak zabalik aurkitu ebazan.

Orren argibidea, Portugaleko errege ta andikitasunezkoak beragandik be zeozer jakin ebelako da:

a) Erregeen arteko mailan, ondo baiño obeto ezagutzen zirako.

b) IVn Karlos Bianako printzea Portugaleko erregearen arreba Katalinagaz ezkontuteko egon zanean, oso ezagutua ta onartua izan zalako gorteko andikidetasunengaitik.

d) Eta batera, Nafarroako IVn Karlos erregearen seme, Vn Fernando katolikuaren loba, eta I Isabel erregeiñaren lenengo maillako lengusua izanda, argi dago Kolontar Kristobalek, ez ebela ezeren eragozpenik euki erregearen maillan, sendi aundi baten alabeagaz alkartzeko, eta beren sasoi ederrenetariko 19 urte zituenean ezkontzeko.

(1) Milla batek, Gaztekeraz = nudo esan gura dau, eta 1.609m. daukaz.

Eta gero, ugartediko Madeira ugarte ondoan, Portu Santuko Ugartera bere emazte ta semeagaz bizitzen joanda, andik itsasoratzen zan, Azores, Madeira, Kanarias, Orlegi lur muturraren ugarteak eta Ginea ikustera joateko.

1.480ko urte onetan Kolontar Kristobalek, irakurri bear izan ebazan, 1.474ko Bagillaren 25ean, Florenziako fisikari ta matematiku aundia zan, Toskanelli ta del Pozotar Paolok, Portugaleko erregearen senidea zana, Martins´tar Fernando kalonje edo eleiz-legegizonari, bialdu eutsozan eskutitz ta mapa bereziak.

Toskanellik, Martins´tar Fernandori eskutitz eta mapa onegaz esaten eutson:

Itxasoko eskutitz edo mapa au, nire eskuekaz eginda dago, eta margoztuta dagoz, zuen Portugaleko itsas-bazter eta ugarteak, lur-bururainoko bitartean⁽¹⁾, bai kontuan artu bear dozuen gauberdin-lerroa⁽²⁾, bai zenbat leko⁽³⁾ erabili bear dozuezan, ugari ta gozatsuzko aberats toki orreitara eltzeko.

Toki orreitatik asi bear zenuke zuen mendebalerantzako bidaia, eldu bear zaretan lekuetara.

Ez arritu nire eskutitzetan Mendebala esatea, onkailu, kanela, gaz-piper, atsegiñezko lur orreri, oiturazkoa daukagulako gauza orreik Ekialdetik datozela esaten.

Leku orreik, Itxasoaren beko boil-erdi edo lurrerditik⁽⁴⁾ Sartaldera bideratzen diranak, Mendebaletik aurkezten diralako, eta lurraren boil-erdi edo goiko lurrerditik bideratzen diranak, beti Ekialdetik.

Kolonek eskutitz au berriz idatzi ta aldatu ebenean, Silbio ta Pikolomini´tar Eneasen **Historia-*rerunegaz*** lotu eban eta Kolonbina **Liburutegian zaintzen da**, Sebillako Urian **Laran-Ondo Aterpe edo Bailan kokatuta dagoena**.

Kolontar Kristobal ez zan pozik geratu eskutitz ta mapa orretan ekarten ebenagaz, eta Toskanelli berari idatzi eutson beste eskutitz bat, zeaztasun orreik argi geiagoaz ulertzeko.

Argi ikusten da Kolontar Kristobalek, al eban jakiturizko zeazpen ta zeaztasun guztiagaz batzen zituela eskutitz ta itsas-eskutitz edo mapatan aurkezten ebazan aurreko txetasun ta oarketak, barnean euki ebazan egarrizko asmakizun aundiak, bere bizi denboretan bete gura ebazalako.

Kolontar Kristobalek, liburu, agiri ta idazki askotatik, ainbat gogaketa, galdeketa eta oarketa eginda gero, ondorio onetara eldu zan:

Indiaseko lurrarteraino peninsula onetatik, borobil mundu onen itzul-ingurutik⁽⁵⁾, 282° besarkatu egiten ebazala, eta 360°´tik, 282° kendu ezker, Katayo⁽⁶⁾ ta Lisboako bitartea 78°´koa zala.

Eta lur-gerrirantza 2/3, 78° oneik 56° edo 50 milla Kanariasen neurrian gitxi gora beran berentzat izan zirelako, Mendebaleko bidetik peninsula ontatik Indiaraino, 3.900 milla edo 975 leko urtetan eutson Gomeraren obo⁽⁷⁾ neurrian.

Eta utsegiteko bide ortatik, neurtasun orreikaz Indiaren Ekialdeko lurrak, nai gabe Amerikaren Atlant-lurraldeetan kokatzen ebazalako, ez da arritzekoa bera Ameriketako lurraldeetara eldu zanean, Indiako lurraldeak zirala esatea.

1.478ko urtetik aurrera Kolonek, bere ustean asi zan esaten, zeintzuk ziran itsas aundiaren zabaltasunezko neurriak, baita bide orretatik agertuko ziran gauzak, 1.484ko urterarte itxaroten egon barik, beren gogoko gauza orreikaz.

(1) *Lurbururainoko bitartea = distancia al Polo.* (2) *Gauberdin-lerroa = Linea Equinocial.* (3) *Leko = legua.* (4) *Beko boil-erdi edo lurrerditik = hemisferio inferior.* (5) *Mundu onen itzul-ingurutik = de la circunferencia de este mundo.* (6) *Katay edo Katayo = Txinari emoten jakon izena Erdi-Aroan.* (7) *Obo = latitud, paralelo. Gomeraren obo-neurrian = paralelo de la Gomera.*

1.483ko urtean Kolonek, ba eukazan asmakizunezko egitarau oneik mugatuz, idatzi ta erabagita, baiña Itxas-ontzi ta mariñelentzako bear ziran ondasunak naikoak ez eukazalako, laguntzaren egarri aurkeztu zan, itxaropenezko gertaldi ori aurrera eroateko.

Eta orretarako, Kolontar Kristobalek euken egitamu ori, Portugaleko errege II n Juaneri aurkeztea erabagitu eban.

Kolon, Portugaleko errege II n Juanegaz egonda, aurkeztu eutson zeregiñezko egitaraua, au izan zan: Mendebal edo sartaldeko bidetik, Eguerdi edo itsas-zabalaren mugan eguzkia goialdi aundienean dagoenerantza joanda⁽¹⁾, lur zabal, ugarte eta zorientasunezko lur sendo ta aberatsak, urre-gorri, urre-zuri edo zidar, pitxi edo txirlarri, arri-bizi edo arri-argi ta amaibako giza-semeak aurkituko ebazala.

Eta bide orretatik berak ulertzen ebala, Indiako lurrakin topo egingo ebala, baita Zipango ugarte aundiek⁽²⁾ be, eta Kaizar edo Kan Andiaeren erregetzagaz.

Aurkitutako gauza guzti orre in orde z, baldintza oneik ipini eutsozan Portugaleko II n Juan erregeari, bera gizatsu aundi lez jantziteko: leen, onartu egiela urre-gorritzko zalduna izatea.

Bigarreneko baldintza bera ta beren ondorengoai **Jaun**⁽³⁾ gorengo izenagaz deitzea.

Irugarren bearrezko baldintza: Itxas-zabalaren Amiral-Aundiena izatea.

Laugarren, gaiezko gauzetatik, erregeak artzen ebazan Urre-gorri, zidar, bitxi⁽⁴⁾, arri-bizi edo arri-argi⁽⁵⁾, menasta⁽⁶⁾, onkailu⁽⁷⁾, pizkailu⁽⁸⁾, gaz-piperki⁽⁹⁾, kanela ta beste onuratsuzko edozein gauza guztietatik, 10ena berentzat izan daitela.

Eta askenez, joan-aldi bakotzaren antolakuntza eta egiten ziran bidalgo guztietatik, berak ordezkatzeko eskubidea eukitea, ibilaldiko talde bakotzaren baliozko kopurutik zortzirena ordaintzeko.

2. 45. *Oar txiki bat zati onetan.*

Orañarte idatzita daukagunagaz eta orduko erregearen izaerakin, baten batek ulertu leuke Kolontar Kristobalen ain lotsabageko eskaeraren eskeintzari, al-osokerizko sasi-jainko ta odol-ixurtzaille errege aiek, eriotzarekin ez bazan izaten, zigorkada edo astiñaldi gogor barik itxi ote leukiela ?.

Argi dago Kolontar Kristobal European orduko andikitasunen artean, onartuta egoala, IV n Karlos Nafarroako errege ta Margaritaren seme lez, eta Fernando ta I Isabel katolikua leen maillako loba edo ta senidea izan zalako.

Zer gertatuko jakon, eskale bat edo ta, Jenobako be maillaren errikoi mariñel Kolonbotar Domeniko eta Fontanarrosa tar Susanaren semea izan bazan, 1.470-1.473ko urtetan Jenoba eta Sabonako notari-agirietan, illagintzaren⁽¹⁰⁾ bizibideekin agertzen zanari ?.

Ez dot ustegabeen ekarten ona Jenobako Kolonbotar au, Jenobezak Kolontar Kristobalen aurka egiteko edo ta Kolontar Kristobalek Ameriketako lurraldearen agerketa bidez, artu ebezan entzute eta ospe guztiak eurekandu, edo agerketa orre in eginkariak eurak izan ba ziran lez agertu gurean, ille zaltzaille Kolonbotar au zala Amerikaren agertzaille esaten eban, Berd ta Martorelltar Grabielek egia argitara agertuaz, Jenobezaren naikeriak ezerezuta.

2. 46. *Kolonen bizitzako edestia ostera berrezkuratuta.*

Portugaleko errege II n Juanek, iru jakintsuen aolkularitzara eroatea agindu eban Kolonek aurkeztu eutsoezan eskeintzak: **erregearen osagille ta izarlari Rodrigo ta Josope judu bieri, ta gaztelako eleiztar Ortiztar Diego**, lenengo Zeuta eta gero Bizeu 1ko gotzaia izan ziranai.

(1) Egurdi edo Eguzkia. (2) Zipango ugarte aundiek in = Japonen antziñako izena, Marko Poloren esanetatik. (3) Don edo Jaun deitzea = tener tratamiento de Don o Señor. (4) Bitxi = joya, albaja. (5) Arri-argi = piedra preciosa. (6) Menasta = mineral, metal en bruto. (7) Ongailu edo onkailu = abona. (8) pizgailu edo pizkailu = producto, hierba o flor para reanimar. (9) Gazpiperki = salpimienta. (10) Illagintzaren = batanero, lanero, tratante en lanas.

Jakintsu oneik, Kolonen eskeintza izarlari ta kosmografoakaz ikertu ta gero, ezetza emon eben, euren ustean Zipangoko lurraldea ez zalako kokatzen Atlas-itsaso zabalaren ostean.

Kolon 24 urte eukezala, bere emazte Moniztar Filipa il jakon, eta emen argi ikusi leike, bere bizitzan gertatu jakozenak, bere aita Nafarroako IVn Karlosen antzekoa zala, bere gorpua, Karmengo Ama Birjiñaren eleizan illobiratuta.

Kolontar Kristobal oartu zanean bere eskeintzat ez zirala onartuak izan, eragozpen aundi bat agertu jakon bere lau urteko seme Diegogaz, ezin ebalako beren egitarauen eskeintzakaz askatasunez ibili.

1.485eko urtean geiago oldoztu edo arazo orreik buruan erabili barik, eta IIn Juan Portugaleko erregearen beldur, edo zuurtasun andiz bai beintzat, erdi ostonkeran Uelbako Mugarren-Palos itxas-kai edo portura joan zan, Diego bere semeak bosturte eukezala, eta lan asko egin ondoren, emendik asiko jakozan aukerak agertzen Koloneri, eukan burupidea aurrera eroateko, argitasunezko lenengo-izpiak Gaztelako lurraldeetatik asita.

Kolontar Kristobalek Uelbaren Mugako-Palos itsas-kaia aukeratu ba eban bere semeagaz joateko, Nieblako Konderrian koñatu bi euki ebalako zan, Korreatar Pedro, Perestrelotar Iseu ´rekin ezkondata, eta Mulyar ´tar Migel, Muniztar Briolanja ´gaz ezkondata egon zana, bide batez bere seme Diego zaindu egin, bere gauzakin ibiltezan bitartean.

Alderantziz be oldoztu leike, bertotik errezago euki ebalako Gaztelako gortera bere joan etorriak egiteko.

Baiña Kolonek jakinda andik 6 kilometrura Rabidako lekaidetxea egon zala, bertara joan zan bere semeagaz, ta atea jo ta ogi zatibat eskatuta bere semeentzat, frantzizkotar lekaideak arrotz-zaletasun guztiagaz onartu eban.

Eta emen Mallorkako Lulltar Ramon frantzizkotar jakintsua aipatu bear dogu, bere jakin aundiko ikerketaren bidez, itsasmugimenduaren gora berak adierazpendu egiten ebazanean, Atlant itsasoko beste aldean lurrak egon bear zirela, esaten ebalako, gero Rabidako lekaretxearen Pereztar Juan eta Martxenatar Antonio frantzizkotar lekaideak aurrera eroan ebena.

Kolontar Kristobal Rabidan egoala, Pereztar Juan lekaideagaz aurkitu zan, eta bere asmo edo egin naiak berari adierazten egoala, au arrituta, lekaidetxeko osagillea zan Gartzziatar Ernandezeri deitu eutson, eta biak geratu ziran txundituta, Kolonen adierazpenakaz.

Lekaidetxe orreitan, ospe andiko izarlari bat be egon zan, Martxenatar Antonio lekaidea, baiña ez zan egon Kolon egonean.

Kolonek Rabidako lekaidetxe orretan, etxe ta eskola eder bat aurkeztu eban bere seme Diegorentzat, eta lekaidetxera sarri joaten ziran ainbat mariñelekin, adiskidetasun aundiak aurkitu be bai.

Belaskotar Pedro izan zan alango adiskide mariñel bat, Koloneri beren 40 urte ariñagoko itsasoaren ibilkerak esaten eutsezanak, adibidez: Fayal ugarte ondolik aldatu ziranean eta 150 leko baiño geiago ibilita, Ipar-Mendebaleko aize zakar batengaitik eragozpenduta, itzuli bear izan ebela, ta bidean Loraren ugarte aurkitu ebela, lur-egazkiaren egazkadari begituta.

Kolonek, ez zala naikoa lekaidetxe orretan aurkitzen eban laguntzagaz eta bere pareko zaldun edo aundikiakin berba egitea erabagi eban, Guzmantar Enrike Medina Sidoniako dukearengana joanda, eta Kolonek beren gogoko asmoak adierazpendu ondoren, onek ez eutson onartu ezer.

Gero, de la Zerdatar Luis errege seme ta Medinazeliko Dukearengana joanda, eta au IVn Karlos Bianako printzearen alaba, Nafarroa eta Aragoiko Anarekin ezkondata egon zan ezker, nun agertu ziran koñatuak lez.

Eta Medinazeliko Dukeak emoten eutson laguntza, ez eutsala emoten Zalduneko aundiki bat izategaitik, beren koñatua izategaik be laguntzen eutsolako, Berd eta Martorelltar Grabielek beren liburuetan ondo baiño obeto adierazpenduten dauan lez.

Kolontar Kristobal, urte bi inguru egon zan bere Nafar eta Aragoiko arreba Ana eta bere koñatu de la Zerdatar Luis Medinazeliko Dukearen etxean zaldunetzko arreragaz onartu ta zainduta, eta denbora onetan izango zan, bere koñatuak I Isabeleri idatzi eutsola eskutitz bat, esaten, zelango asmoak euki ebazan Kolonek itsasoaren bestaldera joateko.

1.486an Urtarrillaren 20an Kolontar Kristobal, IVn Karlos ta Margaritaren seme ta errege katolikuaren loba au, Kordobara joan zan bere koiñatu Medinazeliko Dukeagaz laguntzaille lez, onek I Isabelen aitorleari idazten eutsoezan eskutitzak eroaten, eta Talaberako Ernando I Isabelen aitorle oneri eroan eutsoezan eskutitz orreitan, idatzita joan zirala ezan leike, Kolonen errege-seme ta ondorengotasunezko zaldun izaera, ezkontza, jakituri ta eukezan asmo guztiak. Eta Kolonek, bere koñatuaren aolku bidez, erregearen zenbatzaille nagusi Kintanillatar Alonso-rengana joanda, onek, Gonzalez ta Mendozatar Pero Sebillako gotzaia eta gero Toledoko kardinala "irugarren errege" izenagaz ezagutzen zanarengana eroan eban.

Kolon, iru illabete inguru egon zan Kordoban, errege katolikuak Kordobatik itzuli arte, eta Kolonek, Jorraillaren askeneko gerta-egun orreitan ezagutuko ebazan bere izeko-osaba katolikuak.

Kolon, I Isabel eta Fernando erregearen gortera joan zanean, berak itsasoaren gora beran jakin ebazanak adierazi eutsezanetik, eta eroan eban itsasoaren eskutitz edo mapa erakutsi ondoren esan leike, Kolon emendik aurrera babestuta egon zala bere izeko-osabaren aldetik.

Errege katolikuak garrantzi aundia emon eutsoen asmo oneri, talde-buru bat antolatuta, Kolonek aurkezten eutsen egitaraua entzun eta ondoren ikertzeko.

1.486an Urtarrillaren 20an Kolontar Kristobal, IVn Karlos ta Margaritaren seme ta errege katolikuaren loba au, Kordobara joan zan bere koiñatu Medinazeliko Dukeagaz laguntzaille lez, onek I Isabelen aitorleari idazten eutsoezan eskutitzak eroaten, eta Talaberako Ernando I Isabelen aitorle oneri eroan eutsoezan eskutitz orreitan, idatzita joan zirala ezan leike, Kolonen errege-seme ta ondorengotasunezko zaldun izaera, ezkontza, jakituri ta eukezan asmo guztiak.

Eta Kolonek, bere koñatuaren aolku bidez, erregearen zenbatzaille nagusi Kintanillatar Alonso-rengana joanda, onek, Gonzalez ta Mendozatar Pero Sebillako gotzaia eta gero Toledoko kardinala **irugarren errege** izenagaz ezagutzen zanarengana eroan eban.

Kolon, iru illabete inguru egon zan Kordoban, errege katolikuak Kordobatik itzuli arte, eta Kolonek, Jorraillaren askeneko gerta-egun orreitan ezagutuko ebazan bere izeko-osaba katolikuak.

Kolon, I Isabel eta Fernando erregearen gortera joan zanean, berak itsasoaren gora beran jakin ebazanak adierazi eutsezanetik, eta eroan eban itsasoaren eskutitz edo mapa erakutsi ondoren esan leike, Kolon emendik aurrera babestuta egon zala bere izeko-osabaren aldetik.

Errege katolikuak garrantzi aundia emon eutsoen asmo oneri, talde-buru bat antolatuta, Kolonek aurkezten eutsen egitaraua entzun eta ondoren ikertzeko.

1.486an Lorailaren 15ean Errege katolikuak orduko denboran moruekin guda gogorrean egonda, eta Fernando egun orreitan borrokara urten ebalako, Lorailaren ariñauko egunetan esan leike ikertasunezko talde-buru ori sortzeko erabagi ebela.

Talde-buru onen lendakaritza, ez eban euki edozeiñek, Talaberako Ernando au, I Isabelen aitorlea izanez gain, erregiñarentzat orokorrezko-ministru baten antzerakoa izan zalako, eta osotzen eben taldekideak be, Salamankaren Ikastetxe Nagusiko jakintsuaren ardurapean ipinita: Zakuto´tar Abraham izarlari aundia, Torres´tar Diego izarren irakaslea, de la Yerbatar Nuñez eta Nebrija kosmografo, itsaslari, filosofu edo jakin-zale omnetsuakaz osotu zan.

Kolontar Kristobal Salamankan egon zan denboran, benetan gozatu eban, bere jakintza ta asmoak, Salamankaren goi maillako ikastetxe nagusian, ta dominiko lekaidearen ardurapean egon zan San Esteban lekaidetxean adierazten.

San Esteban lekaretxe onetan gero, Deza'tar Diego izango zan zuzendari, Torkemadatar Tomas inkisiziozko azterkai nagusiaren ondorengo lez, Kolonek lekaide onen babes guztia eukinda, 1.504an Azaroaren 21ean Sebillatik, bere seme Diegori idatzi eutson lez.

Talde-buru onek, ainbat bider batzartu zan, eta danetan esaten eben eziñ-egiñezkoa zala Kolon Amiralak aurkezten ebana.

1.487an Loraillaren 5ean Kolon eta Diego lekaideak, Kordoban egon zan Granadako gudu abia-lekura lagundu eutsoen gaztelar gorteko kideai, eta Kolonek, orduan artu ebazan lenengo 3.000 marabedi, Uztaillaren 3an beste 4.000 marabedi, eta Dagonillaren 18an Malaga mauritarrei kendu eutsen osteko Dagonillaren 27an, 4.000 marabedi *Kolomotar* Kristobalen izenarekin, beren biziaren beartasunerako.

Ekintza onek bakarrik argitzen dau, Kolon, errege katolikuaren loba izan zala, bestela nundik emongo ote eutsien ainbeste diru, eurak beartasunean egonda Andaluziko lurraldeak morueri kentzeko alegiñean ibilita ?.

1.487ko urte onetan Kolon Kordoban bizi zala, ez ebazan bakarrik beren bizitzazko bearraldiak asetu, baleiteke denbora onetan izatea, bere bigarren emazte-gaia izango zan Enrikeztar Beatriz, Gaztelako Amiral Enrikeztar Fradikeren alaba, leku orretan ezagutzea, eta beren bidez, 1.488ko Dagonillaren 15ean bere bigarren seme Fernando euki.

Baiña, 1.487ko urtearen amaieran edo 1.488 asieran, Kolon bere bidaiaren gora beran ikerlariai ainbeste deboran itxaroten, ta erabagirik ez zalako agertzen nekatuta, Portugaleko erregeari idatzi eutso eskutitz bat, beren serbitzuak eskeintzen.

1.488an Epailaren 20an idatzita artu eban Kolonek, IIn Juan Portugaleko erregearen adiskidetasunezko, bizkorgarri eta maitekorrezko erantzuna, IIn Juanek gogo aundiak euki ebalazako Kolon berriz bere serbitzuan artzeko.

Kolontar Kristobalen itxarotezko asperraldi denbora oneitan, ainbat gauza kosmografia ta jeografiako liburuetatik irakurri ta idatzi ebazan, eta bere aita IVn Karlosen olerkari edo izneurlari oneko ondorengotik bere izaerazko zaletasunean agertuta, baita olerkiak be, bere *Iragarpeneko liburuan* agetzen diran lez.

Bai bere irakurketaren bidetik, oarketa asko idatzi be liburuko orrien idatzibako lekuetan, adibidez: Marko Polo, 1.489ko urtean irarritako Plinioren orokorrezko edestian, Plutarko, Ptolomeo ta abar.

Baiña, Sebillako *Kolonbino erakustokian* dagozan liburuak 2.125 oarketakin: 1.485eko urtean argitaratuko *Marko Polo latino*, *Senekaren izu-antzerkiak*, d'Allytar Pedro kardinalaren Ymago mundi, onek 1.410ean idatzi eban Jeografiaren orokorrezko liburuan esanda, Asia Ekialdetik urrun zabaltzen zala, eta mundu onen biribiltasunezko beste aurpegi aldetik, ez zala egon Europatik bananduta itsas-estu bategaitik baiña, eta azkenez, Silbio ta Pikolominitar Eneas, gero Aita Santua izango zana IIn Pio izenarekin idatzi eban *leku guztietan gauza guztiaren egindako edestia*⁽¹⁾, dira.

Kolontar Kristobal, jakintza ta itsumenezko ardura aundiko gizona zan bere munduko biribiltasunari begira, eta ez ebazan alboratzen libururik, kontu orreitan bere barruan aipamen txikerrena baiña ekarri ez arren.

Onez gain, Kolontar Kristobal gaztelanian egon zan denboran, oso babestuta egon zan, Kintanilla, Dezatar Diego, eta espainitarren Kardinala kontuan euki barik, Kabreratar Andres eta bere emazte Fernandez de Bobadillatar Beatriz, Moya'ko Markesak, I Isabel erregeiñagaz adiskidetasun aundiak euki ebezanak, geiago, Malagako ingurutasunean batera egonda, mauritar batek Beatrizeri aitzokada sakon bat sartu eutsoenean berak galbidetik gordeta, bai eta Kabrerotar Juan erregearen gelazaiñ aldetik, eta abar.

Aragoi aldetik be, naita juduak izan arren, ba-eukazan beste adizkide laguntzaille batzuk, Santxeztar Gabriel diru zaiña eta Santanjeltar Luis idazkaria bezela.

(1) *historia rerum ubique gestarum = Leku guztietan, egindako gauza guztiaren edestia, ezezkoaren merezimendu andienagaz baztartu egin ebalako.*

1.488an Dagonillaren 15ean jaio zan Kristobal eta Beatrizen seme Fernando, eta ezkondu ez arren, orduko denboran zaldunezko aundikiari ez eutselako ardura aundirik emoten, edozein nezka bategaz ume bat eukiteagaitik, naita Beatrizek beren bizitza on eroan dagien, Kristobalek bere ardurazko gauzak ondo baiño obeto atonduta itzi, gero 1.502ko urtean azkenai lez bere seme Diegori agindu eutsonean bezela.

1.489ko urtean, Kolontar Kristobal, leku askotatik ibili zan itsasoz Gaztelako erregearen serbitzura, erregearen eskutitz bat beragaz eroanda beti, egoten zan leku guztietan ordezkatu bear ebazanak Gaztelako gortearen ordaintzeko ardurapean geratzen zirala, esaten ebana.

Eta emen, Kolonen zaldunezkotasun ta erregearen senitasunak agertzen dira ostera be, bestela nundik nora ulertu ainbeste eskubideko laguntza ?.

1.490eko urtean, Indiako bidearen gora beran urte ta egunak astiro baiña etenbako iraun aldian doiezela, Salamankaren batzarreko iker-taldearen erabagia agertu zan, Kolonentzat ez ebena ekarten baimen eta gitxiago zorionik, Jakintsuen eritzian bidai ori ezinezkoa ta.

Baiña erregeak, Kolonen aurkako erabagia euren eskuetan euki arren, eskutitz bat bialdu eutsoen Koloneri, ezeren itxaropenik kendu barik, eurak erabagiko ebela, Granadako guda amaitzen zanean.

Zoritxar andia Kolonentzat, sendian banaduta egonez gain, bere biziaren egoera okertzen ebalako, 11 urteko Diego semea Uelbaren Rabidako lekairtxean, beste semea Kordoban bere amagaz, eta txarrena, Gaztelako gortearen laguntza kendu eutsoenean.

1.491ko Jorraillaren 11n Errege katolikuak Juan Printzeagaz batera, mauritarren aurkako borrokak asteko naian, Sebillarantza joan ziran, Fernando katolikuak bere emazte I Isabel eta seme Juan, Erregearen Alkalako urian izteko.

Uztaillaren erdian I Isabelen larruzko aterpeak sua artu eban, eta beste aterpeetan su orrek triskantzua aundiak egin eta gero, Fernandok ez daiten ostera alango gauzarik sortu eta beren gualozteak ondo babestuta egon zitezen, iru illabetetan erri bat jaso eben Granadako ibar aretan, eta "Santa Fe" izena ipini eutsoen uri barri orreri.

Errege katolikuak beti lagundu ta babestu eutsoen Koloneri, baiña sekula ez eben bere ize-nik, jaio erria ta euki eben Nafarroako erregearen ondorengotasuna aldarrikatu. In Juanek eta bere seme Fernando katolikuak, bere aita IVn Karlosekin, errege lez euki zituzen leiak eta pozoitasunezko eztabaidagaitik izango ote zan ?.

Nik geiago sinistuko neuke, Fernando katolikuaren maltzurrezko guzurti ta gaizkatzaille iza-teagaitik, ez ebalu gura nai inork jakin egian nor zan Kolon, berak eta bere aita In Juanek egin ebezanak, euren seme ta ugazanaiarekin ez zitezen ezagutu.

Orregaitik da izilpeko ongunde zarratu ta politiko zital bat, orduko denboratan Kataluña ta Euskalerrria edo ta Nafarroan ezagutu ba ziran Kolontar Kristobalen izen abizenak eta IVn Karlos Nafarroako erregearen semea zala, erri-biak euki ebezan eskubidetik, indar guztiekaz matxintasun bideetan sartuko ziralako.

Koloneri, Gaztelaren gorteko agiri guztietan emoten eutsoen arrera, ez zan Mallorca, Jenoba, edo ta alango beste izen bat eukiteagaitik, ez, arrotza izateagaitik baiño.

Eta au da nire ustez, Kolontar Kristobalek euki eban bene-benetako arazoa, errege katolikoak eleiztarren agintaritzazko kaizar aolku eta gaizkidetasunean euki eben almen guztiagaz, jakin ez edin edo Aragoi ta Nafartar erregetzaren izenak ez zitezen agertu, ezezaguntasunezko illumpetasun baltzenetara sartu ebazan Kolonen izen-abizen ta ondorengotasunak.

Bestela Granadan, Nizeatik katolikotasunezko batzangotasunaren asmakuntzan etorten zan iritziari bertan zinez itz emon edo zinpetuaz ez ba eben berriztu, espainiar izenagaz erdi-ugarte edo peninsula au aberri-katolikotasunean batzagozteko euki ebezan egin-nai guztiak, pikutara joaten ziralako.

1.491eko urtean, Kolontar Kristobal ez zan kikildu eta Uelbara joan zan Rabidako lekaretxean frantzizkotarren babesa, eta Palos´eko mariñelaren laguntza billa.

Eta begitu non sortu leiken zoriona, bertan aurkitu ebazalako, len berari ainbeste lagundu eutson Pereztar Juan, beste gizon bi barriekaz, Martxenatar Antonio ta Alonso ta Pinzontar Martin, berentzat ain garrantzizkoak izango zirenak.

1.492an Urtarrillaren 2an menperatu eben errege katolikuak Granadako Uria, eta emendik aurrera emon eben amaitutzat mauritarren aurkako guda.

Batikanoko inguruan Aita Santuak, Erromako San Pedro eleiz nagusian meza santuak eta jolas jaiak ospatuta. Bai eta VIIIn Enrikek Londreseko San Pabloko eleiz nagusian, Islanen aurkako katolikotasunaren garaipena ospatuta.

Emendik aurrera azten dira Kolonen alkarrizketak Gaztelako errege katolikuarekin.

Eta Berak beren buruagaitik zer oldozten eban jakiteko, berak idatzitako berba auek aurkeztuko dautsuedaz: “Ni zer nintzala oldozten, nere apaltasunak naspillatu egiten eustan, baiña, izaeran eroaten nebana jantzita oldozten, koroi bi orren bardiñakua senditen nintzen”.

Eta len Portugaleko erregeagaz egin eban antzera, errege katolikuakaz batzartuta, bere eskarrazko baldintzak ipini eutsezan: agertuko ebazan lurraldearen “Errege ordea, Amiral ta Orokorrezko Jaurleri” izendatu egiela, eta azkeneko izen oneik Don izen-ondokoagaz betiko eroan egiezala bere ondorengoak.

Bai eta Indiasera baktzaren joan-aldirako prestatu egin bear ziranaren balio izaten zan diru guztitik, berari itzi eutsiela zortzigarrena ordaintzen, eta irabazi guztiko kopuruaretik berari, amargarrena ordaintzea.

Errege katolikuen eritiz, lar zala Kolonek eskatzen ebalta ta ostera bota eben atzera Indiazeko asmo ori.

Kolon asarre, lagun guztiari agur eginda eta mando baten gaiñera igonda, Kordabarantza bideratu zan, gero Frantzirantza joateko.

Moyako Kondesa, Kintanillatar Alonso, Kabrero ta beste lagunak, ez eben onartu Kolon Europako beste erregetza batera joan zedin, eta euki ebezan asmo on guztiak beste kanpotar batzuk gozatu ez egiezan, erregiñarengana joan ziran ostera, erregiñari esanda, ori gertatuten bazan, Gaztela ta Katolikotasunaren kalte izango zala.

I Isabel Gaztelako erregiñak ostera mezulari bat bialduta, eta Granadatik leko-bira “Pinos Puenten” aurkituta, ostera itzuli zan Kolon bere izeko erregiñak zer esaten eutson entzutera.

I Isabel bere loba Kolontar Kristobalekin egonda, auxe esan eutson: “Eginkizun au, nire Gaztelako erreiñuaren kontuan artzen dot, eta Gaztelako gortearen gorde-lekuan dirurik ez balego, nire bitxi ederrak salduta ordainduko dodaz”.

Emen ikusten da Fernando katolikuaren lenengo urruntasuna, I Isabel il zanean, eginkizun oneik, bere guzurrezko maltzurtasun ta norkerizko jokoakaz alkartzeko.

Eta errege katolikuak, Kolonen baldintza orreik agiri baten batzeko, Kolonen lagun andia izan zan Pereztar Juan frantzizkotar lekaideari agindu eutson agiri baten idatzi egiezala, eta onek Koloma´ko Juanen laguntzagaz egin eta gero, alde biak “Santa Fe´ko elkargo”an izenpetu ebezan. Eta Kolonek, asieratik artu eban zaldunezko arrera, errege seme-lez.

1.492an Jorrraillaren 17an siñatu ziran agiri oneik Granadaren Santa Fe´ko Urian.

Eta Kolonek, agiri orren baldintza baten, ipini ba eban Enrikeztar Alfonso Amiralaren bizibide edo mailla bardiñean izendatzea, baleiteke Enrikeztar Alfonso, Gaztelako IIIn Enrike erregearen sasiko semea zalako izatea, eta bera beren mailla bardiñekua izanda, zer gitxiago berarentzat, eta alan egin eben Kolon, Indiako Amirala.

IIIn Enrike Gaztelako errege au, Fernando katolikuaren birraitite izan zan.

1.492an Jorrraillaren 30ean errege katolikuak Koloneri, aurkitzen ebazan lurralde ta ugartearen **Amiral, errege ordexko, ta orokorrezko Jaurleri** izendatuz gain, berak bear eben guztia eskuratu egiela agindu eban, bide orren asmoa, len bait-len lortu egian.

Eta erregeak, Paloseko alkate Rodrigex ta Prietotar Diego eta erritarren artean erregearen aurka egon ziranai, agindu au emon eutsen zigor lez, kañoiakaz armaduneko itsasotzi-bi ipini egiezela erregearen urtebiko serbitzura, Kolonek bear eben lekutik ibilteko.

1.492an Loraillaren 12ko Zapatuan urten eban Kolonek bere taldekideekin Granadatik Palos'eko Uriaren itsaskairantza.

1.492an Loraillaren 23an Kolonek, Palos'eko jaurlari ta erritarrai deitu eutsen, San Jorjeko eleizan batu zitezen, erregeak emon eutsoezan aginduak danori irakurriaz batera, itsasontzi biak bere ardurapean ipini egiezen.

Eta Palos'eko jaurlariak erregearen eskari ori beteteko, itsaskaian egon ziran itsasontzi bi baitu⁽¹⁾ ebazan, eta irugarrena De la Kosa'tar Juan kantauriko mariñelak eskeiñita eukan itsasontziakin osotu zan Kolonen itsas-taldea.

Beste gauza bat izan zan itxasontziaren mariñeltza lortzea, ezautu-bageko itsas uraren bildur, iñork ez ebalako gura itsasontzietara igon.

Kolonek egoera au ikusita, erregearen agintaritzea erabiltzea erabagi eban, eta zigortzeko ziran gaizkilleari parkamenaren ordez deituta, lortu ebazan geienak beintzat.

Agindu orregaz batera, Andaluziko agintari guztiari esanda, Kolonek bear eban guztia saltzeko, zentzunezko ordain sari bidetik.

Kolonek ez eban lortzen berak gura ebana eta Rabidako lekaideak konturatuta, Pereztar Juan lekaideari agindu eutsoen Kolonegaz berba egin egian, eta onek Alonso ta Pinzontar Martinen laguntza eskañita Koloneri, onek Pinzonegaz diru kontuen gora berak erabagita lortu eban, Pinzon bera ta bere sendiaren lagunakaz itasontziaren mariñeltza betetea, eta baita Pinzonek berak diruz, 500.000 marauri maileguz edo aldikoz iztea.

Eta beste itsasontziren mariñel eza, atxilotuta egon ziran gizon edo gizon-gaizkilleakaz eta Palos, Uelba ta Mogerreko jendeakaz osotu eban.

1.492an Ekaiñaren 23tik, Dagonillaren 3rarteko bitartean Kolonek, Alonso ta Pinzon'tar Martinekin lortu eban bidai orretarako lortu bear ebana, eta Paloseko jaurlariak itzi eutsezan itsasontzi bien aldaketak beste aundiagoko itsasontziagaitik eginda, Palos'eko izenakin joan bear izan ebenak, "La Pinta, La Niña ta Santa Maria"ren izenak ipini eutsozan.

"La Pinta" itsasontzia, Palos'eko Kinterotar Kristobalena izan zan, ta iruretatik azkarrena izan zalako, itsasontzi onetatik ikusi ziran leen Ameriketako lurak. Itsasontzi onetan 26 mariñel joan ziran.

"La Niña" itsasontzia, Mogerreko Niñotar Juanena izan zan, eta Kolonek ontzi-oialetan egin eutsozan aldaketakaz, bestien bezelako azkarra biurtu zan. Eta itsasontzi onetatik bota eben lenengo tiroa Rodrigex ta Bermejotar Juanek⁽²⁾ lurra ikusi ebalako. Itsasontzi onetan 22 mariñel egon ziran.

"Santa Maria", la gallega esaten eutsoenai, de la Kosatar Juan Santoñako izarlari aundi ta georago onek egin eban Ameriketako mapa artean ospatsuena izango zanarena izan zan, Koloneri akuratu edo alokatuta. Itsasontzi onek 39 mariñel euki ebazan.

Itsasontzi oneik, izkillu sendo ta kañoiakaz tresnatuta egon ziran, eta lau Pinzon senditar aurkitu ziran ikertasunezko bidai onetan:

Pinta itsasontziren kapitaiña, Alonso ta Pinzontar Martin 45 urte ingurukoa.

Itsasontzi onen bigarren agintaria, Pinzontar Franzizko Martin.

Itsasontzi onetan be mariñel lez, Pinzontar Diego martin joan zan.

Eta "Niña" itsasontziren kapitaiña Yanez ta Pinzontar Bizente 32 urtekoa.

Diruagaz be, txarto ez, Pinzonek ipini ebanzan milloi erdiari, beste milloi bat gaiñeratu egin bear zalako errege katolikuak emon da.

Jakin degun zelako senidetasuna euki eban Kolonen, Nafarroako IVn Karlosen semea izanda, Aragoiko IIen Fernando eta Gaztelako I Isabelegaz, guzti au Kristobal Kolon, Nafarroako IVn

(1) Baitu = decomiso, confiscación, secuestro. (2) Rodrigex ta Bermejotar Juan = Trianako Rodrigoren izenakin esagutzen zana.

Karlos erregearen “semea Izan ote zan ?eko Euskerazaintzaren 2.013ko urtearen LXXIn zenbakiko liburuxoan aurkituko dozue: aeuskerazaintza@gmail.com Eta gure lanak web’orrian: www.euskerazaintza.org en aurkituko dozuz.

1.494ko Otsaillaren 2an Kolonek, 12 itxasontzi bialdu ebazan peninsula onetara Torrestar Antonioaren agindutara, erregearentzako oar-idazti batekin, eta erregeari adierazian aurkitu ebazan urre-gorritzko arri koskorren meaztegiak aurkitzeko egingo ebezanak, eta zelango antolaketak egingo ebazan babestuta egoteko ango azterkuntzak egiten egon ziran bitartean.

Eta emen nun agertzen dan berez, Kolonek erregeakaz euki eban senidetasuna, idatzi ebazan lenengo lerroetan: “encomendareis en Sus Altezas como a Rey e Reina mis Señores naturales” esaten dabenean, askeneko iru berba oietan esaten dabelako, zelango senidetasuna euki eben Aragoi eta Gaztelako errege-erregiñak, Lur Gorri edo Terra Rubrako Kolon Amiralarekin.

Nafarroako IVn Karlosen semea izanez gain, IVn Karlos, II In Fernandoren ugazanaia, eta trastamarako leinuaren bidetik, Gaztelako I Isabelen loba lengusua izan zalako.

Kolonek emendik aurrera eztabaida gogorrek eukingo ebazan, agindupean euki ebazan batzuen bekaizkeri bitartez, ta ori kontuan artuta bera ugartetatik gudari talde gogor bategaz joan zanean azterkari, bere anai Don Diego agindupean itzi eban Isabelaren erria.

1.494ko Epaillaren 12an urten eban Kolonek bere gudari taldeagaz azterkari, eta ibar aberats bateri “Vega Real”en izena ipini ondoren, Zibao mendi katera joan ziran azterka, eta urre gorriaren ainbat agerpide ikusita, erreka inguru baten gaztelu bat eraikitea agindu eban, gero Santo Tomasen izena ipini eutsonei, eta 50 gudari Margaritetar Pedroren agindupean ipini ondoren, eurak Epaillako 29an Isabelaren erriko ugartera joan ziran.

2. 47. *II In Julio Aita Santua, Frantziko XII In Luis, II In Fernando katolikua, eta Nafartar I Juanen eriotzeak.*

Dana dala, II In Fernandok azkenean, guzur utsez eta Aita-Santua ren laguntzagaz, nor geiago dala, Nafarroaren Auñamendiko Egoaldeagaz geratu zan, 1.513ko urtean Nafarroako gortek II In Fernando katolikoa errege izendatuta.

Ortik aurrera, Nafarroako errege I Juanek 1.517ko urtean il zan arte, Auñemendiren Iparraldean bakarrik agindu eban.

Laster ilgo ziran antzerki onen antzezleri nagusiak.

II In Julio Aita-Santua: 1.513ko Urtarrillaren 20an il zana.

Frantziko XII In Luis erregea: 1.515eko Urtarrillan il da.

II In Fernando katolikua: 1.516ko Urtarrillaren 23an, zori-gaiztoko eta akurazko⁽¹⁾ ostatu baten ilda.

Nafarroako errege I Juan: 1.516ko urtean Bagillaren 17an, Esgoarrabakeko gazteluan ilda.

Nafarroako I Kataliñ ta Nafar zintzoak alegindu ziran Nafar erregetza berrezkuratzen, baiña leenengo astikor ibili ziralako eta Frantziako erregea bigarren, beste zeregin aundiagotan sartuta egon zalako, ez eben, bear dan moduko laguntzarik euki eta Auñamendiko Ipar aldean bakarrik agindu eben.

2. 48. *FERNANDOren BIDEK ZISNEROS KARDINALA.*

1.516ko Urtarrillaren 23an Fernando katolikua il zanetik, espainako erregetza Zizneros kardinalak zuzentzen eban eta espainak berari zor dautso Nafarroaren menpekotasuna.

Kanpionek emen, garrantzi aundiko gauza bat esaten dau, ***Nafarroa, Fernando katolikuak menperatu ebalu, aurpegia erlijiozko mozorroaren estalpenagaz azaleratuta.***

Eta Nafarroaren egizko menperatzailea ez zala Albako dukea, II In Julio Aita Santua baizik.

(1) Akurazko ostatu baten = casa de alquiler.

Ortik aurrera, espainiko erregeak, ondo baiño obeto zaindu eben, Iruñako gotzain eta Eleizaren agintaritzazko lekeide/me etxeetan, baita errege aukietan Nafar- semeak ez egien ezarri. Nafar- erregetzaren irudia galtzen joan egian ta Gaztelatarrena biztu, euskal-izkuntza ta Nafar-aberritasu- naren nortasuna ezerezuta, nafarrak espain-katoliko-aberrikuntzazkoak biurtu egiezan.

Alan egin eben Zizterreko lekaideak XVI n gizaldiko amaieran, Nafarroako erregearen il-obiak ikus ez egiteko lekuetan ipinita, erria aaztu egin daiten beren arbasoakaz.

1.516` an Epaila` ren 7 an, I Karlos` en aolkulariak, berari esaten eutsoen, Nafarroa` ko erregetza ostera emon edo itzuli egiola berezko erregeari.

Aragoi` ko Alfonso (Fernando katolikuaen sasi semea zana) Zalduba` ko gongotzain edo artx-apezpikuak baiña, I Karlos` eri eskatu eutson: “Nafarroa` ko jabetzari eutsi egiola euren la- terriaren babeserako. Bere zainpean, Auñamendiaren igarobide guztien giltzak eukazalako”.

2. 49. *Nafarroako II n Enrike eta espainiako I Karlos.*

1.515eko urtetik aurrera bere aita I Juan eta ama I Kataliñ, Frantziko gortera joan ziralako bizi- tzen, bertan ezagutu eban Angulema` ko Margarita⁽¹⁾, Frantzes idazle ospetsua eta “Eptameron” liburuaren egillea. I Frantzisko Frantzia` ko erregearen arreba zana eta 1.509tik aurrera IV n Karlos Alezongo dukeagaz ezkondata alargundu egin zanean, 1.527an beragaz ezkondu zan.

1.516ko urtean II n Enrikek bere ama Kataliñegandik ondorengoa artuta, Noyonen saiatu zan espainiako I Karlosen aurka, Nafarroako ego-aldea berrezkurutzen. Baiña, alperrik izan zan.

1.517ko Otsaillaren 12an I Katalina il zan eta euki ebazan amalau seme/alabetatik sei geratzen jakozan bizirik. Oneitatik II n Enrike semea izan zan beren ondorengoa.

Albret` eko II` n Enrike` k Nafarroa` ko erregetzaz gain, Biarno, Foix, Bigorra, Ribagorza, Armag- nak, Perigord, Tursan, Gabardan, Tartas eta Limojes` ko lurraldearen jabetza euki eban. Beraz, Nafarroa, Gaskoinia ta Auñamedia` ren Ipar-erdialdeko errege ta jaun nagusia izan zan.

Beren elburu nagusi, Nafarroa` ren Ego-aldea berrezkuratzea zan.

1.517` an Urrilla` ren 7 an, Paris` eko Lege-Biltzarrak Foix` eko auziketean, Nafarroako erregea- ren alde erabaki eban.

1.517` an Urrilla` ren 31` n Europa` ko jarkera orreik, etsitasunezko (desesperación) aldaketak bereala egitea eskatzen eban, eta Lutero` k Wittenberg` en 95 maixu-idazkiak (tesis) aurkeztu ebazanean, Eleiza` k barkamenaren arloan ibiltzen ebazan ipotesi ta egikizunak arrazoiaren aur- ka, agertu ziran. Ortik aurrera Erreforma edo berrikuntzaren denborak deituko jakezan.

Jazargo, aurkariko edo protesta denbora orreik, berrikuntza-bat baiño, erlijio, gizarteko eta gi- zartearen jakintzazko iraulketa aundi bat baiño ez zan izan. Ekanduan, irakaskintzan, ekonomian, abendan eta politikarako, sorburu guztiko alegiñetan, okerrezko gauzaren-ondorengoak eraginda.

1.518` ko urtean, Balladoliz` eko gortek I Karlos` eri esan eutsoen: Nafarroa` ko erregetza men- pean eukiteko, gure gizaki edo pertsonak eta etxaldeak zaintzeko bear ba-dira, ipiniko doguzela. Erregetza ori gure erregetzaren giltz-nagusia dalako` en aitzakiagaz. Ortik agertzen zalako, I Isabel` en ta Zizneroz` en Godo-asmoak Espaiña` ren ametskerian.

Bardin esan eutson Zizneros` ek: “Erreñu ura, berak balio baiño geiago kosta izan jaku, eta gutxi gaitik ezin da galtzorian jarri, ain sariko (estimaciòn) gauza ori. Zure Espaina` ren erreinuentza- ko, atea izan balitz bezala, bideak zabaldu ta zarratu egiten dauana da-ta”.

2. 50. *Ego-Nafarroa askatzeko gudan, Nafarroako II n Enrike ta Frantziko I Frantzisko erregeak baituta.*

1.518ko urtean II n Enrikek, itzarmen bidez Montpelierren, espainako I Karlosekin ostera saia- tu zan Nafarroaren ego-aldea askatu egien, eta alperrik zala ikusita, gudarako asi zan antolatzen.

(1) 1.492-1.549ko urte bitartean bizi zana.

1.521eko Bagillaren 10an, II In Enrikek, Foixeko Andresek bideratzen eban Nafartar, Gaskoi eta euskal frantzesakaz osotutako guda lozte, Donibane Garazitik sartuta, Nafar egoaldeko lurak asi ziran berrezkuratzen, eta Iruña artu ondoren, Lizarra, Tafalla ta ia Nafar osoa berreskuratuta euki eben.

1.521eko Bagillaren 30eko Igandean baiña, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia ta Errioxatarrakaz antolatua zan guda lozte, III In Luis Leringo kondeak bideratu egien, asko lagundu eutson espainako Igoa ta Alemaniako Vn Karloseri Noainen, eta Ezkirotz ta Barbatan zelaietan, 5.000 gudarrien gorputzakaz odolezko oiñ-azpiko lez beteta itzi ondoren, ostera be II In Enrikek borroka galdu eban.

Eta kontuan euki, euskaldunen anai guda izan zala au, lotuta egon giñen itzarmen bidetik.

Nafartarrak emendik aurrera, euren errien-arteko Nortasuna galduko eben, eta menpeko mailara beratuko zan. Nafartar Erritarren askatzeko mugi-aldiak, ixilleko eskubidetik eroanda ortik aurrera, egin leikena zalako bakarririk.

Nafarroako erregetza edo errege bagerik, euskal erri-lez, beren eskubideko jabetasuna adierazita, Europan daukaguzan eleiztar eta epai-lege aundikien bidez, ezin leike, euken nortasunezko euskal eskubideari guzuraren bidez egin eutsoen lapurketa aundi orretatik askatu ?.

Dana dala, or doa gero ta berago Euskal ta Nafartar lez. Eta nai-ta euren legera guztiz lotuta egon gabe, espainiako erregetzaren probintzi edo erri-alde lez leenengo. Azken baten, geroago edo ariñago, euri guztiz menperatuta geratzeko bidean. ***Euskaldun jakintsu ta ulermen aundi-koen artean, Nafarrerria berrezkuntzeko ez badago alegin eragille bizkor ta indartsu bat.***

Bizitz oneitan, erreztasun aundiz galtzen dira Nortasunezko izaeraren sinis-eritziak. Ordezkaritzaren egillezko arduradunak jaiota, gure erritar antolakuntzazko egipideetatik geien, nortasunaren berezko izaera orreik, benetako arduratik kanpo izten ba dira.

Erri batek, sekula ez dau galtzen bere Aberriaren Nortasuna, errurik bage.

1.522ko Uztaillaren 19an, Noainetik 200 gudari Maiako Gaztelura joanda, euren artean, Frantzisko Javier Donearen anaiak zirala, ia urte betean eutsi eutsoen, baiña menperatu ebazan.

Eta emen itaun aundi bat:

Eleike atara emendik, Europako Kristautasun eta katolikotasun arteko borroka izan zala au, alde baten Frantzisko Javier Donearen apaiz, lekaide abatak eta gotzaiak, Zisneros bere gotzai, lekeide ta apaizen aurka izan zan borroka onetan, Nafartarrak, Jainkoaren askatasunezko legez, ez ebelako gure katolikotasunean aberritutako iñungo arrotzen menpekotasunik ?.

Nungo Europan egongo ote dira, berak daukazan Jainkoaren ordezeko apaiz eta danon lege-gizon jakintsuak, gagozan ordezkari azko bizi onetan, danok demokrasi ta pakez bizitzeko irasi genduzan kudeatzaille edo ordezkari zaren alderdibageko arduradun jakintsu orreik ?.

Maiako erritxoan dago oroitari aundi bat, guk, euren euskal eskeintza gogoan euki dagigun.

1.524ko Otsaillaren 29an Ondarribi, ia iru urtean inguratuta egonda, Albako dukeak menperatu eban.

1.525eko Otsaillaren 24an, II In Enrikek Frantziako errege I Frantziskori, Pabiako gudan laguntzen egoala Gaztelako I Karlosen aurka, Bizkaitar Urbietatar Juan gudariak I Frantzisko Frantzisko erregea atrapau ebalako, eta euken guda lozte menperatuta, Gaztelako I Karlosek, biak atxilotu ebazan.

1.527ko urtean urte bi beranduago, biak iges egin eben I Karlosen atxilopetik.

Atutxa'tar Paul

Zornotzan, 2.016'ko Otsailaren 29an.



Euskeraren Erri Akademia
Academia Popular de la Lengua Vasca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

e-mail: aeuskerazaintza@gmail.com
www.euskerazaintza.org